

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2013-11-04
ASTELEHENA
428. ZENBAKIA
10. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM

Aloñaren merezitako garaipena

1 eta 0 irabazi zion etxean Bergarari | 24



Derbian lehian. | JOSETXO ARANTZABAL

Sagar eta mahats uzta txikiagoa aurten, baina kalitatezkoa | 7



Xabi Abasolok bigarren egin du azkenean enduroan | 26



Ahotsa eta erritmoa eraman zituen Kalakanek Oñatiko gaztelekura | 29



Bizitza oso baten azken notak

Eguenean hil zen Miguel Gonzalez Bastida musikari bergarar handia; doinuz agurtu zuten zapatuan | 31

Hain maite zuen bandaren musikarekin hartu zuten hilkutxa, San Pedro parrokian.

JOSETXO ARANTZABAL

Behin betiko aste erabakigarria da hau Fagor Etxetresnen etorkizunerako

Egun gutxiren buruan finantzia-ziorik lortu ezean, hartzekodunen lehiaketan sartuko da kooperatiba. Gaur, berriz ere batzartuko dira Eusko Jaurlaritza, Korporazioa, Fagor Etxetresnak eta Debagoieneko udalak, irtenbideak aztertzen jarraitzeko. | 2

SINADURAK

- MARTIN JAUREGIALZO | 10
- 10 | JOKIN BEREZIARTUA
- NEREA MAKAZAGA | 14
- 17 | PEDRO GARITANO
- AITOR UGALDE | 18
- 19 | NURIA FERNANDEZ DE ARROIABE
- IMANOL GALLEGU | 37
- 40 | MARKOS BALENTZIAGA

"Kontrolpeko edukiontzi sistema" jartzea adostu dute Arrasaten

%70eko helburura iritsi ezean atez atekoa jarriko dute | 14

Dabid Gartzia eta Aitziber Urkiola nagusi Antxintxika lasterketan

425 lagun izan ziren Soraluze eta Bergara arteko proban | 22



Helmugaratzen. | JOSETXO ARANTZABAL

Mikel Aristi: "Derrepente esaten digute ezetz eta ilusioa pikutara doa"

Euskadi Fundazioak eta Ner Groupek, akordiorik ez | 25

Fagorren erlojua atzera-kontaketan, hasi da aste erabakigarria

- ▶ Gaur batzartuko dira Korporazioa eta erakundeak
- ▶ Etxetresnek finantziario bila jarraitzen dute
- ▶ Langile eta ekarpenen etorkizuna ere ilun dago

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Atzerako bueltarik izango ez duen erabakirako egun gutxi falta dira. Fagor Etxetresnak hartzekodunen lehiaketara sartuz gero, fase berrian sartuko da kooperatiba, likidazio fasean. Bai Korporazioak eta baita Eusko Jaurlaritzak ere, ukatu egin diete Fagor Etxetresnei aurkeztutako bideragarritasun planerako dirua, 170 milioi euro. Gaur, astelehena, beste bilera bat egingo dute erakundeek, Korporazioak eta Fagor Etxetresnek, eta honela ekingo zaio ultimatum giroan eta batzarren artean, erabakigarria izango den asteari. Eusko Jaurlaritzatik, Arantza Tapia Ekonomia eta Lehiakortasun Sailburua eta Juan Mari Aburto Enplegu eta Gizarte Politiken Sailburua egongo dira bileran, Korporazioko eta Fagorreko ordezkariekin eta Debagoieneko eta Urolako alkateekin. Fagor Etxetresnen itxieraren inpaktuaren mailaren erakusle da gaurko batzarreko mahaiaren osaketa,

Euskal Herri mailan kooperatibarekin lotutakoez gain, zuzenean eragiten baitie ia beste 4.000 enpleguri.

Bideragarria ez ei den plana

Joan den eguaztenean Mondragon Taldeak ezezkoa eman zion Fagor Etxetresnek aurkeztutako bideragarritasun planari. Aho bateko

ezetza izan zen, Gasteizko Gobernuak ere baztertu duena. Jakitera eman denez, Fagor Etxetresnen planaren arabera, proposatzen da soilik eustea Garagartzako lantegiko Egoste atalari eta gainontzeko atalari eta San Andresko lantegia, itxi egingo lituzkete, 470 langileri eraginez. Aldi berean, aktiboak saltzea planteatzen da



Ordaindu plataformako kaltetuak, abokatuekin. | LARRAITZ ZEBERIO



Eguen iluntzeko manifestazioaren amaiera, Arrasateko Herriko plazan. | JOKIN MUXIKA

ibilbide-orrian eta Bergara, Aretxabaleta eta Basauriko negozioak saldu egingo lituzkete. Horrek, 850 langile lagako lituzke birkokatze baten zain. Hori Euskal Herrian; Frantziako lantegi batzuk eta Marokoko ere ixtea proposatzen da. Funtsean, Fagor Etxetresnak finantziario bila dagoen planarekin, Garagartzako lantegiarekin eta Frantziako eta Poloniako Egoste negozioekin geratuko litzateke, zabaldu den informazioaren arabera.

Mondragon Taldearen aldetik, Fagor Etxetresnen etorkizunean sinistu ez arren, errentagarriak diren lineak, moduren baten ala bestean, salbatzea ere sartuko litzateke epe baterako asmoen artean. Hedabideetan zabaldu denez, litekeena da beste marka batekin eta zuzendaritza aldatuta berreskuratu ala berregituratu nahiko lituzkete zati errentagarriak, Fagor Etxetresnak likidatu eta gero. Jaurlaritzak ere bat letorke asmo

horiekin. Bideragarritasun planak eta Korporazioaren balizko asmo horiek hein baten bat etor daitezkeen arren, Korporazioaren jarra ez da aldatzen. Izan ere, laguntzari uko egiten diote, eguazten gauean eta ordutik zabaldu den jakinarazpen ofizial bakarraren arabera, planak ez dielako "merkatuko beharrei erantzuten" eta "beharko lirakeen finantza-baliabideek ez dutelako enpresaren etorkizuna bermatzeko balio izango". Korporazioak, hortaz, jarraera horri eutsiko dio gaurko batzarrean.

Erabakiak eta zorra

Europa Press albiste agentziak jakitera eman duenez, Fagor Etxetresnak erlojuaren kontra ibiliko litzateke azken egun hauetan,

Sumina nagusi, manifestazioan

Atsekabe aurpegiak eta sumindura oihuek osatu zuten egueneko manifestazioko irudia. "Inplikazioa" Korporazioari eta "atsekabea" izan zen gehien errepikatutako hitza. Fagorri "bizitza osoa" eskaini ziotela esaten zuten askok eta minik gehien "inork aurpegia erakutsi ez izana" ematen diela esaten zuten manifestazioaren amaieran askok. "Bizitza osoa aurrezkiak galdu ditut", "Oso gaizki egin dute" eta "Aldi berean, penatuta eta amorratuta nago" izan ziren behin eta berriz entzundako esaldiak, guztiak atsekabez esanak.




INAZIO AZKARRAGAUZAR
ARRASATEKO ALKATEA

"Onartezina da guretzat Fagor moduko enpresa bat desagertzea. Itxaropen-deia zabaldu nahi dut, uste dudalako oraindik badagoela gauzak konpontzeko denbora. Mugitu behar direnak Mondragon Taldea, Fagor eta Eusko Jaurlaritzak dira, eskumenak dituelako".



ANDER RODRIGUEZ
GIPIZKOAKO FORU ALDUNDIA

"Amore ez emateko deia egiten diegu Korporazioari eta Eusko Jaurlaritzari. Prest gaude, eragile eta erakundearen artean, denok eseri eta soluzioak bilatzeko. Fagorren krisiak erantzun argia dauka: elkartasun gehiago behar da une honetan".



ESTEBAN ARRIARAN
KONTSEILU SOZIALA

"Hartzekodunen lehiaketan sartzeak lanpostu guztien galera ekarriko du. Hala eta guztiz ere, sistema kooperatiboaren oinarri diren balioei eutsiz, konfiantza dugu enpleguari eutsiko zaiola, birkokatze zein jarduera berrien sorreraren bitartez, irtenbideak ematen".



MIGUEL LOGROÑO
ORDAINDUKO ABOKATUA

"Egoera oso konplikatu da, lehenik, Fagorrek likidaziora ala hitzarmenetara joko ote duen jakin behar delako. Hartzekodunek ikusi beharko dute zein kalifikazio jasotzen duten. Kontsigna oraingoz notifikazioaren zain egotea da eta hortik aurrera erabaki".



kaleetan. Bazkide, langile eta herritarrek bat egin zuten manifestazio oso jendetsuan, *Etorbizunaren alde* esaten zuten pankartaren atzean. Aurreko manifestazioa baino jendetsuagoa izateaz gain, egueneko agerraldia aurrekoa baino beroagoa izan zen. Manifestarien artean mina eta haserrea atzematen zen eta bide alboetatik herritarren elkartasuna jaso zuten. Esteban Arriaranek egin zuen berba Errektore Kontseiluaren izenean, eta elkartasun balioei eutsiz, enplegu guztiak mantentzeko eskatu zuen. Basauritik ere Edesako langileak etorri ziren manifestaziora. Protestekin jarraituko dute Basaurikoek eta bihar goizeko seietatik aurrera, itxialdian egongo dira lantegian. Arrasateko langileek ere bihar, Kontseilu Sozialaren batzarrean, erabakiko dute zer egin. Esperoan daude, bai batzuk zein besteak, eta birkokatzeak zelan bideratuko dituzten da ardur nagusietako bat, Edesakoek uste baitute Arrasateko lantegietakoak lehenetsiko dituztela, Lagun Arotik kobratzen baitute langabezia. Jakin denez, Korporazioak berariaz sortutako Enplegu Bulegoaren eskariz, kooperatibei premiazko informazioa eskatu diete aldi baterako langile eta bazkideei buruzkoa eta 57 urtetik gorako bazkideen errolda bat ere eskatu da, antza.

Ekarpenak kolokan

Enpresa likidatuz gero bazkide-ekarpenak galdutzat ematen dira, ezagun denez, baina borondatezko ekarpenak berreskuratzea ere zail ikusten da. Eskakizun horretan dihardu lanean Ordaindu plataformak. Irailetik dihardute lanean joan den urteko azaroaren 1etik Errektore Kontseiluak ekarpena berreskuratzeo eskaerei erantzuteari uztea erabaki eta gero. Ordaindu plataformaren datuen arabera, 45 milioi daude borondatezko ekarpenetan eta beste 42 milioi bazkide ez-aktibo eta oinordekoei dagozkienak. Ia 1.000 langileri eragiten die ekarpenen gaiak.

Fagor Etxetresnak hartzekodunen lehiaketan sartuta, kobratzekoen zerrendan azkenak ikusten dituzte euren buruak, banketxeek eta erakundeek izango luketeelako lehentasuna. Abokatuekin egin zuten batzar irekia eguenean Kulturaten. Oraingoz, zain egoteko beste gomendiorik ez zieten egin abokatuak kaltetuei, lehiaketa prozesua abiarazitakoan zehaztuko lirakeelako kopuru eta prozesuak.

finantziarioa lortze aldera, lehiakideekin eta inbertsio funtsekin negoziatzen. Asko jota, aste honen amaierarako itxi beharko dituzte tratuak. Xabier Bengoetxeak berak, Fagor Etxetresnetako presidentea, aurreko eguaztenean zehaztu zuen moduan, hamar egunen epean finantziarioz lortu ezean, hartzekodunen lehiaketara joango lirake eta horrekin fase berri bati ekingo zaio. Bengoetxeak berak ohartarazten du, gainera, mugari hori gaindituta, erabaki-ahalmen guztiak ihes egingo liekeela eskuetatik eta tokian tokiko administratzaileek hartuko lituzkete erabakiak, zorren kitapen prozesua antolatzeke. 850 milioi euro inguruko zorra daukate Fagor Etxetresnek, zatirik handienean banketxeekin dutena eta zor sozialak (bazkideekin eta Korporazioko barne-mailegutan) osatua; eta hirugarren bloke baten, erakundeekin dauzkaten zorrek.

Langileen oihuak eta ardura

Negoiazio eta batzarretatik urrun, langileak aurkitzen dira, erabakien zain. Eguaztenean milaka pertsonak etorkizun ilunarengatik ardurara erakutsi zuten Arrasateko

Garagartza, Polonia eta Frantziako lantegiak geratuko lirake planarekin

Korporazioak errentagarriak diren lineei eutsiko lieke, moduren baten

Kooperatibakoez gain, Euskal Herrian 4.000 enpleguri ere eragiten die

Hartzekodunen lehiaketan sartuz, erabaki-ahalmenik gabe geratuko dira

Galera: lehiakortasun eta merkatuena

Ezetzta jaso eta osteko lehen elkarrizketa eman zion eguaztenean Goiena Komunikazio taldeari Xabier Bengoetxeak, Fagor Etxetresnen presidentea. Aurkeztutako planaren bideragarritasunaz ez du zalantzarik Bengoetxeak. Planak zehazten dituen "mugarri batzuk" lortezintzat jotzen dituelako ukatu ei die dirua Korporazioak, presidentearen ustez. Plan bakar bat izan dutela aitortzen du Bengoetxeak, "bere garaian egindakoa", 170 bat milioi horiek behar dituen, eta ez dutela besterik egin, ez dutelako uste besterik eskatu zaienik. Enpresak "behar duen transformazioa" egiteko behar duten kopurua da hori, "lantegiak itxi eta ekoizpena egiteko beste leku batzuetara joateko". Frantziako lantegiak eta bertako zenbait Poloniara eramatea proposatzen da planaren ildo nagusietan, Bengoetxeak azaltzen duenez. Aurreikuspen eza ere leporatu izan zaio kooperatibari, lehenago har zitzaketela, hain zuzen, orain planteatzen diren erabakiak. Xabier Bengoetxeak azaltzen du "zaila" zela duela zortzi urte merkatuak izan duen bilakaera iragartzea eta azken urteetan izan duten baliabide falta ere kokatzen du geldirik egona justifikatzeko arrazoi moduan eta, "beti" saiatu direnez "enpleguari hemen eusten", zailagoak izan direla erabakiak. Lehiakortasuna bai baina, Fagor Etxetresnen arazo nagusia, "azken zazpi urteetan", euren "merkatu nagusien

"Enpleguari beti hemen eusten saiatu garenez, zailagoak izan dira erabakiak"

[Espainia, Frantzia eta Polonia] gainbehera" izan dela nabarmentzen du Bengoetxeak. Finantziarioa lortzeko atzera-kontaktan egun gutxi batzuk besterik ez zaizkie geratzen eta elkarrizketan aitortu duenez, dagoeneko jo dituztenez gain, beste aterik ez dute ikusten. Fagorrek Txinan duen Haier

sozioarekin batera Poloniako lantegiaz arduratzea da aukeretako bat baina bertan behera geratuko litzateke lehiaketan sartzearekin bat, Bengoetxeak argitzen duenez. Fagor Etxetresnak osorik Haier-ek erostea "gaur [eguna] ez dagoen aukera" dela dio Bengoetxeak, nahiz eta "teorikoki" izan daitekeen aukera den. Eszenario posibleak, ordea, soilik planteatze lehiaketan sartzen ez badira, berresten duenez; hortik aurrerako erabakia "eskuetatik kanpo" egongo delako. "Interesa azaldu duten" zenbait lehiakide ere ba omen daude baina denbora oso gutxi dutela dio beste erabakirik hartzeko.

"Denok gara erantzule"

"Errudunen bila" ez ei dute hasi gura eta "hemengo 2.000 bazkideentzako soluzioa" bilatzeko lana egin behar dela dio Bengoetxeak. "Erantzule denok" direla berresten du Bengoetxeak baina "kanpo-faktoreen eragina" erabakigarria izan dela zehaztuz. "Kooperatibaren elkartasun mekanismoak gaur inoiz baino gehiago" behar direla azpimarratzen du.



Bengoetxea, Goienako Eneko Azkaraterekin, eguenean. | GOIENA

bai euskarari
ziurtagiriaren elkartea

Bai Euskarari Ziurtagiria
alor sozioekonomikoaren euskalduntzean eragiten

urrats biziak
www.baieuskarari.org

laguntzailea: **goiena**
KOMUNIKAZIO TALDEA

Facebook: /baieuskarariziurtagiria
Twitter: @baieuskarari
Website: www.baisarean.org



Erritu pagano eta erlijiosoak nahastu ziren garaitik hona

80 lagunek parte hartu dute Angiozarren egin dituzten heriotzari buruzko bisita gidatuetan

OIHANA ELORTZA | BERGARA

Heriotzaren errituei eta lehengo ohitura eta bizimoduei buruzko bisita gidatuak egin dituzte egubakoitzean eta zapatuan Angiozarren. Euskarazko eta gaztelezarzko taldeetan, bietan batu zen jendea, eta gustura gelditu ziren han entzun, ikusi eta ikasitakoarekin.

Gotzaitegiaren aurka

Angiozarko Elizamendiko ermitatik hasi eta San Migel parrokiaraino, bi ordu inguruko bisita gidatuak izan dira, Jon Arroita Bergarako turismo bulegoko gidariaren eskutik. Ibilaldirako arropa eroso soinean, arretaz

entzun zituzten Arroitarren azalpenak bisitetara joandako lagunek. "Heriotzaren errituei buruz, ohitura paganoak eta erlijiosoak nola nahasten joan ziren azaldu digu, adibidez. Paganoek trikuharrietan lehenengo eta nork bere etxean gero lurperatzen zituzten senideak. Kristauen etorrerarekin, eliza barruetan lurperatzen hasi ziren eta gorpua etxetik elizaraino eramateko egin behar zuten bideari, esaterako, anda-bidea deitzen zioten", dio egubakoitze-ko bisitan parte hartu zuen elgetar batek. Jose Anjel Mikeo Angiozarko auzo-alkateak azaldu zuen moduan, Elgetako artxiboan topatu dute dokumentu bat 1500



Jon Arroita azalpenak ematen Domu Santu egunean egindako bisita gidatuan. | JOSETXO ARANTZABAL

urtekoa. Elgetako orduko prokuradore Martin de Alzuaranek aurkeztutako erreklamazio bat da, gotzaindegiak kobratu egin gura zuelako eliza barruan gorpuak lurperatzearen.

Argizaiolak

Elizan eta Saloian banatuta dagoen erakusketa ere ikusi zuten bisitariak, hala nola Peña Santiagoren liburutik ateratako irudiak oinarri hartuta Otxandioko Alberto Barrondok egindako argizaiolen 35 erreplika.

JON ARROITA
GIDARIA



"Euskal hiletaren erritu asko galduta daude eta ohitura horiek preziatzea eta jakin araztea gura izan dugu bisita hauekin. Angiozarren mantendu dira ohituretako asko eta hori erakutsi nahi izan dugu".

JOSE ANJEL MIKEO
AUZO-ALKATEA



"Angiozarren oraindik oinez eramaten da gorpua elizara, nahiz eta lehen baino motzagoa den egungo bidea. Erritu horiekin batera, hemengo baserrien sorrera eta bilakaera ere ikusi ditugu".

Lorez bete dira hilerriak aurten ere

Ohitura jarraituz, aurten ere debagoiendar ugari joan da Domu Santu egunean, egubakoitzean, nork bere senide eta lagunak lurperatuta dituen hilerriara. Hilobi gainetan loreak jarri zituzten askok eta askok, eta joandakoak izan zituzten hizpide kanposantuetan topo egindako bizilagunek.

Landareak, krisantemoak eta lore ezberdinez egindako zentroak ez ezik, kandelak ere eraman ditu batek baino gehiagok hilerriara.



Oñatiko kanposantua. | JULEN IRIORDO



Bergarako kanposantua. | JOSETXO ARANTZABAL

40 negozio 'Enpresarean 2013'n



Polo Garaia berrikuntza gunean egin zuten saio azkarra. | BAI EUSKARARI

O.E. | ARRASATE

Euskaraz lan egiten duten eta euren produktuak edo zerbitzuak euskaraz eskaintzen dituzten 40 enpresa baino gehiagoko ordezkariak elkartu ziren egunean Arrasateko Polo Garaia berrikuntza gunean egin zuten *Enpresarean 2013* hitzordu azkarren saioan. Enpresa ezberdinetako kideak elkarrekin mintzatu ziren 10 minutuz, bakoitzak dituen beharrei eta eskaintzei buruz.

Bai Euskarari ziurtagiriaren elkarteak antolatutako saioa izan zen, helburu honekin: enpresa proiektu berriak sortzea, euskaratik eta euskaraz.

Saioa antolatu duen elkarte-ko ordezkariak, Orkestra Lehiakortasunerako Euskal Institutuko kideak eta Aldundiko Euskara zuzendariak hitz egin zuten aurkezpen ekitaldian.

Kantorengana egitekoak ziren martxa bertan behera gelditu da

O.E. | ARRASATE

Bergarako preso eta iheslarien eskubideen aldeko mugimenduak jakinarazi du bertan behera utzi dutela Luis Mari Azkargorta *Kanto* bisitatzeako azaroaren 17an Zuerako espetxera egitekoak ziren martxa. Europako Giza Eskubideen Sala Gorenak 107/2006 doktrinaren ganean eman zuen ebazpena ikusirik, Kantori "elkartasuna eta babesa" adieraztea ziren martxaren helburuak, baina "ebazpenak Espainiako hainbat sektoretan sortu duen haserre ikusirik eta horrek Kantoren espetxealdian eragin dezakeela -eta arduraturik", martxa ber-

tan behera uztea erabaki dute. Edozein kasutan, Kanto "laster etxean izateko itxaropena" dutela adierazi dute, eta Estrasburgoko Giza Eskubideen Epaitegiak 197/2006 doktrinaren inguruan hartutako erabakia "egindako lanaren ondorio" dela gaineratu.

Arrasateko Txus Goikoetxea

Bestalde, Txus Goikoetxea gose greban dago Sevilla II espetxean. "Egunero pairatzen ditugu esku-bide urraketak eta gehiegikeriak", adierazi du Goikoetxeak: "Borrokaldira honen helburua bizitza duina eta osasuna zain-tzeko bermea eskuratzea da".



Eva Gartzia psikologo eta psikoterapeuta. | GOIENA

Depresioa eta antsietatea mintzagai Eva Gartzia-aren eskutik

Desoreka emozionalak ildotzat hartuz ikastaroa emango du Oñatin

ANE ETXEBERRIA | OÑATI

Depresio eta antsietateak pertsona nagusiengan eragiten duen desoreka hizpide izango da datorren astean ospatuko den ikastaroan. Eva Gartzia-aren eskutik hainbat arazo emozional aztertuko dira. Ikastaroa Oñatin izango da azaroaren 11tik aurrera eta 20 pertsona izango dira gehienez bertan. Aldundiak diruz lagunduko du eta beraz, doan izango da ikastaroa.

Eva Gartzia-aren hitzetan, ikastaro honen ideia da "arazo emo-

zionalak sakontasunean ezagutzea" izan ere, askotan jendeak ez daki arazo desberdinak bereizten. Guztia depresio hitzarekin definitzen dela dio eta "agian beste arazo bat izan dezakete pertsonak". Arazoak bereiztu behar dira eta arazo bakoitzak dituen sintomak ezagutu. Ikastaro honekin hori ezagutzera eman nahi du Eva Gartzia psikologoak eta bien bitartean arazo horiei aurre egiteko irtenbideak ematen saiatuko da, beti ere enpa-

tia eta errespetua erakutsiz.

Pertsona nagusiek arazo emozionalak izaten dituzte, baina baita hurrek ere, "ez dago salbuespeneko adin tarterik, edonork izan ditzake arazo emozionalak". Normalean, arazo gehienak antsietatea eta depresioan oinarritzen dira, Evaren hitzetan, nagusi batzuek "mentalitate psikotikoa dute eta haluzinazioak izaten dituzte, baina gizartearen tendentzia geroz eta neurotikoa izatea da" azaldu du. Hala, pro-

fesionalek, psikologo eta psikiatrek, pertsonak tratatzea beharrezkoa da askotan, baina "gure hitzaldietan hainbat erreminta ematen saiatzen gara gaixo dagoen pertsona horren aurrean zela jokatu jakitzeko", Gartzia-aren ustez, enpatia, errespetua, onarpena... oso beharrezkoak dira, nahiz eta tendentzia "pertsonak zuzentzean" dagoen, hau da, "pertsona bakoitzak bere irtenbidea topatzen saiatu behar da eta bere ondoan daudenek lagundu egin behar dute eta ez zuzentze lanetan aritu" gaineratu du.

Depresioa eta antsietatea

Ohikoa da adindunek antsietatea, urduritasuna, lasaitasunik eza, depresioa, apatia edo ezertarako gogorik eza sufritzea. Gainera, horietako batzuen eraginez, gerta daiteke adindunek gehiegikeriaz kontsumitzea alkohola edo zenbait medikazio. Egoera are gehiago zailtzen da dementziaren bat baldin badu gaixoak. Antsietatea eta depresioa emakumeengan gertatzen dira batez ere.

Horrelako egoerak bizi izateak "izugarritzko mina sortzen du, baina nik irmoki sinesten dut ikasteko eta hezteko balio diguten aukerak direla; esperantza horrekin egin behar diegu aurre. Arrazoi horregatik, sufrimenduarekiko errespetutik landu behar ditugu zailtasun emozionalak. Uste sendoa izan behar dugu: minaren kontzientzia dugunean eta maitasunez tratatzen dugunean aldaketa bat gertatzen da; transformazio bat" dio.

Garaiak asko aldatu dira

Garaiak asko aldatu dira eta lehen tabua zena, orain ez da hainbeste, hau da, lehen psikologoarengana joatea gai tabua zen eta orain tendentzia gehiago dago,

"baina oraindik kaleko jendeak ez daki gai jakin batzuk nola tratatu, oraindik ere bide luzea dugu egiteko". Ikastaroan oinarri batzuk emango dira antsietatea eta depresioaren aurrean nola jokatu behar den jakitzeko. Hau guztiaz gain, gaineratu du, "familia eta lagunek asko eragin dezakete pertsonengan, agian gogorra da esan behar dudana, baina askotan familiak gaixoa gehiago gaixotu dezake", beraz, errespetua, mimoak eta kritika eza beharrezkoak izango dira.

Instituzioen lana

Instituzioek laguntza asko ematen dabiltzala dio Evak, "gauza asko dabilta egiten: egoitza sozialak sortzen, ekintza sozialak babesten eta sentsibilizazioa lantzen... Nik neuk sentsibilizazio eta formakuntza kanpainak bultzatzen jarraituko nuke: profesionalendako, familiakoendako eta edadetuendako ere".

Esperientziaduna

Urte asko darama Evak ikastaroak ematen, bera psikologo, psikoterapeuta eta familia hezitzailea da. Oñatin izango den ikastaroa, iaz Legazpin eta Bergaran eman zituen arrakasta handiz.

ESANAK

"Enpatiak, errespetua eta kritikatu gabe entzuteak, berebiziko garrantzia dute gaixoarentzat"

EVA GARTZIA | PSIKOLOGOA

Babak prestatzen ikasteko sukaldaritza tailerra eguaztenean

lazko arrakasta ikusita, aurten ere askotariko tailerrak antolatu dituzte

A.E | ARRASATE

Debagoieneko XV. Jardunaldi Gastronomikoen barruan, hainbat ekintza antolatu dira, besteak beste sukaldaritza tailerra. Garaiko sukaldaritzaz gozatzeko jardunaldi gastronomikoak izango dira eta eguazteneko saioan, babarrunak eta pintxoak nola prestatu erakutsiko dute bailarako hainbat sukaldarik.

Parte hartzea nahi duen orok, izena eman beharko du Mankomunitateko egoitzara joz edo 943 796463 zenbakira deituz. Tailerren prezioa 2 eurotako da eta 18:00tatik aurrera ospatuko da Mankomunitateko egoitzan (Nafarroa etorbidea, 23).

Tailerren arrakasta

2009an hasi ziren ekintzok prestatzen eta urtero berritzen eta ekintza desberdinak antolatzen



Mankomunitateko arduradunak eta sukaldariak. | GOIENA

saiazten direla adierazi du Ana Heriz, turismo arduradunak. Aurten ere, tailerrak antolatu dituzte, Gabino Yartzak esan duenez, "tailerrek arrakasta handia

izaten dute, jende ugari etortzen da eta galde asko egiten dizkigute". Aurtengoan beraz, aurrera jarraitzea pentsatu dute, herritarrek ikasteko gogoia baitute.

Zaitegiren inguruko liburua aurkeztuko dute eguenean

Jokin Zaitegik euskal curriculumean egindako ekarpenak liburu batean islatu dituzte

A.E | ARRASATE

Eguen honetan, azaroak 7, arratsaldeko 19:00tatik aurrera, *Jokin Zaitegiren ekarpenak euskal curriculumean* liburua aurkeztuko dute Kultur Aten. Ekitaldi hau Arrasateko Kultura Sailak proposatu eta burutzen du, eta Jon Diaz Egurbide, liburuaren egilea, eta Paulo Iztueta, idazle eta Utriusque Vasconiae argitaletxeko zuzendariak hitz egingo dute.

Idazlearen curriculum

Jon Diaz Egurbide, Legorretan jaioa da 1973an, irakaslea izan da Euskal Herriko Unibertsitatean Hezkuntzaren Teoria eta Historia Sailean. Saio hau 2012ko otsailean aurkeztu zuen *Jokin Zaitegiren ekarpenak euskal curriculumean: eginak eta*

asmoak tesiaren muina da. Saio honetan kronologikoki Zaitegiren bizitza urratsez urrats jarraitzen da eta bere obra sakon aztertzen du, batik bat, haren obrak hezkuntzarekin duen harremana. Liburu honetan Paulo Iztueta ere leku garrantzitsua betetzen du, tesi honetan Jonen tutorea izan delako eta gainera Utriusque Vasconiae argitaletxearen zuzendarietako bat delako.

Paulo Iztueta, Berastegin jaioa da 1941ean. UZEIn lanean jardun zen Politikako eta Filosofiako hiztegiak egiten 1977tik 1987ra arte. Bera ere irakaslea izan da EHUKo Hezkuntzaren Teoria eta Historia sailean. Ibilbide luzea egin du Hezkuntzaren eta Soziologiaren sailetan lanean.

Nerea Kortajarena | Emaus Fundazioko ordezkaria

"Arrasateko Ekocenterra erreferente bat izango da"

Sindesperdicio markaz eta Ekocenterraz hitz egin digu Emauseko kideak

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Sindesperdicio markarendako gizarte-finantzazio kanpaina egin du Emaus Fundazioak. Emauseko Nerea Kortajarenaren hitzetan, asmoa da Sindesperdicio "bul-tzada bat ematea eta komunikazio kanpaina bat abian jartzea".

Sindesperdicio markari beste buel-ta bat eman nahi diozue... Ze hel-buru duzue?

Gogoeta prozesu bat egon da, eta lan handia egin da Sindesperdicio markako produktuen kalitatea hobetzeko: bukaeretan-eta, herren genbiltzan; patroien digitalizazioak produktua asko hobetu dezake eta produktuak sortzea erraztu dezake; diseinuan lan handia egin da; komunikazio sareek-eta eskaintzen dituzten aukerak baliatu nahi ditugu eta webgune berria jarri nahi dugu martxan, erabat diseinu desberdinarekin... Besteak beste, produktu baten modelo asko ikusi eta beretako diseinatutako produktu bat erosteko aukera dauka erosleak.

Sindesperdicioaren betiko produktuak egiten jarraituko duzue?

Bai, horixe: poltsak, karpetak, erosketarako gurditxoak... horiek egiten jarraitzen dugu. Baina diseinua-eta hobetu egingo dugu: adibidez, ezkontzetara-eta erooten diren poltsak eta kirola egiteko poltsak egingo ditugu; tamainak ere aldatu dira; eta bezeroek aipatzen zizkiguten beharrek in saiatu gara diseinuak hobetzen. Baina gure produktuak egiten jarraitzen dugu, beste kalitate eta diseinu batekin.

Produktu horiek egiteko tailerra Arrasaten duzue eta lau urte darabazabalik. Zer moduz?



Nerea Kortajarena. | LEIRE KORTABARRIA

"Lan handia egin da Sindesperdicio produktuak hobetzeko"

Aurrera egin badu, Udalak izan duen inplikazioarengatik ere izan da. Oso gustura gaude eta webgune berriak erakutsiko du produktu politak direla, eko-chic modan sartzen garela eta produktu horiek edozeinek erabil ditzakeela. Bestalde, tailer horietan lan egiten dutenek lan-merkatuan sartzeko arazoak dituztenez, moda solidarioa da eta, ingurumenarekiko duen tratamenduarengatik, produktu jasangarria da. Beraz, erakusten du beste eredu ekonomiko bat posible dela.

Bestalde, Arrasaten Gipuzkoako hirugarren Ekocenterra egiteko asmoa duzue. Nola dago hori?

Proiektu estrategikoa da, ilusio handia egiten diguna, eta hemengo beste zenbait eragilerekin batera egia bihurtzera doan proiektu bat; horregatik, herrian txertatuta egongo da. Uste dugu datorren urteko lehenengo hiruhilekoan lehenengo fasea martxan jarriko dela eta ateak irekiko dituela.

Eraikina bera ere nahiko berezia izango da. Berau eraberritzeko ideia-lehiaketa egin zen eta proposamena oso polita izango da. Jendeari asko gustatuko zaiola uste dut nik, eta ez dela izango salerosketarako leku bat bakarrik, baizik eta beste ekonomia mota batzuen inguruan eztabaidatzeko leku bat: hondakinak, gizarteratzea... gai horietaz eztabaidatzeko erreferente bat izango dela uste dut.

Euskadiko Lanbide Heziketa ereduak Europaren interesa piztu du

Euskadiko ereduak enpresa txiki eta ertainei berrikuntza zerbitzua eskaintzen die

L.K. | ARRASATE

Euskadiko Lanbide Heziketak Europaren atentzioa eman du. Jorge Arevalok, Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketako sailburuordeak joan den astean medioei azaldu zenez, Euskadik eta Bruselak elkarlanean dihardute eta orain lau aste Bruselara joan zen euskal ordezkari bat. Europako Batasuneko Hezkuntza Zuzendaritzarekin eta Industria eta Enpresa Zuzendaritzarekin batzartu ziren. Zehazki, Euskadiren Lanbide Heziketak formazioa eta berrikuntza aplikatuaren bidez enpresa txiki eta ertainei zerbitzua emateko nola erabiltzen duen azaldu zuten Bruselan. Berrikuntza ekintzak egiteko behar



Jorge Arevalo. | EUSKO JAURLARITZA

adina diru ez duten enpresek jasotzen dute zerbitzu hori.

Arevalok azpimarratu zuenez, euskal LHK badaroa bi urte "formazio bikoitza, berrikuntzara bideratuta" ematen.

Natrak 1,61 milioiko emaitza negatiboa izan du irail bukaeran

L.K. | OÑATI

Natra multinazionalaren sozietate nagusiak 1,61 milioi euroko emaitza negatiboekin itxi zuen urteko hirugarren hiruhilekoa. Horrela jakinarazi zion Espainiako Balio-Merkatuaren Batzordeari. Iazko epe berean, 1,92 milioiko irabaziak zituen Mikel Beitia oñatiarrak zuzendutako enpresak.

Zerga aurretiko 2,72 milioi euroko irabaziak izan arren, Espainiatik kanpo dituen filialen zergak ordaintzeko 2,3 milioi ipini behar izan ditu.

Urtarril eta irail artean, 263,2 milioi euroko negozio-zi-

fra izan du Natrak, iaz baino % 1,5 gehiago.

Kakaoa garestitu egin da

Kakao eta txokolate ekoizpenak –Oñatiko lantegien egiten dena, besteak beste– 237,94 milioiko salmentak izan ditu irail bukaeran, iaz baino % 0,9 gehiago. EBITDA, aldiz, % 10,5 txikiagoa izan da (16,52 milioi). Enpresak azaldu duenez, egoera "konplexua" bizi du kakaoaren negozioak, izan ere, sektoreko enpresa handien eskuetan kontzentratzen dabil kakaoaren negozioa, eta horrek lehengaiaren garestitzea eragin du.

Enplegua, gizartea, osasuna eta hezkuntza, aurrekontuetako ardatz

Eusko Jaurlaritzak 10.215 milioiko aurrekontu proposamena aurkeztu du

L.K. | ARRASATE

10.215 milioi euro izango ditu Eusko Jaurlaritzak datorren urtean, aurten baino % 9,6 gehiago, eta gehien haziko den saila Enplegua eta Gizarte Politika izango da. Horrela dago jasota aurrekontuen aurre-proiektuan. Joan den martitzenean Ogasun eta Finantza sailburu Ricardo Gatzagaetxeberriak eta Eusko Jaurlaritzako bozeramaile Josu Erkorekak aurkeztu zuten berau medioen aurrean.

Inbertsio handienak enpleguan eta gizarte politiketan, osasunean eta hezkuntzan izango dira. Edozein modutan, arduradunek ohartarazi zuten urte "gogorra eta zaila" izango dela, batez ere enplegu aldetik; gaineratu zuten, "atzeralditik irteten hasiko" da euskal ekonomia, baina horrek ez du esan nahi "krisia bukatuko" denik. Gatzagaetxeberriaren esanetan, Eusko Jaurlaritzak bi helburu handi izango ditu 2014an: eredu sozioekonomikoari eustea eta berau

hobetzea, eta enplegua sortzea. Euskal ekonomia oso ahul haziko dela esan zuen: % 0,9.

1.000 milioi enplegurako

Enplegu garbirik sortuko ez dela uste du Eusko Jaurlaritzak; horregatik, enplegua berpizteko inbertsio handia egin nahi dute, 1.000 milioi eurokoa, hain zuzen ere. Enplegu eta Gizarte Politika sailaren aurrekontua da gehien haziko dena: % 19,7. Denetara, 952 milioiko dotazioa izango du. Diru

-poltsa nagusiak bi izango dira: batetik, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta Etxebizitzarako Prestazio Osagarria ordaintzeko 384,5 milioi izango ditu; eta Gizarte Segurantzarako bonifikazioetarako, 119,9 milioi. Gizarte Larrialdiko Laguntzak ordaintzeko partida % 18,5 handiagoa izango da.

Beketarako, 80 milioi

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren aurrekontuak 130,5 milioi euro gehiago izango ditu, aurten baino % 5 gehiago. Beketarako 80,3 milioi euro ipiniko ditu Eusko Jaurlaritzak.

Osasun Sailaren aurrekontua % 2,7 handituko da, batez ere, Osakidetzaarekiko kontratu programaren aurrekontua dela-eta; horrek sailaren aurrekontuaren hiru laurdenak baino gehixeago hartuko du.

Ingurumen eta Lurralde Politika da gehien haziko den sail-tako beste bat: % 9,5, hain zuzen. Eusko Trenbideak eta Eusko Trenbide Sareak erakunde finantzazio-beharrek gora egingo dute, batez ere Gipuzkoan eta Bizkaian.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak aurten baino % 4,9 diru gehiago izango du.

Amortizazio handiagoak

Ricardo Gatzagaetxeberriak esan duenez, aurrekontua 900 milioi handiagoa izan arren, amortizazioak askoz handiagoak izango dira: aurten 200 milioi baino gutxiagokoak ziren, eta datorren urtean, 538 milioikoak izango dira. Beraz, "benetako hazkundera" 561 milioi eurokoa dela esan zuen.



Urgaineko eta Txantxiku Ikastolako LHko laugarren mailako ikasleek mahatsa jaso eta Victor Leibar enologoaren azalpenak jaso zituzten Upaingoan. | O. ELORTZA

Batu dute aurtengo mahats eta sagar uzta Debagoianean

Atzeratu egin da bilketa eta ez dute askorik jaso, baina udazkeneko azken beroek produktua hobetu dute

IRATI GOITIA | ARRASATE

Eguraldiak baldintzatzen du lurra ematen diguna. Eta, horren ondorioz, zerura begira izaten dira sagardo eta txakolin egileak, besteak beste. Aurten, kezkatuta egon dira. Izan ere, ekain inguruan eguzki izpi bila altxatzen zuten burua, baina euri tantak erortzen zitzaizkien aurpegira. Zeruak baldintzatuta, berandu etorri da uzta eta oraintxe batu dituzte sagarrak eta mahatsa.

Uzta ez da oparoa izan

"Aurtengoa urte zaila izan da", esan digu Oñatiko Joxe Mari Artzelus Upaingoak. "Udaberri oso txarra egin zuen: euri asko eta hotza izan genuen. Mahastia justu loretan zegoela oso eguraldi txarra egin zuen. Hala, aurtengoa urte konplikatu izan da

eta mahats gutxiago izan dugu. Hektareako 8.000 kilo inguruan ibiltzen gara. Aurten, baina, %70 gutxiago jaso dugu". Arrasaten dagoen Artazubiagan ere gutxi jaso dute. "Aurten, iazkoaz alderatuta, erdia jaso dugu. San Juan inguruan egin zuen eguraldi txarrekin asko galdu zen".

Kanpotik ekarri behar

"Loraldian lore pila bat irten ziren, baina gero izotza eta euri asko egin zuen. Horren ondorioz, ez dugu gure sagarrekin nahikoa izan eta kanpotik ekarri behar izan dugu. Arabatik eta Bizkaitik", dio Iturrieta sagardotegiko Juanjo Peciña. Gutxi jaso du baita Juan Antonio Aretxagak ere: "Iaz baino hiru bider gutxiago batu dugu (1.5000 kilo sagar iaz; 300 kilo inguru aurten)".



Juanjo Peciña martitzenean batutako azken sagarrekin, Iturrietan. | IRATI GOITIA

Gutxi, baina kalitate onekoa

Kantitate aldetik ez da uzta ona izan, baina kalitate aldetik bai. "Trailean eta urrian eguraldi ona egin du: eguraldi sanoa eta hego haizea. Beraz, gelditu den mahatsa egoera onean heldu da: azukre aldetik ondo eta garratz puntutik ere ondo. Oreatua irten da. Beraz, gutxi, baina kalitate onekoa", esan digu Etxagibeak. Bat dator Artzelus: "Azkeneko beroek on egin diote mahatsari eta kalitate oneko txakolina izango dela uste dut. Mostoa bera ere oso ona dago".

Peciña esan digu goiz dela nolako sagardoa irtengo den esateko. "Hartziduran izango duen bilakaera ikusi beharko dugu, baina sagarrak oso sano etorri dira. Eta sagar onekin, posible da sagardo ona egitea", gaineratu du. Bestalde, Aretxagak esan digu zapore oneko sagardoa lortzeko garrantzitsua dela hainbat sagar mota nahastea, eta zapore ezberdinetakoak: dultzea, garraza eta mikatza.

Kupelei begira

Zerura begira izatetik kupelei begira egotera pasa behar da orain. Mahastietan batutakoa upategira eraman dute dagoeneko. Bertan, lehenengo, mahatsa prentsarik pasatu eta gero biltegi handietan sartzen da. "Hartzidura kontrolatua egiten da tenperatura hotzarekin", dio Artzelusek. Victor Leibar enologoaren laguntza izaten dute Upaingoan. "Gure ezaugarrietako bat elaborazioa da. Guk ez dugu botiletan sartzen ekain bukaera arte. Upel-tegi gehienek abendu erdialdean edo bukaeran sartzen dute txakolina botiletan, baina gurea zortzi hilabetez izaten da biltegi-tan. Ekain bukaera aldera sartzen da botiletan", azaldu digu. Azkartasunaren kaltetean, kalitatearen aldeko apustua egiten dute bai Upaingoan, eta baita Otxia txakolina ekoizten duen Etxagibeak ere. "Ez naiz prozesua bizkortzearen aldekoa, txakolinari bere denbora utzi behar zaio. Ez naiz prozesu industrialak erabiltzearen aldekoa". Getariako upel-tegi batera eramaten dute euren mahatsa eta han egiten dute prozesu guztia.

Beraz, txakolina dastatzeko itxaron egin beharko dugu, eta baita txotx egiteko ere. "Urtarril hasierarako sagardoa dasdatzeko prest izango gara. Botiletan, berriz, apiriletik aurrera sartuko dugu. Orain, ia egunero-egunero probak egin eta bilakaera arretaz jarraitu behar dugu", dio Peciña.

Ea, bada, urte konplikatu honen ostean, primerako txakolina eta sagardoa ateratzen zaien.

ESANAK

"Udazkeneko giroak on egin dio mahatsari eta oreatua irten da"

FELIX ETXAGIBEL | TXAKOLIN EKOIZLEA

"Urtarril hasierarako dastatzeko moduan egongo da sagardoa"

JUANJO PECIÑA | SAGARDO EKOIZLEA

DATUA

20.000

SAGAR KILO

Iturrieta sagardotegikoek Arabatik eta Bizkaitik ekarri behar izan dituzte sagarrak; izan ere, ez dute nahikoa izan eurenekin.

Naiara Mimentza | Aita Menniko neuropsikologoa

"Iktusa gaixotasun larria da; sintomak izanez gero, lehenbailehen jo behar da larrialdietara"

- ▶ Aita Mennik hainbat ekintza egin zituen Iktusaren Nazioarteko Egunean, urriaren 29an
- ▶ Ohitura onuragarriak izanez, iktusa jasateko hainbat arrisku faktore ekidin ditzakegu

IRATI GOITIA | ARRASATE

Urriaren 29a Iktusaren Nazioarteko Eguna izan zen. Naiara Mimentza Aita Menniko neuropsikologoa eman dizkigu gaixotasunaren gaineko xehetasunak. **Zer da iktusa edo zein ondorio ditu gaixoarengan?**

Iktusa gaixotasun larria dela esan behar da, lehenik eta behin. Garuneko odol fluxua mozten denean gertatzen da. Bi mota daude: batetik, iktus iskemikoa (tronbosia edo enbolia izaten da, eta kasu honetan odol fluxua mozten da); eta bestetik, iktus hemorragikoa (arteria puskatzen denean). Bigarren horren ondorioak hainbat arlotan gertatzen dira. Batetik, arlo fisikoan, esaterako, koordinazio falta edo desoreka jasan ditzakete gaixoek. Gure paziente asko ezin dira eserita edo zutik egon, adibidez. Bestetik, ulermenean ere zailtasunak agertzen dira hitz egiterakoan edo beste pertsona bati ulertzeko orduan. Ondorioak jasan ditzake baita gure ikusmenak ere: ikusmen eremua murriztu daiteke edo ikusmen bikoitza sortu. Kognitiboki ere azaltzen dira zailtasunak. Adibidez, paziente askok orientaziorik eza, ze datatan dauden ez jakitea, memoria falta edo erabakiak hartzeko gaitasuna galtzen dute. Beste batzuek esfinterraren kontrola galdu egiten dute eta dutxatzeko eta janzteko laguntza behar izaten dute. Ondorioz, 24 orduko laguntza behar izaten dute. Lehen fasean, oso menpekotasun handia izaten dute.

Zerk eragin dezake iktusa?

Arrisku faktoreak daude eta bi motatan bereizten dira. Batetik, arrisku faktoreak izan daitezke: adina, sexua eta arraza. Badakigu 60 urtetik aurrera iktusa jasateko aukerak asko handitzen direla, gizonezkoek gehiagotan pairatzen dutela eta arraza beltzetan zurieta baino gehiago gertatzen dela. Horiek ezin dira aldatu, baina gero badira kontrola ditzakegun beste arrisku faktore batzuk: hipertentsioa, loditasuna, diabetesa, kolesterola eta tabakoa.

Bihotzekoa bezala, bat-bateko gaixotasuna da?

Bai, aurretiaz ez da sintomarik nabaritzen, bat-batekoa da. Beraz, hasieran izaten dugun erreazio oso-oso garrantzitsua da. Normalean, pertsonak igartzen duena izango da ikusmena galtzen duela, gorputzeko atalen baten sentikortasuna edo mugikortasuna galtzen duela edo hitz egiteko orduan zailtasuna izango duela,



Naiara Mimentza, Aita Menniko neuropsikologoa. | IRATI GOITIA

adibidez. Norbaitek sintomahoriek baditu, lehenbailehen jo behar du larrialdietara.

Garrantzitsua da, beraz, ahalik eta azkarren artatzea?

Bai, oso garrantzitsua da. Azken hamar urteotan tratamendu berria erabiltzen gabiltza: tronbolisia. Hori erabiltzeko, baina, lehenen-

"Ondorio fisiko eta kognitiboak jasaten dituzte gaixoek, besteak beste"

"Tentsioa, diabetesa, loditasuna, tabakoa eta kolesterola dira eragileetako batzuk"

go hiru-sei orduetan sartu behar du pazienteak ospitalean.

Lehen orduak garrantzitsuak izateaz gain, errehabilitazioak ere berebiziko garrantzia du, ezta?

Lehenengo fasean, egonkortasuna lortzea da helburua. Gero errehabilitazioko medikuak aztertzen du kasu bakoitza. Tratamendu ezberdinak daude pertsonak dituen sintomen arabera. Gure gaixoek orokorrean gorputz erdia ezin izaten dute mugitu. Kasu horietan fisioterapia oso garrantzitsua da. Horrekin lor daitekeena da pertsona mugimenduak egiten hastea poliki-poliki: eskua mugitzen hastea, eserita mantentzea, zutik mantentzea, bi-hiru pauso ematea, eta, azkenik, oinez hastea. Beraz, gurgildun aulki baten egotetik oinez ibiltzera pasa gaitzake. Hori fisioterapia tratamendurekin lortzen da. Hitz egiteko zailtasunak edo ulermeneko zailtasunak logopeda tratamendua behar dute. Kasu

horretan berriz hitz egiten edo hitzak esaten erakusten da. Hori ez bada lortzen, pazienteak komunikatzeko ze tresna elektronikoa erabil ditzakeen aztertzen da. Beste alde batetik, terapia okupazionala ere badago: gaixoak bere kaxaz janzen (esku bakarra erabil badezake, beso bakarrak

"Lehen artatzeaz gain, errehabilitazio konstantea eta luzea eskatzen du"

"Gaixotasunak dakarrena onartzea zaila izaten da sarri familiarentzako"

janzen ikasi beharko du) edo dutxatzen ikasteko. Bestalde, bere menpekotasunak aldaketa batzuk egin beharra sortzen du etxera bueltatzeko. Beraz, terapia okupazionalan erakusten zaie familiei noraino lagun diezaioketen pazienteari. Eta azkenik, neuropsikologia egongo litzateke memoria eta orientazioa lantzeko, besteak beste. Kontuan izan behar dugu iktusa jasaten duten gaixoek askotan euren jarreraren aldaketak izaten dituztela: asko haserretzen dira edo depresioa izaten dute. Arlo horretan ere neuropsikologia erabili behar da.

Gaixoak berreskura al ditzake bere gaitasunak ehuneko ehunetan?

Normalean, ez da lortzen ehuneko ehunetan berreskuratzea aurreko gaitasunak, baina helburua izaten da ahalik eta gehien berreskuratzea. Lehen fasean ingesatuta egoten dira; gero, tratamendua etortzen da. Badago etxeko tratamendua ere, eta hor familiak egiten duena oso garrantzitsua da. Askotan, gure terapeutak etxetara joaten dira, bai pazienteekin eta baita familiarekin egoera lantzeko. Konstantzia eskatzen duen errehabilitazioa da, eta luze jotzen duena. Gutxienez, sei hilabete.

Familiakoen eta ingurukoek jarraera ere garrantzitsua izango da errehabilitazioan.

Bai, batetik, gaixoari nola lagundu jakin behar dutelako; eta bestetik, familiakoek euren senitatekoaren gaixotasuna nola hartzen edo ulertzen duten ere kontuan hartu behar da. Esan dugu bat-bateko gaixotasuna dela eta askotan gertukoentzako gaixotasunak suposatzen dituen aldaketa guztiak onartzea ez da erreza izaten. Horrenbestez, guk familiakoei ere eskaintzen diegu laguntza arlo horretan.

Jendeak gaixotasuna bera ezagutzen duela esango zenuke?

Nik uste dut gaur egun gizartea hasi dela iktusa zer den entzuten eta gaixotasun larria dela barneratzen. Hala ere, gaixotasunak berak dakartzen ondorioak oraindik ere ez direla ondo ezagutzen esango nuke. Tratamendurako zein motatako errehabilitazio programak dauden ere ez da ezagutzen. Guk askotan nabaritzen dugu familiek ez dutela jakiten nondik nora jo behar duten.

Zein da emango zenukeen gomendio orokorra?

Ohitura onuragarriak izatea. Elikadura zaintzea eta kirola egitea, eta diabetesa, hipertentsioa edo kolesterola badago, ambulatortoriko medikuak kontrolatzea.

Zatoz DOAN Carrefour-era!

DOAN

Autobideko bidesaria

Joan-etorria

Autobidea:

Carrefour Gorbeira etortzeko
AP-1 (Eibar - Etxabari Ibiña)
- Erosketa tiketa aurkeztuz + egun beraren
bidesariko frogagiria.


Zenbatekoa opari-txarteletan ordainduko da.



60 € baino gehiagoko
erosketetarako.
Zure Club Carrefour
txartela aurkeztuta
edo PASS txartelarekin
ordainduta.

Carrefour
GORBEIA

carrefour.es



GORBEIA
www.centrocomercialgorbeia.com

ZABALIK

MARTIN JAUREGIALTZO
http://goiena.net/iritzia/



Mikro Pako

Gure Pako Oñatin dagoen taberna da, txikia, iluna eta neonezko argiekin behin eta berrero berpiztu den espazioa. 80ko hamarkadako *lumpen* estetika gorde duen tokia. Pertsona izango balitz, oraindik, mirari bati esker, bizirik dirauen adineko punk xarmangarri horietako bat izango litzateke. Ez du hain modan jarri diren kafe antzoki edo jazz klubak lilurarik, baina bere kudeatzaileek antolatzen dituzten kontzertuetan kulturaren magia piztu dute.

Zein da sekretua? Gauza txikiak batuketa: mikro formatua, musikaren gertutasuna (fisikoa eta emozionala), publikoarekiko konplizitatea eta antolakuntza eredu, Argentinan krisi garaian *espectáculos a la gorra* izenpean modan jarri zen tankerakoa. Taberna azpiegituraz arduratzen da eta ikuskizuna bukatzen denean, ikusleek borondatea ematen dute.

Londresen etxe partikularretan mikro antzerkiak antzertzen dira, Buenos Airesko liburu denda txikietan mikro ipuinen saio arrakastatsuak burutzen dira, Parisen argitaletxe txikiak biderkatu dira eta idazle gazteek auto-argitaratzeari ekin diote. Valentziako zenbait musika taldek autobusetan jotzen dute, Interneten *crowfundig*-a modan dago eta Euskal Herrian jendarte anitz eta zabal batek, tantaz tanta, gizarte eredu irauli nahi du.

Badirudi krisi garai honek sormena astindu eta mikro kulturaren mugimendua abiarazi duela. Toki eta denbora txikian gauzatzen den saio kulturala, ia aurrekontu gabe eta non hurbiltasunak eta freskotasunak garai bateko handikeria ordezkatzeko duen. Lan prozesu berria, sortzailearen eta kontsumitzailearen arteko amildegia ekiditen duena eta herritar bakoitzari bere kultur nortasunaren eraikitze prozesurako oinarriko baliabideak eskaintzen dizkiona. Kultura ofizialetik haratago doan eredu eta herritarren bihotz, kultur taupadetan oinarritzen dena.

"Musikaren gertutasuna, publikoarekiko konplizitatea..."

USTEAK USTE


JOKIN BEREZIARTUA | jbereziartua@goiena.com

Umiltasunaren aldarrikapena

Bolo-bolo dabil kalean, eta ez da gutxiagorako. Kolore gutxiak gogoetak entzun ditut nik ere. Ez naiz ni inor hausnarketok epaitzeko, are gutxiago Fagor Etxetresnekin izan dudana harreman zuzena horren txikia izan denean. Lau hilabete eskas egin nituen bertan, Eskoriatzan; orduan bizitakoak niretako gordeko ditut. Entzun ditudanei heldu gura diet: batekoak edo besteokak izan, umiltasun falta igarri dut bereziki herritar xumearen hitzetan; denok gara orain ekonomialari, denok aditu. Umiltasuna aldarrikatzera nator, zarata handirik atera gabe lanean fin aritu diren eta protesta egin arren manifestazio-buruetan sekula egongo ez diren horien lana goraiatzera. Animo!

KALE INKESTA

Zer iruditzen zaizkizu Ertzaintzaren azken erabakiak?



JON ASTIGARRAGA
OÑATI

"Garai berriak ikusita, albiste positiboa da terrorismoaren aurkako dibisioa kentzea. Hala iruditzen zait",



ROSA BERGARETXE
ARRASATE

"Albiste ona dela pentsatzen dut, baina benetan babestu ditzatela herritarrak, hori da inportantea".



AITOR ABARRATEGI
ARRASATE

"Lehenago nahiko seguru geundela ikusten bazuten, orain segurtasun gehiago jartzeak ez du zentzurik".



KONTXI GALLASTEGI
ARRASATE

"Teorian ez du ematen erabaki txarra, baina gero praktikan ikusi beharko da eraginkorra den edo ez".

HANDIK ETA HEMENDIK

Amaren ardurak

Luis Aranberri 'Amatiño'
eibar.org/blogak/amatiño/

Nik ez nuke sartuko Karmele Jaioren *Amaren eskuak* hamar euskal nobelarik onenen artean, baina sartuko nuke, ostera, Mireia Gabilondoren *Amaren eskuak* hiru euskal filmik onenen artean.

Honek ez du esan gura, besterik gabe, filma nobela baino hobea denik.

Honek esan nahi du, ezer esan nahi izatekotan, euskal elertia zine ertia baino narroagoa eta landuagoa dela. Hala ere...

Hala ere, niri behintzat, filma nobela baino nabarmen gehiago gustatu zait. [...] iruditzen zait bergararraren filma bete-betekoa dela eta Baleukoren ekoizpena (hirugarrena?), berriz, euskaraz sekula egin den homologagarrietakoa.

Oso oker ez banago *Amaren eskuak* -nobela nahiz filma- fikzioa baino ez da, baina etxean adineko gaixoren bat dutenei edo izan dutenei ez zaie batere arrotz egingo. Izan ere, zaharren zaintzak familiaren baitan eragin ohi duen orekarik eza, etxeko eta kanpoko lan-orduen bateratu

ezina, gizonezkoen eta emakumeen arteko lehentasun berdinezak, betiere alabei nagusitzen zaien erru-sentipena eta abarra... fikziotik ezer gutxi gero ia nahi beste luzatu zitekeen zerrenda horretan. [...]

Aktore-aktorearen lanaren ginetik eta kontakizun guztien azpitik, pelikula osoari euskal filmografian batere arrunta ez den naturaltasuna dario eta, harrigarri bada ere, protagonistek darabiltzaten lau hizkerak (batuaz, bizkaieraz, gaztelaniaz eta ingelesez) normal-normalantza suertatzen dira.

Ikuskizun zeharo gomendagarria edonorentzat baina, aukeran, are gehiago, emakumeentzat, amen ardurez gehienbat jabetzen direnentzat.

Giltza duena

Anjel Lertxundi Esnal
berria.info/blogak/lertxundi/

Apenas mintzatzen garen Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko joan-etorri kulturalak; gure harremanez; han-hemengo inizatiba kulturalen arteko dinamikaren urriaz,

absentzia, mortuaz; muga zenbateraino zen gaidigarri frankismoan, guardia zibilak, kontrolak, konfiskatzeak zeudenean; gure eguneroko praktikak ez ote duen gaurko muga, Europak desegin-edo zuena, ikusezin bihurtu; ikusezintasunak ez ote duen gotortasuna areagotzen.

"Giltza duenak ere nekez zabaltzen ditu maiz (ateak)", dio Aritz Mutiozabal zarautzarrak *Gorren dantzalekua* poema-bilduman. *Zarautzarrak* dela markatu dut, segidan esateko liburua Maiatz argitaletxeak kaleratu diola; aditzera emateko Hegoaldeko batek Iparraldean argitaratzea zenbateraino den harrigarri (Aritzena ez da kasu bakarra, baina bai arrunt bakana); galdetzen hasteko giltza dugunok zergatik dugun hainbeste neke geure etxeko atek zabaldu eta bertan atzera-aurrera ibiltzeko...

Oharrak (post scriptum): Frankismoaren garaian bi muga zeuden, mugara hurbildu baino lehen ere denok ikusten genuen gotorlekua batetik, eta muga ikusezina bestetik. Gotorlekua kenduta ere, muga ikusezina hor segitzen du, agian orduan baino ikusezina, sibilinoago, arriskutsuago...

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiboa Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA

Lehendakaria Aitor Izagire
Zuzendari nagusia Iban Arantxabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailkatu arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Disenaua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko edizio arduraduna Julen Iriando
Maketazioa Inaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Ziertra Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Maria Leturia
Administrazioa Argutzone Gaintzarain, Ane Berebizbar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPER
ARRASATE 20500:
Udalora Lizenziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00


ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Legu Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale
Difusioa: 4.383 ale

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritza
diruz lagundutako
aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

HERRIAK

ARETXABAETA

Herrian euskaraz erlazionatu eta integratzeko hasierako pausoak

- ▶ Loramendik kudeatzen duen udal zerbitzu honek lehen aldiz hiru talde izango ditu
- ▶ Hezkuntza formala izan beharrean, aisiaz baliatzen dira euskararen erabilera sustatzeko

IMANOL GALLEGU | ARETXABAETA

Hizkuntzak gizakiak komunikatzeko zubiak izan ohi dira, baina eta bi hizkuntza ezberdin hitz egiten duten bi pertsona elkartzen direnean zer gertatzen da? Nola komunika gaitezke. Gurean gaztelaniak hedapen kontuak medio, euskara baino indar gehiago dauka, eta askotan, hizkuntza ghettoak edo talde hertsia sortzen dira. Hori ekiditeko Aretxabale-tako Udalak, herriko ikastetxeek eta Loramendi Euskara Elkarteak hizkuntza etorkin gazteentzako laguntza zerbitzua abiarazi zuten duela hamar urte; "Jatorria gutxienezkoa da, euskara jakintzaren arabera etortzen dira gazteak hona", dio Ane Lore Estala Aretxabale-tako Euskara teknikariak.

Orduetik, herritar gazte asko euskarara gerturatzea baino, euskaraz bizitzera animatu dituzte: "Euskara ikasgai bat izateaz gain komunikatzeko, jolasteko, barre egiteko... baliagarria dela erakusten diegu". Hizkuntza etorkinek gaztelania jakin arren, zerbitzuaren bitartez hizkuntzaren erabilera era praktikoa batean jasotzen dute lehen unetik; honela, hizkuntza era naturalago eta errazago batean jasotzen dute.

Behar berriak, eraikin berria

Urteetan Iralabarri plazan egon ostean, aurten hirugarren talde bat sortu dute, eta ordutegi kon-tuengatik, zerbitzua bikoiztu egin



Haur eta dinamizatzaileak gela berriak dauden Durana 11 eraikinaren kanpoan. | IMANOL GALLEGU

behar izan dute. Horregatik, aurrerantzean Durana kaleko 11 zenbakian eskainiko dute erre-fortzu zerbitzu hau: "Bi ikasgela behar genituen eta eraikin honek baliabide gehiago ematen dizki-gu", dio Larraitz Iñurrategi eus-kara zerbitzuko dinamizatzaileak. Udal euskara teknikariak, aldiz abantaila gehiago ikusten ditu: "Eraikin berria erdigunean ego-teaz gain, euskararekin lotutako toki bat ere bada". Urteetan Lora-

mendi eta Aretxagazeta aldizka-riaren egoitza izan ostean, erai-kinari erabilpen berri eta osoago bat emateko proiektua garatzen dabil Udala.

Bertan, herriko euskara elkar-teaz gain, gaztetxoentzako eus-kara errefortzu ekimena dago, udal aldizkariak utzitako lekuan. Errefortzu proiektu hau ez da eraikinak hartuko duen azken zerbitzua izango.

Euskara maila guztietan

Gaztetxoentzako euskara erre-fortzu zerbitzu honetaz gain, udalak plan osoago bat garatu du. 12-16 urte bitarteko gazteek Udal Euskaltegiaren bitartez eus-kara ikasteko aukera dute: "Hemen ere aisia kontuan hartzen den arren, hizkuntzan gehiago sakon-tzen da", dio Estalak.

Horrez gain, helduak ere eus-karara gerturatzeke Aisa ikasta-roak sortu zituen duela urte batzuk, eta aurten, Topagunea-rekin elkarlanean 'Auzoko' pro-grama abiarazi dute herrian. Azken programa honen bitartez hizkuntza etorkin helduei eus-karara lehen harrera ematen zaie. Argi dago, Aretxabaletan inon baino ozenago esaten dute-la "ongi etorri".

LARRAITZ IÑURRATEGI | DINAMIZATZAILEA

"Hasieran gazteekin komunikatzeko mimika erabili behar izaten dugu"

Larraitz Iñurrategi, duela 10 urte hartu zituen dinamizatzaile ardu-rak, eta orduetik, gazte mordoxka bati erakutsi die Aretxabaletan eta egunerokotasunean euskaraz bizitzen. Aurten, hiru taldeekin, ikasle gehiago izango dituen arren, ez zaio energiarik falta.

Ez da eskola formala bat, ezta?

Hasieratik gure asmoa aisia era-biltzea izan zen. Hemen ez da hezkuntza formala ematen, gure helburua, hona datozen gaz-teei egunerokotasunean euskara erabiltzen erakusten diegu.

Gazteek zein iritzi dute?

Hasieran eskola itxura hartu arren, laster ikusten duten ez dela horre-la, eta beste batzuek ludotekara joaten diren bezala hauek hona etortzen dira.

Eta gurasoek?

Gurasoek zerbitzua asko baloratzen dute. Seme-alabei ez ezik noiz edo noiz, guregana jotzen dute ikastetxeetako eskutitz bat itzul-tzeko orduan...



Nola komunikatzen zara gaz-teekin?

Mimika hizkuntza unibertsala da eta hasieran horrela komunikatzen gara. Dena den, lehen unetik eus-kara hutsean hitz egiten diegu.

Ghetto bat sortu beharrean, errefortzurako herri baliabideak erabiltzen dituzue.

Noski, gazteak herrian integratu nahi dugu eta horretarako euska-raz gain, udal baliabideak ere erabiltzen ditugu.



ZEINAB BACAR
6 URTE

"Gustura nator ona, hau ez da eskola ordu bat, hemen ongi pasatzen dugu eta bitartean euskara gehiago ikasten laguntzen dit".



HUSNAIN ASIF
10 URTE

"Hemen hasi nintzenetik asko aurreratu dut. Nire gurasoei "kaixo, egunon, kontuz, bero dago..." bezalako hitzak irakatsi dizkiet".



YANDE SARR
8 URTE

"Ez zait hizkuntza zaila iruditzen, gurasoekin Frantsesez egiten dudanez lagun eta herrikoekin hitz egiteko erabiltzen du euskara".



Bergarako Turboshit taldeak zuzeneko indartsua eskaini zuen. | JOSETXO ARANTZABAL



Skate txapelketan jende gutxiago, baina iaz baino maila altuagoa. | J.A.



Parriladaz gozatu aurretik ez zen inprobisaziorako tartarik falta izan. | J.A.



Scooter patineteen txapelketan jauzi ikusgarriez gozatzeko aukera egon zen. | JOSETXO ARANTZABAL

BERGARA

Laino skate parkeak bergarar ugari erakartzen dituela islatu duen jaia

Scooter eta skate txapelketekin, parriladarekin eta kontzertuekin ospatu zuten laugarren urteurrena

JOKIN BEREZIARTUA | BERGARA

Egun berezia izan zen zapatukoa Bergarako Laino skate parkearen ondako. Laugarren urteurrena ospatzeko asmoz, bezero zein lagunei esker ona adierazteko

egun osoko jaialdia egin zuten: scooter patineteen txapelketa, parrilada, skate txapelketa eta kontzertuak. Lau urteak "azkar" pasatu direla esan zigun Hodei Elexpuru arduradunak: "Inaugu-

razioa atzo izan zela dirudi. Ea gutxienez beste lau urte egiten ditugun. Denetarik antolatu dugu urteotan: kontzertuak, antzerkiak, txapelketak, zinema emanaldiak... Ekintza guztiak doakoak izaten

dira eta beraz, esango nuke herriari ematen diogula zerbait". Zapatuko festaren helburua argi azaldu zigun Elexpuru: "Ospatzea. Beste urtebetez zabalik dugula ospatzea, ez dela gutxi bizi ditu-

gun garaiotarako. Jasotako babesarekin ere eskertu gura dugu".

Goizetik hasi eta gauera arte izan zen zertaz gozatu Amillagako pabiloietan. Scooter txapelketan 16 urtetik beherakoak izan ziren protagonista, eta oso maila altua dutela erakutsi zuten. Gero, 30 bat lagun elkartu ziren terrazan egindako parriladan eta arratsaldean skate txapelketa egin zuten. Iaz baino jende gutxiago, baina maila altuagoarekin.

Turboshit, The Riff Truckers eta Inoren Ero Ni taldeen emanaldiekin borobildu zuten urteurreneko ospakizuna.

BERGARA

Zabalotegiko disko festan 180 gaztetxo elkartu ziren nekatu arte dantzatzeko

J.B. | BERGARA

Zapatu arratsaldeko disko festa hasi baino aurretik 100 gaztetxo inguru Bergarako Zabalotegi aretoko atarian zeuden, jaialdia noiz hasiko zain. Guztira 180 gaztetxok hartu zuten parte, 18:30etik 21:30era denetarik kantuekin nekatu arte dantzatzen. Ukaezina da disko festak Bergarako gaztetxoen artean harrera ezin hobe duela. Zapatukoa *Saturday night* abestiarekin hasi zuten. Gero, neska-mutikoez eskatzen zituzten abestiak jarri zituen

Amaia Txintxurretak bata bestearen atzetik. Euskal kantuen artean ez ziren falta izan, esaterako, En Tol Sarmiento taldearen *Musikaren doinua* edo *Ze esate!* taldearen *Bidez bide*.

Hurrengo festa, pilotalekuan

Hurrengo festa, hilaren 30ekoa, berezia izango da. Euskararen Egunaren harira ekitaldia antolatu dute pilotalekuan eta bertan egongo da Txintxurreta, eskoletan gaztetxoez proposatuko dituzten euskal kantuak jartzeko.



Amaia Txintxurretak ederto girotu zuen Bergarako Zabalotegi aretoa, beste behin. | JOSETXO ARANTZABAL

ESKORIATZA

Oraingoan Eskoriatzan jarri du 'Herrixa Dantzan' Patxi Monterok

Hogeita bost lagun inguru batu ziren atzo iluntzean egin zuten saioan

IRATI GOITIA | ESKORIATZA

Dantzarako toki bilakatu zuten atzo iluntzean Eskoriatzako Mondragon Unibertsitateko kapera. *Herrixa Dantzan*eko ikasturte berriko bigarren saioa egin zuten bertan eta Eskoriatzan egin den lehen.

Hogeita bost lagun inguru batu ziren eta Patxi Monterok gidatu zuen saioa. Heldu zein umeak animatu ziren eta gustura ibili ziren soltean, bikoteka, korruan edo taldean. Egin zituzten dantza guztiak tradizionalak izan ziren, gehienak Euskal Herrikoak, baina Europa Mendebaldeko dantzak ere erakusten ditu Monterok *Herrixa Dantzan*eko saioetan. Lehenik Monterok berak azalpenak eman, eta ostean, musika jarri eta irakasleak azaldutakoa praktikan jartzen zuten kaperan batutakoek. Guztiak ere trebetasun handia erakutsi zuten. "Norberak erabakitzen du noiz dantzatu eta noiz gelditu. Parte-hartzea librea da. Helburua ondo pasatzea da", adierazi zigun Monterok.

Zuzeneko musika

Urriaren 6an ekin zioten aurtengo ikasturteari Elgetako Espaloia Kafe Antzokian zuzeneko musikarekin. Hain zuzen, horixe da Elgetan egiten diren saioen berezitasuna: grabatutako musikaren ordez, zuzenean aritzen da talde bat jotzen. "Udalaren laguntza ekonomikoari esker da hori", esan digu Monterok. Iaz ekin zioten esperientzia horri eta oso gustura dira.

Eskoriatzako hau ikasturteko bigarrena izan da eta hurrengo hitzordua Bergaran izango da abenduaren 1ean, domeka, Zabalotegi aretoan.



Herrixa Dantzan saioa egin zuten atzo iluntzean Eskoriatzan, Mondragon Unibertsitateko kaperan. | JOSETXO ARANTZABAL

PANTXI MONTERO | GIDARIA

"Lotura afektiboak sortzen dira batetik bestera dantzan joaten direnen artean"

Patxi Monterok gidatzen ditu *Herrixa Dantzan* saioak.

Zeintzuk dira saio hauen helburuak?

Dantzaren bitartez, ondo pasatzea da lortu nahi dena. Eta bide batez dantza tradizionala berriz plazara eramatea. Ohitura edo tresna hori berriz balioan jartzea.

Bada berrikuntzarik aurtengo ikasturtean?

Saioen maiztasuna jaitsi dugu. Lehen



hilero-hilero saio bana egiten genuen Eskoriatzan, Bergaran eta Elgetan, baita beste herri batzuetan ere. Orain, hilean behin izango da *Herrixa Dantzan* txandaketa sistema baten bidez. Espero dugu horrek mugimendua ekarriko duela. Badira batetik bestera mugitzen direnak. Nik uste dut hori ere polita dela bailarako harremanetarako eta beste lekuak edo beste jende bat ezagutzeko. Lotura afektiboak sortzen dira. Hilabete bakoitzean herri baten izanda, mugimendu gehiago izango dela espero dugu, baina hori ikusteko dago. Bestetik, iaz hasi gienen Elgetako Espaloian saioak zuzeneko musikarekin egiten eta horrekin ere jarraituko

dugu. Horretaz gain, gure asmoa da Elgetara ekartzea Euskal Herriko beste leku batzuetan egiten diren antzerako ekimenak. Kasu honetan gure helburua da beste jende batek arlo honetan egiten duena ezagutzera ematea eta baita bertakoei leku horietara bisitan joateko gogoia sortzeko ere.

Zer esango zenuke jendea animatzeko?

Dantza zaleendako ekimen lukidoda, ondo pasatzea helburu duena dantza tradizionalen bitartez. Beraz, dantza zalea dena eta dantza modu kolektiboan egitea nahi duena, anima dadila. Sarrera librea da eta baita parte-hartzea ere.

ARRASATE

Goi mailako abeslariak 'La Traviata'-n, Opera 2001ekin

Ainhoa Garmendia sopranoak, bereziki, eta baita bakarlariek ere txalorik beroenak jaso zituzten

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Lirika zaleentzat gorritz markatutako hitzordua da Amaiaiko opera, honezkero. Ez alperrik, salmantan egon eta aste gutxira eserleku ia guztiak hartuta zeuden. Eta, horrela, Arrasateko antzokia goraino beteta, Verdiren operarik ezagunenaz gozatzeko gertu zeuden ikusleak. Prest, bai ikuskizunerako eta baita txalotarako ez geratzeko intencioarekin. *Libiamo ne' lieti cali* ci pieza sonatu eta ospatuarekin

behin topa eginda, Opera 2001 konpainiaren *La Traviata*-k lehen zatitik bereganatu zituen ikusleak eguaztenean.

Gozamen txaloak Ainhoa Garmendia sopranoaren (Violetta), Juan Carlos Valls tenorearen (Alfredo) eta Giulio Boschetti baritonoaren (Giorgio Germont) lan bikainek eragin zituzten. Zirrargarriak asko izan ziren uneak baina protagonisten due-toek "Bravo!" bat edo beste aterazi zien bakar batzuri.



Ainhoa Garmendia (Violetta) sopranoa, *La Traviata*-ren lehen zatian. | JAGOBA DOMINGO



Bildu, EAJ, Aralar, Arrasate Garbi, Zero Zabor, Ekologistak Martxan eta Ezker Anitzako kideak, mahaiaren bueltan. | UDALA

"Kontrolpeko edukiontzi sistema" erabiliko da hiri hondakinak jasotzeko

Hondakinen Mahaiak %70 gaika biltzeko helburua adostu du aho batez

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Arrasaten akordioa lortu da hiri hondakinen kudeaketaren inguruan. Hala eman du ezagutzera irailaren 4an eratu zen Hondakinen Mahaiak. Bi helburu adostu dituzte: batetik, gutxienez hondakinen %70 gaika biltzea eta, bestetik, tasa hori lortzeko bederatzi hilabeteko epea jartzea. "Kontrolpeko edukiontzi sistema" erabiliko da, hau da, herritarrek ez dute nahastuko hondakinen frakzioerik eta biltzea zerbitzuari banatuta entregatuko zaizkio, nahitaez. Horrez gain, fiskalitate ekologikoa aplikatuko dute, hots, sortutako hondakinen araberrako zerga aplikatuko da. Sistema berria ezarri eta bederatzi hilabetetan ez bada %70 gaika biltzea lortzen, atez ateko sistema ezarriko dute.

Hondakinen Mahaiaren xede nagusia izan da hiri hondakinen kudeaketaren helburuetan ados-

tasuna lortzea. Adostasun horren ondorioa izan da sistema berria, beti ere gutxienez %70 gaika biltzeko helburua lortzeko.

Lortu ezean, atez atekoa

Oraindik ez dute ofizialki jakinarazi zeintzuk izango diren jarri edota kenduko diren edukiontziak. Xehetasun horien berri emateko agerraldia egingo dute asteon.

Jakina dena da sistema berriak bederatzi hilabeteko probaldia

izango duela: "Helburuak hasiera hasieratik edo bederatzi hilabeteren buruan lortuz gero, sistema balekotzat emango da, eta gaika jasotzeko zerbitzua sistema horren bidez egiten jarraituko da. Aldiz, edukiontzi sistema ezarri eta bederatzi hilabeteko epean aurrez adostutako gaika jasotzeko %70eko helburua lortu ezean, sistema baliogabekotzat joko da, eta Arrasateko herriguneko hondakinak gaika jasotzeko zerbitzua atez ateko sistemaren bidez egingo da", diote bidali duten prentsa oharrean.

Akordioa aho batez lortu da Bildu, EAJ, Aralar, Arrasate Garbi, Zero Zabor taldea, Ekologistak Martxan eta Ezker Anitza taldeen artean: "Deituak izan arren parte hartu ez duten PSE-EE eta STOP PaP plataformari gonbidapena bidali zaie akordio horretara atxiki daitezen", adierazi dute.



Asteon hasiko dira saltzen zarzuelarako sarrerak

Amaia antzokiko leihatilan eta Udalaren zein Kutxabanken webguneetan jarriko dituzte salgai



Gigantes y cabezudos zarzuelak oso harrera ona izan zuen ia. | JOSETXO ARANTZABAL

J.B. | ARRASATE

Hileko azken bi aste bukaeretan Izaskun Murgia Elkarte Lirikoaren *La taberna del puerto* zarzuela izango da protagonista Amaia antzokian. Hilaren 23an (19:30) estreinatuko dute eta beste hiru emanaldi eskainiko dituzte gero: hilaren 24an (19:30), 29an (20:00) eta 30ean (19:30). Herritar guztiendako asteon jarriko dituzte salgai sarrerak, Amaia antzokiko leihatilan eta Udalaren zein Kutxabanken webguneetan. 18 euro ordaindu beharko da.

Aurten mimo bereziarekin dihardute obra prestatzen, elkarte lirikoak taularatu zuen lehen zarzuela izan zen-eta. Euskal musikak presentzia berezia izango duela aurreratu dute.

NIRE USTEZ

NEREA
MAKAZAGA



Pertzepzioaren gainean

Esnatu naiz, gau hotzak dakarren ohe goxotasunetik. Logura gorputzetik kanporatu ezinik, egun osoz lo egitea posible izango nuen amesten.

Ohetik jaiki naiz presaren aztarnarik gabe. Modu mekanikoan baina geldotasunaren pisuaz, pauso bakoitza azkena noiz amaitu zain bezala denborari ez aurreratzeko. Eta azkenean iritsi naiz bainugelara, eman diot urari eta dutxak ere luze iraungo duela konturatu naiz. Ur tantek uxatu dute logura, eta ur tanta horiek sentitzen ari nintzela, bart gauean irakurritakoaz pentsatzen hasi naiz. Pertzepzioaren gaineko gogoe-taren inguruko azalpen bat zen,

hautematea pentsamenduaren estrukturarik gabe. Posible den gauzak bere horretan, diren horretan, hautematea. Bien bitartean xanpuarekin garbitu dut ilea; gela gorputzerako. Eta urari eman diot berriz. Pentsamenduak ez du hautematen. Hautemateko uneen pentsamendua ez da oraindik presen, baina behin hautemanda pentsamenduak modu automatikoan ekiten dio eta iristen gara konklusioetara. Konklusioek aldiz, ideia baten, irudi baten edo sinbolo baten aurrean ekitera eramango gaituzte, hau da, pentsamenduaren estrukturara. Eta ondorioz hautematea saihestuko digu (...). Unibertsitatean aspaldi gai honen inguruan azaldutakoak etorri zaizkit burura, beste perspektiba batetik. Eta berandutu egin zait.

"Hautematea pentsamenduaren estrukturarik gabe"

Harremanen ekitaldia egubakoitzean Amaian

Esker ona adierazi gura diete erakundeak bete dituen 20 urteotan lagundu duten guztiei

J.B. | ARRASATE

Harreman Gobernu Kanpoko erakundeak 20 urte bete ditu. Urteurren borobila aprobetxatu gura dute erakundearen proiektuetan parte hartu eta lagundu duten guztiei. Egubakoitz honetan, hilak 8, izango da ekitaldi berezia, Amaia antzokian. Sarrera doakoa izango da, antolatzaileek ahalik eta jende gehien elkartzeko gura dute-eta.

Egindako lanaren berri eman

Kultura ukitu nabarmena izango du ekitaldiak: Goikobalua abesbatzak, Arrasate Musikaleko ballet taldeak, Txorbela Otxoteak eta Jon Sarasuak hartuko dute parte.

Harremanek orain arte egindako lanaren laburpena egingo dute eta Ankur zein Mozambikeren garatzen ari diren proiektuen berri emateko ikus-entzuznekoa ere prestatu dute.

Ekin elkartearen sexismoaren aurkako postal lehiaketan parte hartzeko azken eguna, hilaren 18a

Ekin elkarteak sexismoaren aurkako postal lehiaketa antolatuko du lehenengoz. Sexismoaren aurkako mezua lantzerakoan testurik agertu beharko balitz euskaraz izan beharko da. Lanak entregatzeko azken eguna izango da azaroaren 18a eta antolatzaileek irabazlearen eguna abenduaren 2an jakinaraziko dute. Saria izango da Ibai-Arte elkartearen dendetan trukatzeko txartela; 100 eurokoa 17 urtetik beherakoendako eta 200 eurokoa 18 urtetik gorakoendako. Informazio gehiago, 651 707 986 telefonoan.

Arrasate Musikaleko ballet, Big Band eta txistulari taldeek emanaldiak eskainiko dituzte asteon

Arrasate Musikaleko hiru talde kalera irtengo dira. Egubakoitzean ballet taldeko neskek emanaldia eskainiko dute Harremanen 20. urteurreneko ekitaldiaren barruan, Amaian. Zapatuan, Ibai-Arte antolatuta, Big Band taldeak kalejira egingo du herriko txoko ezberdinetan, 18:00etatik 20:00etara. Eta amaitzeko, txistulari taldeak dagoeneko urteroko ohitura bihurtu den kontzertua eskainiko du Aramaioko Gantzaga auzoko jailetan. Emanaldia 11:00etan izango da, elizan.

Udal tasak ez igotzeko eskatu dute jeltzaleek

J.B. | ARRASATE

Urriaren 29ko osoko bilkuran onartutako 2014rako udal tasen igoera –igoera orokorra %2ekoa da eta zaborrarena, berriz, %4koa– salatu du EAJk: "Denok ikusten dugu zein egoera larria bizi duen Arrasatek Fagor Etxetresnak kooperatibaren etorkizuna dela medio. Herri osoak sufrituko duen egoera baten aurrean gaude", diote. Hala, jeltzaleek Bilduri eskatu diote arrasatearrek "keinu" bat izan dezatela: "Zergatik Bilduk ez ditu tasak izozten, bailarako beste herri batzuetan egin den bezala, elkartasuna bezalako printzipio kooperatibista garrantzitsuari keinu bat eginez?". Bilduk kontrolatzen dituen erakundeetan "eskuak garbitu" izana ere kritikatu du EAJk: "Osokoa eskatu bezala, alkateari berriz eskatzen diogu Udala herriarekin inplikatu dadila".

Haurrasate ekimenak hirugarren saioa egingo du eguenean

Txatxilipurdik, Bagarak eta Huheziko Heldu ikerketa taldeak gidatzen duten Haurrasate ekimenaren hirugarren saioa egingo dute eguenean, hilak 6, Etxaluzeko Axeri gelan (18:00). Haurren iritziak entzun eta esperientzia ezberdinak ezagutuko dituzte hirugarren saio horretan. Eguenekoa egitasmoaren gogoeta faseko azken saioa izango da.

OHARRAK

1954AN JAIOTAKOAK

Azaroaren 16an egingo dute bazkaria. Azaroaren 11a baino lehen eman behar da izena, 55 euro sartuz 3035 0001 57 0011136855 kontu zenbakian.

1980AN JAIOTAKOAK

Hilaren 23an egingo dute bazkaria Sara merenderoan. Azaroaren 6rako eman behar da izena; 40 euro sartu behar dira 3035 0001 56 0011155838 kontu zenbakian. Izen abizenak jarri behar dira kontzeptu moduan; *bus* hitza jarri behar autobusean joateko. 1980. urteko "ikur" bat eramatea eskatu dute.

1985EAN JAIOTAKOAK

Azaroaren 23an egingo dute bazkaria Aramaioko Iturrieta sagardotegian. Izena eman behar da azaroaren 10a baino lehen, 3035 0023 97 0230084289 kontu zenbakian 35 euro sartuta. Izen abizenak jarri behar dira kontzeptu moduan.

AEDk martxan jarri ditu 27. Arrasate Literatur Lehiaketak

2014ko martxoaren 14a baino lehen entregatu beharko dira lanak

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Martxan dira 27. Arrasate Literatur Lehiaketak. Hiru modalitate izango dira aurten ere: ipuina, poesia eta bertso-paperak. AEDk eman du oinarrien berri; euskarazko obra originalak eta inoiz saritu edota argitaratu gabe-

koak aurkez daitezke soilik, eta parte hartzaile bakoitzak nahi beste lan aurkez ditzake. Aurkeztutako lan guztiak lelo batekin sinatuko dira eta lanak tarte bikoitzez eta orrialdearen alde bakar batetik idatzita aurkeztu beharko dira, ordenagailuz.

Lanak nola aurkeztu

Lanak aurkezteko bi modu daude: posta elektronikoz edo papelean inprimatuta. Postaz egiten bada, bi dokumentu bidali beharko dira aed@aedelkarta.com helbidera. Dokumentu batean, lehiaketara aurkeztutako idazla-

na joango da, lelo batekin sinatuta eta egilearen izenik gabe. Bestean, berriz, honako datu hauek zehaztu beharko dira: idazlanak daraman lelo bera, egilearen izen-abizenak, jaiotza-data, helbidea, posta elektronikoa, telefono zenbakia eta 2013-2014 ikasturtean zein mailatan dabilen. Papelean inprimatuta aurkezten bada, idazlanaren hiru kopia aurkeztu beharko dira, hirurak lelo berarekin sinatuta. Horrekin batera gutun-azal itxi bat ere aurkeztuko da, eta barruan, aurrez aipatutako datu guztiak zehaztu beharko dira.

Sariak, maiatzaren 15ean

Lanak bidali daitezke, aed@aedelkarta.com helbide elektronikora edo posta arruntez –Pablo Uranga 4, behe, 20500 Arrasate–. Lanak entregatu behar dira 2014ko martxoaren 14a baino lehen. Finalisten zerrenda 2014ko maiatzaren 9an kaleratuko du epaimahaia AEDren webgunearen eta hedabideen bitartez. Behin betiko irabazleen izenak 2014ko maiatzaren 15an egingo den sari-banaketa ekitaldian jakinaraziko dituzte. Informazio gehiagorako: www.aedelkarta.com.



lazo edizioako finalistak Kulturateko areto nagusian, Uxue Alberdirekin. | AMAIA TXINTXURRETA

The Hangmen, Los Angelesetik Arrasatera

J.B. | ARRASATE

Asteon Los Angeleseko (AEB) The Hangmen taldea izango da Kooltur-eko gonbidatua. Talde beterranoa da, aurten 25 urte bete dituzte. Stooges, Gun Club, X eta antze-

ko taldeetan inspiratuta, Bryan Smallek taldea martxan jarri zuen 1980ko hamarkadan. Hasieratik punk-rocka egiteari ekin zioten, beti ere garagearen eta bluesaren eragin handiarekin. Behin baino

gehiagotan, gogora ekarri dute Stooges, Rolling Stones, Replacements eta Johnny Thunders-en zale borrokatuak direla. Hainbat disko, kontzertu ugari eta bizitzaren gorabehera handien ostean, taldea bizirik dago oraindik. Are gehiago, orain indartsu daude eta Serie Z jaialditik pasa ostean gurean aurkeztuko dute iaz kaleratutako *East of western* disko berria. Ibilbide sendoa, diskografia landua, kantu sinesgarriak eta zuzeneko indartsuak. Ez da harritzekoa, Keith Morris (Circle Jerks), Rob Younger (Radio Birdman) eta Mike Ness (Social Distortion), besteak beste, taldearen jarraitzaile izatea. Kooltur Ekintzakoei esker gurean izango dugun beste proposamen interesgarri bat; hilak 7, gaztetxean (22:00).



The Hangmen taldearen promoziorako argazkia. | GOIENA

Eperra ikastolaren aldeko otarrak salgai aurten ere

J.B. | ARRASATE

Aurten ere Zuberoako Eperra ikastola laguntzeko otarrak salduko dituzte. Proiektuaren helburuak bi dira nagusiki: tokiko janariak ezagutaraztea eta ikastolaren egoera ekonomikoa hobetzea –aurrekontu osoaren %5 otarren bitartez jasotzen dute–. Saskia eskatu gura duenak azaroaren 30a baino lehen eman behar du izena zuberoako.ikastola1@orange.fr helbide elektronikora idatzita. Saska bakoitza 39 eurotan jarri dute salgai; 3035 0059 87 0590098962 kontu korrante zenbakian egin behar da ordainketa.

1951n jaiotako arrasatearrak ederto ibili ziren Logroñon

1951n jaiotakoek urriaren 19an egin zuten urteroko ospakizuna. 30 lagun elkartu ziren Logroñora joateko. Rodeznon bazkaldu zuten, eta ondoren dantzan egiteko aukera ere egon zen: "Ederto ibili ginen. Ea datorren urtean jende gehiago animatzen den".



RAMON OSINAGA



Asteleheneko osoko bilkura, EAJko zinegotziek aretoa utzi ostean. | IMANOL GALLEGU

San Antonioko eraikin bat erostea onartu du Udalak

Udal gobernuaren babesarekin, Auzitegi Nazionalan egiten ari diren epaiketen aurkako mozioa onartu zen

IURE EIZAGIRRE | BERGARA

Aste hasierako ohiko osoko bilkurak gai ugari jarri zituen mahai gainean, ez arreta handiena piztu zuten ordenantza fiskalak eta hondakinen bilketa bakarrik. Besteak beste, urbanizazio lanek izan zuten euren lekua eta San Antonio auzoko errehabilitazio lanekin jarraitu ahal izateko 3. zenbakiko eraikina eta berari

atxikia dagoena erostea onartu zuen udalbatzak aho batez. Maren Belastegi zinegotziak azaldu duenez, "kalearen errehabilitazioa azken urteetako auzotarren eskaria da. Kalea estutu egiten da eta inbutu moduko bat sortzen da. Gainera, ez dago espaloirik, ez oinezkoendako pasabiderik".

Lurralde Antolamendu eta Ingurumeneko batzordeburuak

zehaztu zuen ezinbestekoa dela eraikin hori eraistea errehabilitazio lanak egiteko. Ondorioz, Udalak datozen asteetan sinatuko du jabetzako eskritura.

Udalak jada egin ditu gestioak etxejabeekin eta 101.500 eurotan erosiko ditu 3. zenbakiko eraikina eta berari atxikitakoa.

Jabetzaz aldatutakoan, eraikina bota egingo dute, baina ez

osoa, "Udal Ordenantzaz kanpo dagoen zatia bakarrik", azaldu du Belastegik.

Behar adina espazio lortutakoan, "San Antonio auzotik kalea pasatzeko espaloia egingo da. Kalea urbanizatzea da asmoa". Oraindik, baina, izapideak hasteke daude, beraz, itxaron egin beharko da San Antonio egokitu eta erosoagoa ezagutzeko.

Epaiaketen aurka

Ohiko osoko bilkuran azken asteetan Madrilgo Auzitegi Nazionalan dozenaka euskal herritarren kontra egiten ari diren epaiketen aurkako *Epaiaketa politiko gehiagorik ez!* izena zuen mozioa onartu zen. Epaiaketa politiko gehiagorik ez egiteko eta elkarbizitzara demokratikorako oinarri sendoak ezartzeko eskatu zen, besteak beste, mozioan.

Gobernu Taldeak -Bilduk eta Aralarrek- mozioaren alde bozkatu zuen eta PSE-EEK, berriz, aurka. EAJko ordezkariak orduko utzita zuten aretoa. Alkateari baimena eskatu eta Fagorren egoeraren aipamena egin ondoren, hondakinen gaiari heldu zion Aintzane Oiarbide EAJko bozeramaileak. Gobernu Taldeak hondakinen bilketaren inguruan darabilen lan egiteko moduarekin ez daudela ados adierazi zuen Oiarbidek, eta ostean alderdiko bost zinegotziek aretoa utzi zuten, protesta gisa.

Egindako adierazpenaren amaieran, ordea, epaiketen aurkako mozioa aipatu eta Gobernu Taldea kritikatu zuen: "Oso erraza zen gurekin akordio batera heltzea epaiaketa politikoak direla eta, erabat ados baikaude aurkeztutako mozioarekin, baina Bildu eta Aralarrek, berriz ere, gure parte-hartzerik nahi ez duzuela erakutsi diguzue, ezta bakegintza gaietan ere".

Artatse elkartearen zapatuko bertso afaria bertan behera

Artatse elkarteak bertan behera utzi du zapatuko bertso afaria. Julio Soto nafarra eta Jone Uria bizkaitarra ziren abestekoak afaritan baina biak Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako final aurrekoetarako sailkatu dira eta horren ondorioz, Gernika-Lumoko saioan hartuko dute parte zapatuan bertan, 17:30etik aurrera. Afaritarako txartelak erosiak dituzten bertsozaleek ez dute dirua galduko, izan ere, Arrano tabernan eskatu daiteke dagoeneko. Nahi izanez gero, asteazken arratsaldean Artatse elkartearen bertan itzuliko zaie txartelaren dirua.

Mokor hausturaren inguruko hitzaldia izango da Irizarren

Mokor hezuraren haustura gertatzeko aukerak handitu egiten dira adinean aurrera egin ahala. Horri buruz eta gaixotasunak izan ditzaketen ondorio kliniko eta sozialen inguruan hitz egiteko hitzaldia eskainiko du Iñigo Etxeberria Foronda doktoreak bihar Irizar jauregian. *Mokorraren haustura nagusiengan* hitzaldia 19:00etan hasiko da eta jardunak lau arlo landuko ditu: zer den mokorraren haustura, zergatik gertatzen den, gaixo eta senideengan duen eragina eta gaixotasuna ekiditeko egin daitekeena. Etxeberria ESiko Traumatologia Zerbitzuko koordinatzailea da.

OHARRAK

EAJ-K PRENTSAURREKOA

Bergarako EAJk prentsaurrekoa emango du gaur, 10:00etan, Batzokian. Atez ateko sistemaz hitz egingo dute.

1939KOEN BAZKARIA

Azaroaren 16an izango da. 13:00etan elkartuko dira Fraiskozuri plazan eta bazkaldu aurretik txikiteoa egingo dute. Bazkaria 14:30ean izango da Pertxa elkartean. Izena aurrez eman behar da, azaroaren 11 baino lehen.

1935KOEN BAZKARIA

1935ean jaiotakoek abenduaren 1ean egingo dute urteroko bazkaria. 14:30ean izango da Axpeitxi jatetxean. Izena emateko 12 euro aurreratatu behar dira Laboral Kutxan, azaroaren 16a baino lehen.

1933KOEN BAZKARIA

Azaroaren 17an egingo dute bazkaria, Azpeitxin. 12:00etan meza izango dute Santa Marinaran eta bazkaria 14:00etan izango da. Izena emateko 6 euro aurreratatu behar dira Intxortan.

1953KOEN AFARIA

Azaroaren 16an izango da, Tartufon. Afaria 21:00etan izango da eta 23:30ean dantzaldia hasiko da. Izena emateko azken eguna azaroaren 14a da, Tartufon 15 euro aurreratuta edo 690 92 18 49 (Juan Antonio) zenbakian. Autobusa abiatuko da 20:30ean Fraiskozuritik eta 01:30ean jaitziko da.

1942KOEN BAZKARIA

1963ko kintoek hilaren 23an egingo dute urteroko bazkaria, 14:30ean, Azpeitxin. Ohi bezala bazkaldu aurretik talde argazkia egingo dute. Izena emateko 20 euro aurreratatu behar dira, Laboral Kutxan, azaroaren 20a baino lehen, kontu honetan: 30350009130091144713.

1978KOEN BAZKARIA

Zumelagan egingo dute, azaroaren 16an. 13:00etarako egin dute hitzordua, Bulen. 15 euro aurreratatu behar dira, la Caixan hilaren 13a aurretik, ondorengo kontu korrante honetan: 21002414110100288642.



Zenbait emakume Internet erabiltzen ikasten. | ITSASMENDIKOI

KZguneko azaroko saioak gaur hasiko dira Irizarren

KZguneak teknologia berriei buruzko zerbitzuen eta ikastaroen ohiko katalogoa prestatu du

I.E. | BERGARA

Internet erabiltzen ez dakiten bergararrek ez dute arrazoirik ezjakintasun egoera horretan jarraitzeko, KZguneak berriro ere euren eskura jarri ditu eta teknologia berriak ezagutu eta

erabiltzen ikasteko saioak. Ohi moduan, egun bakarreko, bi egunetako edo bi asteko ikastaroak izango dira.

Batzuk gaur hasiko dira, horien artean bi aste iraungo duen *Oinarritzko Internet* ikasta-

roa. Jakina da Interneten informazio ugari topa daitekeela, baina ongi erabiltzen ez dakienentzat ez da lan erraza izaten. Horregatik gaurtik azaroaren 15a arte iraungo duen ikastaro honetan ordenagailu bat zer den ezagutu, eta nabigatzen eta posta elektronikoa erabiltzen ikasiko dute. Modu arinean eta adibide praktikoeekin, gainera. Ikastaroa astelehenetik egubakoitzera emango dute, 16:00etatik 18:00etara.

Gaur emango den beste ikastaroa hain modan jarri den Twitter sare sozialari buruzkoa izango da. Tresna horren bitartez ezagunekin harremanetan jartzen eta dokumentuak partekatzen ikasiko dute ikasleek. Saioa gaur bakarrik eskainiko dute eta bi ordukoa izango da, 18:00etatik 20:00etara.

Bihar IT Txartelari buruzko ikastaroa emango dute, 18:00etatik 20:00etara, eta etzi, aldiz, Eusko Jaurlaritzan, Aldundian, udallean eta administrazioan gestioak egiteko lagungarri den metapostaren ingurukoak.

Software librearekiko jakinmina dutenek azaroaren 29an izango dute ikastaroa.



Jon Suinaga berak idatzitako liburua sinatzen Bergarako Elkar liburu dendan joan den eguaztenean. | ANE MIREN ETXEBERRIA

Harrera ona izan du Jon Suinagaren eleberriak

Allende los mares du izena liburuak eta tartean krimen bat duen eleberri historikoa da

OIHANA ELORTZA | BERGARA

Lagun eta ezagun asko joan ziren pasa den eguaztenean Bergarako Elkar liburu dendara Jon Suinagari eskatzera liburua sinatzeko. Izan ere, bere lehen eleberriaren liburuak sinatzen aritu zen idazle bergararra herriko liburu denda horretan.

Salmenta ona

Suinaga oso pozik zegoen, harrera ona izaten ari baita liburua, idazlearen hitzetan: "Irakurri dutenek kritika ona egin didate, kritika eraikitzaileak izan dira, gainera, orain artekoak eta oso pozik nago. Lehenengo ale-kopurua argitaratu dugu eta oraingoz ondo doa salmenta". Ale guztiak salduko diren esperantza du Suinagak.

Jon Suinaga Injineru elektronikoa da ikasketaz eta lanbidez. Fagor Arrasaten egiten du lana. Baina idazteko eta irakurtzeko

zaletasuna aspalditik dator. Ipuin laburrak idatziak ditu; komiki tirak eta komiki liburuak ere argitaratuak; GOIENAKo iritzi zutabegile eta komiki-tira egile izana da... Orain, lehen liburu mardula, baina samur irakurtzekoa, idatzi du: 190 orriko intrigazko eleberri historikoa, *Allende los mares* du izena.

Eleberri historikoa da *Allende los mares*, eleberri historikoa da, XV. mendean kokatzen dena, eus-

kaldunak baleak arrantzatzen joaten zireneko garaian. "Historia asko gustatzen zait eta garbi nuen niri gustatzen zaidan gaiari buruz idatziko nuela liburua, eta baita gustukoa dudan sasoiak kokatuko nuela ere, XV. mendean bukaeran, alegia", kontatu zuen idazle bergararrak eguaztenean, liburuak sinatzen zituen bitartean.

Eleberri historikoa da eta krimen bat dago tartean. Liburuaren azala Rikardo Azkargorta artista bergararrak egin du.

Idea berriak borobiltzen

Idazleak aitortu du oraingoz lan honekin disfrutatu nahi duela baina badituela ideia gehiago buruan eta horietako batzuk borobiltzen eta paperera eramaten ere hasita dagoela. *Allende los mares* Euskal Herriko liburu denda guztietan dago salgai 16 euroren truke.



NIRE USTEZ

PEDRO GARITANO



Taldean batzea ona da

Guztiok begiratu izan dugu gure burua putzu baten islan, edo ispilu baten aurrean eta bakoitzak galdera hauek eginaz: Nondik nator? Nora noa? Nere begiek ikusten dutena baino hareago existitzen al da zerbait?... eta

bikoitza isilik gelditzen da. Nirea ere mutu. Eta zalantza existentzial horrekin Jerusalemera erromes joan naiz. Lurralde hark badu zerbait han zauden bitartean ezberdin sentiarazten zaituena. Bidaia lagun ezezagunak maite dituzu. Arrazoia izango al zuen Freudek bere teoria ateoan, esaten zuenean gizakia taldean elkartzera bultzatzen duen neurosi kolektibo bat badagoela, ospakizun eta kultuan batez ere? Teoria hori kaltegarria al da? Nire ustez taldean elkartzea erabat positiboa da. Islamaren indarrak 1.100 milioi musulmanek bere pentsamendu eta begirada

ordu jakin batean Mekara begira ipintzean datza. Horrek erabat indartsu bihurtzen ditu.

San Joxepe abesbatzakoak, Mekara begiratu gabe, taldean elkartzen gara, soilik kantuan egiteko. A ze plazera, ia ostegunero, kantatzera! Duela gutxi, beste herri bateko abesbatzakoekin elkartu ginen, ba horixe, kantuan egiteko.

Afaldu eta kantuan egin genuen, 120 lagun elkartuta, guztion artean 8.760 urte genituen.

Irakaspena: Ona da taldean elkartzea. Ez zaitetz bakartia izan.

Herri kontsultarako deia egin du Bergara Garbiak

Udal Gobernuak poztekoa deritzo Arrasateko Hondakinen Mahaia lortu duen akordioari

O.E. | BERGARA

Datorren asteburuan egingo den herri galdeketa parte hartzeko mezua zabaldu zuen Bergara Garbiak ostegunean egingo dako prentsaurrekoan. Horrekin batera, herritarrei eskatu zieten hondakinen kuboak jasotzera ez joateko.

Zapatuan eta domekan

"Udal Gobernuak Hondakinen Mahaia apurtu eta hasieratik pentsatuta zuten asmoari jarraiki bergararrei atez atekoa inposatu diete. Bilduk eta Aralarrek sortutako Hondakinen Mahaia-ri esker denbora lortu eta zintzilikarioak nola ezarri pentsatu ahal izan dute. Baina erabakia Bergaratik kanpo hartuta zegoen jada". Horrela hasi zuen eguen goizeko prentsaurrekoa Bergara Garbia plataformako Jose Antonio Aperribaik. Eta jarraitu zuen esaten herri galdeketa egingo dutela eta herritarrei dei egiten dietela galdeketa horretan parte hartzeko eta desobedientzia zibilerako.

Bergara Garbia plataformak datorren asteburuan, azaroaren 9an eta 10ean, egingo du herri galdeketa. Galdeketa horretan, herritarrei eskatuko zaie bosgarren edukiontzia edo atez atekoaren alde edo kontra bozkatzeko, eta Bergarako notarioak

egiaztatuko ditu jasotako botoak.

Desobedientzia zibilerako deia ere egin dute. "Ez jaso kuborik. Ez larritu, ezin dute isunik jarri ez baitago kuboak ez hartzearen edota hondakinek zintzilikarioetan ez jartzearen aurkako ordenantzarik. Horregatik, batu ditzagun organikoa eta errefusa poltsetan, eta jar ditzagun betiko lekuetan, eta posible ez bada, utz ditzagun zintzilikarioen aldamenean, lurrean", zioen Aperribaik.

Arrasateko akordioa

Bestalde, Udal Gobernuak "txalotzekoa" deritzo Arrasateko Hondakinen Mahaia akordioa "horren denbora laburrean" lortu izanari. "Begarako Hondakinen Mahaia, nahiz eta askoz denbora gehiago igaro negoziatzen, ez du horrelakorik lortu. Akordiotik gertu samar egon garen bakoitzean, EAJ eta Bergara Garbiako ordezkariak aurrerabidea zapuztera etorri zaizkigu behin eta beriz", dio bidali duen prentsa oharrean. Horrekin batera, Udal Gobernuak itxaropena agertu du herrian ezartzera dihoan sistemaren aurka dauden herritarretatik hainbatek iritzia aldatuko dutela gauzak nola izango diren ikusitakoan.



Bergara Garbiak egunean emandako prentsaurrekoa. | AMAIA TXINTXURRETA

Formazio saioak emango dituzte IKT Astean

O.E. | BERGARA

Azaroaren 11tik 15era IKT Astea egingo dute Bergaran. Enpresendako, komertzioendako eta herritarrendako formazio saioak emango dituzte egun horietan, enpresa digitalaren bitartez.

Askotariko formazioak

Eskainiko dituzten formazioak askotarikoak dira. Enpresendako zuzendutako saioak dira: marketin joerak, mugikortasuna eta gailu mugikorrek enpre-

sara nola zuzendu eta negozio txiki eta ertainei zuzendutako webgune propioak nola egin. Dendari eta ostalariendako, berriz, Eginez Ikasi izeneko formazioa eskainiko dute eta herritarrendako, beste lau saio: sare sozialak eta nerabeak, sare nola erabili lana topatzeko, negozio txiki eta autonomoendako sare sozialak eta nola egin erosketak Internetez.

Formazioetan parte hartzeko izenematea zabalik dago.



Gurasoak eta seme-alabak, ipuinak esku artean dituztela. | ERMUA.ES

Guraso eta umeen irakurketa klubak etzi du lehen saioa

Bihar, helduendako ipuin kontalari kolonbiar bat dator Udal liburutegira

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Irakurketa kluba izeneko ekimena jarriko dute martxan, laugarren urtez, aste honetan Udal Liburutegian. Irakurzaletasuna sustatzeko helburu ekimenak eta 3-5 urte arteko umei eta euren guraso

eta hezitzaileei zuzenduta egongo da. Guraso eta haurren artean irakurketa giroa sortzea eta txikiak zein nagusiek ipuinekin eta liburuekin gozatzea lortu gura da.

Lur Korta ipuin kontalariaren gidaritzapean egingo dituzte

saioak. Eguaztenean, hilak 6, izango da lehen saioa eta azaroaren 27an eta abenduaren 18an izango dira hurrengoak. Parte hartzeko, baina, izena eman behar da haur liburutegian, plazak mugatuak izango direlako.

Helduendako kontaketa

Bestalde, bihar, martitzena, helduendako ipuin kontaketa egingo dute Udal liburutegian. Kolonbiako John Ardila izango da kontalaria.

Oso kritika onak dituen ipuin kontalaria da Ardila kolonbiarra eta ipuinaz gozatzeko moduko saioa eskaintzera etorriko da Oñatira. "Gure helburua da beste kultura batzuk ezagutzeaz gain, herritar hegoamerikarrak liburutegira erakartzea", azaldu du Arantza Ibarrondo Udal liburutegiko arduradunak.

Ardilak 10 urte daramatza ipuinak kontatzen. Unibertsitateko irakaslea da eta egunerokotasuneko bizimodua izaten da askotan bere ipuinen oinarria, gehienetan umorez kontatzen dituen istorioak, bide batez.

DeAllá izeneko ipuina aukeratu du bihar Oñatiko Udal liburutegian egingo duen saiorako. 19:00etan izango da.

Tertulixan ere bai

Bestalde, Tertulixan egitasmoak ere hasi du ikasturte berria. Aurrez proposatu eta irakurritako liburuaz jarduteko elkartzeko dira, hilean behin, irakurleak Tertulixan saioetan. Azaroaren 18an, esaterako, Uxue Alberdiren *Aulki bat elurretan* izango dute mintzagai, eta hilaren 20an, George Perec-en *La vida. Instrucciones de uso* izenekoak.

Tertulixan egitasmoan parte hartu gura duenak liburutegian eman dezake izena.

Mendiko lizentziak berrituko ditu Aloña Mendik bihartik

Azaroaren 5ean, 7an, 11n eta 13an egingo dituzte tramitazioak Aloña Mendi bulegoetan

O.E. | OÑATI

Datorren urteko mendiko lizentzien eta aseguruaren tramitazioak egingo ditu Aloña Mendiko mendi sailak bihartik, martitzena, hilaren 13ra. Federatuta dauden gurasoen seme-alabek %50eko deskontua izango dute.

zabaltzeko estaldura hori. Aloña Mendiko bulegoetan egingo dituzte tramitazioak 19:30etik 21:00etara. Posta elektronikoz egiteko, alonamendi.mendi@gmail.com da helbidea.

Federatuta

Orain arte mendi saileko bazkide direnek aseguruaren estalduran aldaketaren bat egin gura duten edo ez azaldu beharko dute eta baja ematea gura izanez gero, hilaren 13a aurretik pasa beharko dute abisua.

Mendizale lizentzia atera gura dutenak, berriz, Aloña Mendiko mendi saileko bazkide izatera pasako dira automatikoki eta era berean, Euskal mendi Federazioan federatuko dira. Ibiltzen diren eremu geografikoaren arabera aseguru egin ahal izango dute, eta aukera dute mendiko kirolaz gain beste ekintza batzuetara ere

Denis Urubko eguaztenean

Munduko goi-mendizale onenari bat, Denis Urubko, etorriko da eguaztenean kultura etxera, 19:30ean. 14 zortzimilakoak igotako da Urubko eta besteak beste, Iñaki Otxoa de Olzaren erreskate lanetan parte hartu zuen. Alex Txikon izango da itzultzailea. Mendi hamabostaldia zabalduko du kazajistandarrak.

2014ko udal ordenantzak onartu ditu udalbatzak

O.E. | OÑATI

Bilduren aldeko eta EAJren kontrako botoekin onartu zituen eguenean udalbatzak datorren urteko udal zergak eta tasak.

Ordenantza fiskalak zehazteko irizpide nagusia Kontsumo Prezio Indizea igotzea izan da, hau da, %1,74ko igoera izatea. Hala ere, denek ez dute igoera hori izango. Esaterako, eguneko zentroko tasa, euskaltegia, hondakinena eta merkataritza eta zerbitzuena izoztu egingo dira 2014an. Ohiko egoitza ez diren etxebizitzaren errekargua %100a

izango da 2014an ere eta ludotekako tasak, esterako, jaitsiera izango du.

Etxebizitzak eta hondakinak

Udal Gobernuak planteatzen duen igoera orokorrarekin bat dator EAJ ere, hau da, KPIa izatea igoera. Alderdi jeltzaleak, baina, kontrako botoa eman zuen eguneko osokoan, ondasunen higiezen gaineko errekarguarekin ados ez dagoelako batetik, eta ezta hondakinena tasa izoztearekin ere. Horren harira, transparentzia falta salatu zuen EAJk.

Antzezlanaren estreinatuko du Ikusi Makusik egubakoitzean

O.E. | OÑATI

Kultura Astea egingo dute Pake Leku elkartearen gaurtik, astelehena, egubakoitzera bitartean. Ekitaldi bat baino gehiago antolatuko dituzte, horien artean Ikusi Makusi antzerki taldearen lan berriaren estreinaldia.

Vivir en Villa Titiritaina du izena erretiratuaren elkarte

antzerki taldeak landu duen azken antzezlanak. Aurreko lanetan egin duten moduan, antzezlan berria ere herriko erretiratuaren aurrean egingo dute lehendabizikoz. Egubakoitzean izango da emanaldi hori, azaroaren 8an. Santa Ana aretoan egingo dute, 17:30ean, eta herriko erretiratuak izango dira ikusle bakarrak.

Hitzaldia eta irteera

Antolatu dituzten beste ekitaldietako bat da, gaur, astelehena, Pake Leku Aloña abesbatzak agustindarren elizan egingo duen kontzertua. 18:00etan izango da. Biher, berriz, *Gure aitona-amonaren elikadura* izeneko hitzaldia egingo du Jose Antonio Azpiatzuk Pake Lekun 17:30ean. Eguaztenean Santo Domingora eta Ezkaraira joateko irteera egingo dute, eta eguenean, bingoa, elkartearen bertan. Hilaren 22an, gaztaina-jana egingo dute.

NIRE USTEZ

AITOR UGALDE



Korrika eta lirika

A skorendako Behobiarren astea izango da hau, atseden hartzeko egunak igandean Behobia-Donostia lasterketan indartsu aritzeko. Ni ez naiz joango.

Satisfazioa ematen dit korrika egiteak, hanka arinak dauzkadala sentitzeak, lasterketaren parte hartzeak. Behobian ere parte hartu izan dut, saiatu ere saiatu izan naiz ibilbidea aurreko urtean baino azkarrago egiten, baina orain itzeldu egin zait irrika hori. Ez hainbeste korrika egitearena, baina bai erlojuari begiratzearena, lasterketaren batean parte hartzen badut ere jada ez diot begiratzen denborari.

Izango da ez dudalako azkarrago korrika egitea lortzen; hori lortzeko badakit zer egin beharko nukeen, gehiago eta hobeto entrenatu.

Baina ez daukat gain-efortzu hori egiteko gogorik, adinaren eta gorputzaren mugen aurka joatea iruditzen zait orain horrelako ahaleginetan sartzea. Eta, denborarekin, baita korrika egitea ere.

Pentsatzen hasi beharko dut korrika egiten uzteari gorputzari kalte egin aurretik. Horretarako korrika egiteak ematen didan gauza onak beste nonbait topatu beharko ditut. Kirola ez den zerbait ere izan daiteke, lirika esate baterako.

Ziur poesia idaztea korrika egitea bezain atsegingarria dela. Uste dut heldu zaidala poesiara dedikatzeke ordua.

"Ez daukat gain-efortzu hori egiteko gogorik"

ARETXABALETAKO

Euskal Herriaren bilakaera historian, mapen bidez

Gaur irekiko dute Arkupeko erakusketa aretoan 'Euskal Herriko mapak'

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Euskal Herriko mapak. Euskal Herria kartografian eta testigantza historikoetan. Horixe da azaroan zehar Arkupen ikusgai egongo den erakusketa. Jose Mari Espartzak idazle eta historialariaren *Mapas para una nación* liburuan oinarritutako erakusketa da.

Denboran joan-etorria

Erakusketa ibiltaria Donostiako San Telmo museoan egon da aurretik. Espartzak bere liburuan jasotzen dituen mapen lagin bat ikusgai egongo da bertan. "Badira bi gauza, batetik kartografia dago (mapak) eta bestetik nik ahozko kartografia deitzen ditudanak daude. Azken horiek entziklopedietatik zein literaturatik jasotako esaldiak dira, esaterako; ahoz zein idatziz Euskal Herriari buruz egin diren definitzioak, hain zuzen".



Euskal Herriko mapa bat. | JOSE MARI ESPARZA

Erakusketaren bidez denboran joan-etorria egiten da, Espartzak azaldu duenez. "Lehenbiziko mapa XI. mende ingurukoa da, baina egun ezagutzen ditugun kartografia eta mapa moduan, XVI. mende

detik honakoak dira". Madrilen, Parisen, Londresen eta beste hainbat tokitan ibili zen Espartzak bere lana osatzeko, eta horrek eman zion lan handien, azaldu duenez. "Ahozko kartografia hori biltzeko

egia da liburu asko kontsultatu behar izan ditudala, bidaiariek zer esaten zuten ikusi, Alemania eta Frantziako entziklopediek zer jaso duten ikusi... Beti-beti agertzen da Euskal Herriko definizio bat."

Horren harira, badagoela definizio klasiko bat eman du aditzera: "XVI eta XVII. mendeetan Euskal Herrian erabiltzen zena, eta zazpi probintziak aipatzen dira". Erakusketan mendetan eman diren aldaerak jasotzen dira: "Batuetan Bizkaia moduan ezagutzen zen Euskal Herria, bestetan Kantabria moduan, edo lau lurraldetan banatuta zegoen..."

Ondo definitutako herrialdea

Espartzak esan du mapa horiek guztiek erakusten dutela Euskal Herria Espainia baino definitua goa egon dela beti: "Askok aldatu da Espainia: Gaztela izatetik inperio izatera, eta egun ez dituzten lurraldeak edukitzera: Korsika, Sardinia, Filipinak..."

Hori guztiari Arkupen egongo da ikusgai, astelehenetik egubakoitzera, 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara; zapatuetan goizez bakarrik eta domeka eta jaiegunetan itxita egongo da.

Teoria eta praktika landuko dituzte oinarrizko orientazio ikastaroan

Z.V.D.M. | ARETXABALETAKO

Loramendik, Murruxok eta Zarak oinarrizko orientazio ikastaroa antolatu dute. Mendi eta naturako ekintzak atsegin dituzten 14 urte gorakoei zuzenduta dago eta azaroaren 15etik 17ra egingo da. "Uneoro non gauden eta helmugara eramango

gaituen biderik egokiena aukatzea izango da garrantzitsua", esan dute antolatzaileek.

Mapak ezagutzeko eta interpretatzeko, kartografian eta errealtatean erliebe orografikoak identifikatzeko oinarrizko ezagutzak emango dituzte. Zeharkako kompetentziak ere landu nahi

dira; adibidez, GPSak huts egiten digunean edota behe-lainoak harrapatzen gaituenean nabigatzeko baliabideak eskuratzea.

Ikastaroaren garapena

Lehenengo egunean, azaroak 15, klase teorikoak emango dituzte udaletxe zaharrean, 18:00etatik 21:00etara.

Eta hurrengo bi egunetan, ostera, Urbasako Parke Naturalera lekualdatuko da ikastaroa. Parte hartzaileek honakoak era-

man beharko dituzte: iparrorratza, arkatza, papera, borragoma eta erregea, mendian ibiltzeko arropa eroso, bi egunerako janaria eta lo egiteko zakua eta esterilla.

Izen-ematea azaroaren 12a baino lehenago egin behar da Loramendin. Ordainketa, aldiz, azaroaren 15ean izango da, parte-hartzaileen arabera. Hauek dira prezioak: sei pertsona, 75 euro; hamar pertsona, 55 euro; eta hamasei pertsona, 40 euro.

ESKORIATZA

Orri-puntua hautatzeko lehiaketa abiarazi du Udal Bibliotekak

250 euroko saria eskuratuko du irabazleak

Z.V.D.M. | ESKORIATZA

Eskoriatzako Udal Bibliotekak lehiaketa bat ipini du martxan. Hain zuzen ere, datorren urteko orri-puntua izango dena hautatu guran dabilta, eta, hain zuzen, herritar guztiei egiten diete egitasmoan parte hartzeko gonbita.

Bai gaia eta baita teknika ere librean izango direla eman dute aditzera, baina zehaztasun tekniko batzuk bete beharko dira: lanek tamaina jakin bat izan beharko dutela, hain zuzen. Hala, 21x5,5 zentimetrokoak izan beharko dute aurkeztutako lanek.

Sariari dagokionez, irabazleak 250 euro eskuratuko ditu. "Orri-puntu irabazlea aukeratu ondoren, egileak orri-puntuaren atzealdea diseinatu beharko du: hain zuzen ere, emango zaion testua eta egutegia hautatu beharko ditu".

Abenduaren 9a baino lehen aurkeztu beharko dituzte lanak interesatuek bibliotekan bertan. Egilearen izenik gabe baina lelo batekin aurkeztu beharko dira proposamenak; eta, aldi berean, eskutitz itxi batean lelo bera eta egilearen datuak ipini beharko dira.

Aretxabaletan ere abian

Aretxabaletako liburutegiak ere abiarazi zuen irakur-punturako irudia hautatzeko lehiaketa. Asteon izango da, gainera, parte hartzeko azken eguna; hala, interesatuek egubakoitza baino lehen aurkeztu beharko dituzte. Aretxabaletako lehiaketan ere, gaia eta teknika librean izango dira: "Marrazkiek ez dute literaturaz zerikusirik izan behar derrigor, eta eskuz zein ordenagailuz egin daitezke".

Sariari dagokionez, 200 euro jasoko ditu irabazleak.

Arropa eta ibilgailuen gainekoak, bi ikastarotan

Z.V.D.M. | ESKORIATZA

Ibilgailuen mantenuaren gainekoa emango dute azaroaren 18tik 21era eta 25etik 28ra, 16:00etatik 20:00etara, Aretxabaletako Lanbide Eskolan. Oraindik ez dute zehaztu zein hizkuntzatan izango den: "Erabiltzaileen arabera".

Gizarte zerbitzuetan eman behar da izena azaroaren 12a baino lehen. 30 euro kostako da, 15 euro %100eko asistentziak.

Arropak egokitzen ikasten

Amaia Albes diseinatzaile arrastearrak emango du *Kustomizatu zure armairua* izenekoa. Hilaren 18an hasita, lau astelehenetan arropak margotzen zein eguneratzen irakatsiko du, 18:00etatik 20:00etara kultura etxean. "Josteko makina edukitzea komeni da". Hamar lagunentzako dago tokia. Izena ematea, 20 euro.

Sistema berria ezagutzeko formazioa, eguztenetik

JULEN IRIONDO | ESKORIATZA

Gaur da martxan hastekoa herriko zenbait auzotan proba modura jarriko den hondakinak batzeko sistema berria, eta honen gainean informazio zehatzagoa emateko ordubeteko formazio saioak egingo dituzte Ibarraundin: azaroaren 6an eta 8an 11:00etan, eta hilaren 12an 18:00etan.

Bestalde, Hondakin Kudeaketa Bulegotik jakinarazi dute zegoien etxebizitzaren %77k jaso zituztela sistema berrirako ontziak eta materiala aurreko astean horretarako jarritako egunetan. Bulegoak eta Udalak "oso positiboki" baloratu dute kopurua. Jaso ez zituztenek Ibarraunditik pasa behar dutela adierazi dute.

NIRE USTEZ

NURIA FERNANDEZ DE ARROIABE



ProCesua, pereCia... Ene!

Guzurra emuten badau be, ez naz nahastu; apropos ipini dot Cletria horreitan berbaorreitan. Begiko miña egiten dau, ezta? Ba, aspaldixan, belarriko miñak jota nabil ni, halakuak takian-takian entzuten dielako.

Normala da agozko berbetan gaztelaniazko (eta beste hizkuntza batzuetako) maillekuak hartzea, eta, oin artian, berba arrotzari geure agoskeria emutia izen da normala.

Aspaldixen, baiña, halako nagikeria linguistiko zentzubako batek eragin dda edo, datozenetan, ezelako irazton-tzittatik pasau barik, ebalten hasi da euskal hiztuna, eta, larrixena, belarriko miñik sentidu barik. ProCesua eta pereCia die horreittako adibide batzuk (ez bakarrak, jakiña).

Etxian entzun nittuen lehelengo, alaba nerabiaren agotan, eta "ama, lasai, hola ibiltzen die" esan eusten, eskuak burura neroiela eta begiak zuluetatik urtenda letxe, uluka hastekotan nitze-la somau auenian.

Oin dala gutxi arte, gazte jentiaeren gatxa zala nungen sinistuta. Ez, ba! Oker nungen! Bizixenaren (minbizixaren) pare zabaldu da, hainbesteraño ze, maistra euskaldun zahar basarritar peto-peto bati be entzun dotsat.

Neure buruagaz burrukan nabil: zer egin, Marimaistrak dixuen moduan "Euskararik onena, hitz egiten dena" dala besterik barik onartu?

"Gazte jentiaeren gatxa zala nungen sinistuta"

Emakumeak eta lidergoa berba, etzi kultura etxean

Eguazten honetan, azaroak 6, emakumeak eta lidergoa hizpide izango dituzte kultura etxean, 18:00etan hasita. Hain zuzen ere, *Estrategias para el liderazgo de las mujeres: ¿Tenemos las gafas de género?* izeneko berbaldia antolatu dute. Murgibe taldekoak izango dira berbaldia emango dutenak.

Seigarren mailako neska-mutikoak *Hansel eta Gretel* ipuina antzeztu aurretik. | L.Z.

ELGETA

Mamu baten prakak erreta, Elgetan uxatu dituzte munstroak gutxienez urtebeterako

Seigarren mailako ikasleen eskutik jokoak eta antzerkia egon ziren Arimen Gauean; ilundutakoan etorri zen taldean hilerri ingurura egindako irteera



Seigarren mailakoek prestatuta jokoak izan zituzten umeek arratsaldean. | L.Z.

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Arimen Gaua egin dute aurten Elgetan Halloween-ek herrian hartu duen indarra lehengo ohiturak berreskuratzera bideratuz, eta egunean arratsalde polita igaro zuten. Seigarren mailako ikasleek askotariko jokoak eta eskulanak antolatu zituzten eskolako ganbaran bide batez ikasturte amaierako ikas-bidaiarako dirutxo bat ateratzeko.

Arratsaldea jolasean eta dantzan eman ostean *Hansel eta Gretel* ipuina antzeztu zuten. Ehun bat lagunaren aurrean egin zuten antzezpena, eta esan beharra dago lan txukuna izan zela bai antzezpen mailan zein atrezko kontuei dagokienean.

Irteera hilerriara

Iluntzean beste tonu bat hartu zuen ospakizunak. Linternak eskuan hilerri ingurura abiatu ziren haurrak eta nagusiak. Mamuak egon badaudela ikusi ondoren, eta susto bat baino gehiago hartu ostean mamu baten prakak aurkitu zituzten. Herriko plazan erre zituzten. Horrekin urtebetean gutxienez ez da Elgetan mamurik ibiliko.



Hilerri inguruan aurkitutako praka batzuk erre zituzten Herriko plazan. | L.Z.

ANTZUOLA

Bihar amaituko da peoi lanerako eskari-orriak aurkezteko epea

Langabeek egin dezakete obra eta instalazio publikoen mantentze-lan posturako eskaria

IURE EIZAGIRRE | ANTZUOLA

Udalak obra eta instalazio publikoak mantentzeko brigadako peoi bat kontratatatzeko prozesua jarri zuen martxan duela bi aste. Euskal Enplegu Zerbitzuan langabe moduan izena emanda dauden pertsonak bakarrik dute eskariak egiteko aukera eta bihar amaituko da eskari-orriak aurkezteko

epea. Udaletxean bertan egin behar da eskaria.

Bihar baino lehen eskaria aurkezten dutenek hainbat ariketa gaintu beharko dituzte eta lehen tasun irizpideen arabera puntuazio handien duenak eskuratuko du lanpostua. Baldintzak betetzen dituzten gainerakoek itxaron zerrenda osatuko dute.

Bada, Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiaren bitartez eskainitako lanpostua bost hilabeterako izango da.

Txalaparta ikastaroa

Aste honetan amaituko da txalaparta ikastaroan izena emateko epea. Hain zuzen ere, instrumentu hori jotzen ikasi nahi dutenek eguena bitartean eman beharko dute izena udaletxean, 943 766 246 telefono zenbakian edo kultura@antzuola.net helbide elektronikoan.

Ikastaroa azaroko zapatuetan emango dute, hilaren 9an hasita. Goizez izango dira saioak, 11:00etatik 13:30era, gartzetxean.

ARAMAIO

Udalak elkartasuna adierazi die Fagor Etxetresnetako langileei

Joan den eguneko osoko bilkura atzeratu egin zen Arrasateko manifestazioarekin bat egiteko

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Fagor Etxetresnen egoerak eragin zuzena du Aramaion ere. Datu esanguratsu bat da 62 bazkide aramaioar dituela kinka larrian dagoen kooperatibak. Joan den egunean Arrasaten egin zen manifestazioarekin bat egin zuen Udalak eta horregatik egun horretarako aurreikusita zegoen ohiko osoko bilkura atzeratzea erabaki zuten: "Aramaio Udalak bat egiten du Fagor Etxetresnak kooperatibak bizi duen egoerarekin eta gaurko [egunerako] deituta dagoen manifestazioari babesa ematen dio". Eguen honetan egingo da osokoa, 18:30ean.

Fagor Etxetresnetako langileei elkartasuna adierazi gura diete, izan ere, bat egiten dute

mugimendu kooperatiboaren oinarrian egon diren elkartasun printzipioekin: "Udalak konfiantza osoa du oraingoan ere printzipio horiek aplikatuko direla, egoera larri honi irteera emateko eta ahalik eta lanpostu gehien bermatzeko".

Espainiako bandera, osokora

Eguneko osoko bilkuran hainbat gai jorratuko dituzte. Nabarmendu beharreko gaien artean dago Espainiako banderaren auzia. Udalbatzak erabaki egin beharko du bandera gorri-horia jartzearen "inposaketaren" aurrean zer egin. Herritarrekin egindako bileran adostu zen Ikurrinari omenaldia egitea eta herrian bizi diren nazionalitate guztien banderak jartzea.

Txirritola elkarteak antolatuta, Txirripartxis lehiaketaren 14. edizioa ospatuko dute domekan

Txirritola euskara elkartearen eskutik Txirripartxis lehiaketaren 14. edizioa ospatuko da domekan, hilak 10, udaletxeko osoko bilkuren aretoan. 6 urtetik 14 urtera artekoak 16:00etan hasiko dira eta 15 urtetik gorakoak, berriz, 17:30ean. Sariak ere adinaren arabera banatuko dira: 6 urtetik 14 urtera artekoetan lehenak 30 euroko txartela jasoko du eta bigarrenak, berriz, 20 eurokoa. 15 urtetik gorakoetan, ordea, lau onenak sarituko dituzte: 50 euroko txartela, 40 eurokoa, 30 eurokoa eta 20 eurokoa jasoko dute lehen lau sailkatuek, hurrenez hurren.

LEINTZ GATZAGA

Ordenantza fiskalak aztergai, osoko bilkuran


UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Besteak beste, datorren urteko ordenantza fiskalak (zergak) landuko ditu udalbatzarrak gaurko (astelehena) osoko bilkuran. 18:30ean egin dute batzarreko hitzordua, eta publikoaren denez, interesa duen edozein joan daiteke bertara.

Liztor beltza, suntsituta

Bestalde, joan den astean liztor beltzaren habia bat atzeman

zuten, Dorletarako bidetik ikusten zena, zuhaitz batean zintzilik. Udal ordezkariak berehala abisatu zieten suhiltzaileei, Leintz Gatzagara joan eta huraren kezaten; baina habiaren kokapenaren ondorioz, suhiltzaileek ezin izan zuten ezer egin. Halako kasuetan protokoloak esaten duenarekin egin zuten aurrera, eta horrenbestez, tiroka suntsitu zuten liztor beltzaren habia.



Liztor beltzaren (asiatikoa) habia, zuhaitzean. | JUAN LUIS ZABALA

Zorionak, denoi!

Hauk dira Goiena Klubeko urriko zozketetako irabazleak



Baserrisarea.com-ek emandako otarrak

Miren Bengoa Leibar (Arrasate)
Ines Elortza Iriarte (Bergara)
Maite Arana Osinaga (Arrasate)
Julian Errasti Azurmendi (Arrasate)



Arrikrutzerako sarrerak

Luis Azkarate Retolaza (Bergara)
Amaia Arana Beitia (Arrasate)
Ihart Bilbao Muguruza (Bergara)



Harreman dendako otarrak

Asier Bergaretxe Leibar (Arrasate)
Angel Agirreazaldegi Gallastegi (Zarautz)



REALEKO EKIPAMENDUA

Ainhoa Velez
Azkarretazabal
(Aretxabaleta)



Pamielako liburu sorta

Cristina Atxa Gallastegi (Bergara)
Jasone Barandiaran Osuna (Eskoriatza)
Floren Arana Barandiaran (Arrasate)



Paradisua eta katuak DVDa

Mikel Sologaitoa Biain (Oñati)
Roberto Irizar Auzolai (Oñati)
Bilaitz Marzan Usandizaga (Bergara)



Azken Egunak Gurian DVDa

Idoia Moreno Zubikarai (Bergara)
Jon Balentziaga Larrañaga (Bergara)
Loreto Anduaga (Aretxabaleta)

SARIAK JASOTZEKO:

Arrikrutzeko sarrerak. Goiena klubeko txartela erakutsita, bina sarrera izango dituzue Arrikrutzeko txarteldegian. Sarrerak 3 hilabeteko epe muga izango dute. ARRIKRUTZ KOBAK. Araotz Auzoa, OÑATI. 943 08 20 00. Orduetgia: Asteartetik Igandera 10:00 - 17:00

Realeko ekipamendua: Jo zuzenean, bazkide txartelarekin, Arrasaten San Andres auzoan dagoen Loramendi Kirolak kirol dendara.

Harreman dendako otarrak. Otarra jasotzeko, jo zuzenean, bazkide txartelarekin, Harreman dendara. Arrasateko Eroski hipermerkatuaren sarreran duen dendara. **Beste sariak.** Saria jasotzeko zatoz GOIENAREN Aretxabaletako bulegora.

Saria jasotzeko, BAZKIDEAREN TXARTELA erakutsi edota BAZKIDE ZENBAKIA jakitera eman beharko da.

GOIENA. Basabe poligonoa E-0-5 (Araba Ibilbidea) Aretxabaleta. 943 25 05 05
Orduetgia: Astelehenetik eguenera: 09:00 - 18:00. Egubakoitzetan: 08:00 - 14:00.



goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

KIROLA



Gartzia, helmugara iristen. | JOSETXO ARANTZABAL



Aitziber Urkiola, beste korrikalari biren alboan. | ANDER LARRAÑAGA



Korrikalari talde bat, Osintxu pasatu berri. | ANDER LARRAÑAGA

ATLETISMOA

Gartzia irabazle berriro ere, iazko denbora gainditu gabe

425 korrikalari inguru egon dira aurtengo Antxintxika lasterketan

ANDER LARRAÑAGA | BERGARA

Zapatu arratsaldean egin zuten Antxintxika krosetako IX. edizioa Soralue eta Bergara artean, Bergarako Antxintxika Triatloi Taldeak antolatuta.

Hiru modalitatetan lehiatu ziren: gorpildun aulkikoak *handbike*-an, patinetan eta korrikan. Hala ere korrikalariak gailendu zirela azpimarratzekoa da: guztira 425 parte-hartzaile inguru

izan ziren, korrikalariak 365 inguru, 50 patinatzaile eta 8 elbarrri *handbike*-an. Irabazle zein sari desberdinak egon ziren modalitate eta mailaren arabera; izan ere, modalitate eta maila bakoitzean bergarar zein soraluzezar onenek sari berezia jaso zuten.

Korrikan, Dabid Gartzia durangarra, gizonetakoetan, eta Aitziber Urkiola eibartarra, emakumeetakoetan, izan ziren garaile

aurtengo Antxintxika krosetan. Debagoiendar onenei dagokienez, senior mailako Endika Donnay arrasatearra hirugarren geratu zen eta Itziar Aldekoa bergararrak emakumeetakoetan bigarren postua eskuratu zuen. Azken honek inork baino sari gehiago eraman zituen: lasterketa orokorreko bigarren emakume onenaren saria, emakume beterano onenarena eta emakume bergarar onenarena.

Emakumeak %20a

Emakumeetako parte-hartzaile txalotzekoa izan da aurtengo ere. Aitor Rementeria Antxintxika Triatloi Taldeko presidentea azaldu duenez, Euskadi mailan emakume gehien parte hartzen duten txalotzeta da Antxintxika lasterketa: parte-hartzaile guztien %20 inguru emakumeetakoak izan ohi dira eta aurtengo ere hor bueltan ibili da.

Hamar km-ko ibilbide polita

Antxintxika kroseta Soraluez hasi eta Bergarako plazan amaitzen da: ibilbidea bidegorritik egiten da, Osintxutik pasatuz.

Parte-hartzaileek balorazio positiboak egin dituzte 10 km-ko ibilbidearen inguruan. Emakumeetakoetan irabazle izan zen Aitziber Urkiolak azaldu zuenez "ibilbide oso polita izan da eta ez du euririk egin. Hala ere, momentu batean bero larregi egin du".

Asko Behobiara doaz

Domekan izango da askorendako lasterketa garrantzitsua: Donostia Behobia. Behobiara begira euren markak non egon daitezkeen jakiteko balio izan zitzaizkien askori zapatukoak, entrenamendu moduan, hain zuzen.

Argazki galeria: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



LEIRE FERNANDEZ BERGARA



"Duela hilabete hasi ginen koadrilakoak entrenatzen. Aurreko astean Eibarren lasterketa bat egin genuen entrenamendu modura".

BEÑAT GOYA LEZO



"Arratsalde pasa polita egin dugu. Lasterketa oso polita izan da. Orain maratoni pila bat datoz eta datorren urtean ere hona etortzeko asmoa dut".

ANE ETA SARA BERGARA



"Indarrak hartzeko poliki hasi dugu lasterketa. Erdetik aurrera indarrak genituela ikusita eta herritarren animoekin, erritmo azkarragoa hartu dugu".

ANE PLAZAOLA AZKOITIA



"Donostia Roller taldeko kidea naiz eta lehenengo urtea da niretzat. Patinetan irabazle izan naiz eta oso pozik nago. 2014an errepikatzeko asmoa dut".

MIKEL LASA ANTIXINTXIK TALDEKO KIDEA



"Antolakuntza aldetik lan ona egin dugula uste dut. Eguraldiak gainera lagundu du, hala ere, parte-hartzaile asko kexatu dira bero apur bat egin duelako".



Korrikalari talde txiki bat, helmugara iristear daudela. | JOSETXO ARANTZABAL



Handbike-ko parte-hartzaileak, irteeran prest. | ANDER LARRAÑAGA

Haurrak ez ziren atzean geratu

Haurrek ere izan zuten non igaro arratsaldea: Bergara herrian bertan korrika egiteko ibilbide laburrago bat egin zitzaizen txikienei ere.

Adin desberdinetako korrikalariak bultzatzea izan da honen helburua, eta, bide batez, txikitatik erakustaraztea kirola egitea zein garrantzitsua den. Honekin batera nahi izan da, norbanakoaren gainditzea, lehiakortasuna, asebetetzea eta esfortzuaren ordaina bezalako aspektuak txikiaren artean garatzea. Aldi berean halako lasterketak nolakoak izaten diren gertutik ikusteko aukera izan zuten.

Sexu eta mailaka sailkatu zituzten eta hauek, nagusiek bezalaxe, saria jaso zuten.



Lasterketan parte hartu zuten haur batzuk, azken txanpan. | J. ARANTZABAL

JON GALARRAGA


BIDANIA-GOIZATZ



"Etortzen naizen bigarren urtea da eta *handbike*-an lehenengoa izan naiz aurten. Ibilbidea paregabekoa da eta eguraldi ezin hobea tokatu zaigu aurten".

ENDIKA DONNAY

ARRASATE



"Hirugarren postua eskuratu dut eta honek indarrak eman dizkit datorren asteko Behobia maratona egiteko. Oso pozik nago emaitzarekin".

AITOR REMENTERIA

ANTXINTXIKA TRIATLOI TALDEKO LEHENDAKARIA




"Oso pozik gaude, ez da inongo ezbeharririk gertatu. Jendeak balorazio oso positiboa egin du eta ibilbidea asko gustatu zaie parte-hartzaileei".

DABID GARTZIA

LEHEN GIZONEZKOA

"Laugarren urtez jarraian lasterketa bat irabaztea itzela da niretzat"

laz baino denbora apur bat gehiagorekin irabazle bilakatu zen Dabid Gartzia durangarra. Hala, datorren urtean berriz ere irabazteko desioa agertu du Gartziak.



Zorionak laugarren aldiz! X. edizioan, bosgarren txapela eramateko intentziorik? Gustatuko litzaidake, egia esan. Laugarren urtez jarraian lasterketa bat irabaztea itzela da niretzat eta bosgarrena irabaztea ere ez litzateke gaizki egongo.

Zer moduzkoa izan da lasterketa?

Berandu iritsi gara eta bertze astirik ez dugu izan ia. Horregatik hasieran nahiko astiro joan naiz. Ondoren, neurre erritimoa ipini dut eta helmugara bakarrik iritsi naiz.

Behobia egiteko asmorik?

Aurten ez dut Behobia egingo. laz laugarren geratu nintzen eta deskantsatu egingo dut.

AITZIBER URKIOLA

LEHEN EMAKUMEZKOA

"Behobiara noa eta prestaketa moduan hartu dut Antxintxika krosa"

Pasa den urteko edizioan ere txapela eraman zuten emakumeen artean, nahiz eta aurten, lasaitasunez hartu duen Antxintxika krosa Eibarko Triatloi Taldekoak.



Zorionak Espero al zenuen garaipena? Ez nuen espero egia esan. Aste osoa gaixo igaro dut eta lasterketa amaitzera etorri naiz. Azkar samar joaten ahalegin du nahiz, baina, pasa gabe aldi berean. Emaitzarekin pozik nago, nahiz eta iazkoa baino kaskarragoa izan. Datorren astean Donostia Behobiara noa eta prestaketa moduan hartu dut Antxintxika krosa.

Errepikatzeko asmorik?

Bai, asko gustatzen zait lasterketa hau. Aurreko bi urteetan aritu naiz eta iaz ere irabazle izan nintzen. Hala ere, lehendabizi negua dator eta aurten beste kros, duatloi zein triatloiak egiteko asmoa dut.

ANTXINTXIKAKO SAILKAPENA

KORRIKA

GIZONEZKOA

1. **Dabid Gartzia** 0:33:53
2. **Unai Hernandez** 0:34:46
3. **Endika Donnay** 0:35:04
4. **M. Berrizbeitia** 0:35:27
5. **Gotzon Zulaika** 0:35:33
6. **Xabier Garate** 0:36:15
7. **Imanol Oiarbide** 0:36:17
8. **Asier Aranburu** 0:36:19
9. **Jabier Irazabal** 0:36:26
10. **Ekaitz San Vicente** 0:36:42

KORRIKA

EMAKUMEZKOA

1. **Aitziber Urkiola** 0:41:23
2. **Itziar Aldekoa** 0:43:27
3. **Arantza Beitia** 0:44:10
4. **Ane Ziaran** 0:44:38
5. **Marijo Elkoro** 0:44:50
6. **Amaia Bernal** 0:44:57
7. **Saioa Ugidos** 0:45:19
8. **Aitziber Gomez** 0:46:09
9. **M^a Rosa Aguirre** 0:46:29
10. **Idoia Aranguren** 0:46:30

ROLLER

1. **Nicolas Alonso** 0:20:49
2. **Enrique Leiva** 0:20:49
3. **Sergio Uriarte** 0:20:51
4. **Igor Perez** 0:20:56
5. **Iñaki Zubillaga** 0:21:05
6. **Carlos Jimenez** 0:21:39
7. **Unai Perea** 0:22:26
8. **Ane Plazaola** 0:22:29
9. **Aitor Lujua** 0:22:36
10. **Xabier Aranburu** 0:22:39

HANDBIKE

1. **Jon Galarraga** 0:22:04
2. **Imanol Martinez** 0:22:11
3. **Igor Elizburu** 0:23:27
4. **Aingeru Semper** 0:23:27
5. **J. Antonio Iglesi** 0:31:49
6. **Ione Basterra** 0:38:39
7. **Pierre Miura** 0:41:52
8. **Mikel Goikoetxea** 0:43:40

Oharra: Sailkapen osoa ikusi ahal izateko jo kirolprobak.com atarira

OHOREZKO ERREGIONALA

Aloñak gehiago egin zuen irabazteko, intentsitate eta lehia handiko derbian

- ▶ Asier Ugarte aurrelariak egin zuen partiduko gol bakarra jokaldi polemiko baten ostean
- ▶ Bigarren baloietan nagusi izan ziren etxekoak; bergararrek, ordea, ez zuten eguna izan

EMAITZA

ALOÑA MENDI

1-0

BERGARA

FITXA TEKNIKOAK

Aloña Mendi: Agirre, Olalde, Ruiz, Joseba Irizar, Lazkano, Garmendia, Gaizka Irizar (Juaristi, 64. min), Ugarte (Uribeetxeberria, 82. min), Zubia, Zelaia (Moreno, 80. min) eta Lizarra (Bikuña, 62. min).

Bergara: Soto, Urrutia, Elorriaga (Retes, 60. min), Nafarrate (Diaz, 70. min), Iñurrieta, Oregi (Beitia, 68. min), Crespo, (Baltzategi, 55. min) Aranburu, Ibarluzea, Ilzarbe (Hernandez, 55. min), Macho.



Iker Olalde kapitaina goitik bereziki seguru aritu zen atzo. | JOSETXO ARANTZABAL

IKER OLALDE
ALOÑAKO JOKALARIA

"Bigarren baloietan hobeto ibili gara; hori izan da gakoetako bat"

Garaipena "beharrezkoa" zela-eta, garaipenarekin pozik zegoen oñatiarren kapitaina.

Ondo izerditu behar izan duzue garaipena lortzeko.

Lan handia egin dugu eta orokorean partidu ona irten zaigu, gustura gaude.

Justua izan da garaipena?

Nire ustez bai. Zelai erdiko jokia izan da nagusi, partidu gogorra. Aloña Mendi gehiago heldu da eta lan gehiago egin du partidu irabazteko. Bigarren baloietan hobeto ibili gara; hori izan da gakoetako bat.



JOKIN BEREZIARTUA

ERIK ARANBURU
BERGARAKO JOKALARIA

"Gola egiten duen lehenak irabazten ditu halako partiduak"

Bergarako erdilariak aitortu zигun taldeak ez zuela bere maila eman.

Gaur ez duzue eguna izan.

Ez. Hemen partiduak oso borrokatuak izaten dira eta goiko baloiek izaten dira nagusi. Gola egiten duen lehenak irabazten ditu halako lehiak.

Bigarren zatian hobetu arren ez da nahikoa izan, ezta?

Hobetu dugu bai, baina ez dugu aukera gehiegi sortu. Ez dugu irabaztea irabazi baina eurek ere ez dute larregi egin. Emaitza justuena berdinketa izango zen, nire ustez.



J.B.

JOKIN BEREZIARTUA | OÑATI

Aloña Mendik ondo izerditu behar izan zuen Bergara mendean hartzeko. Derbi baten ohiko osagaiak izan zituen atzoko partiduak ere: lotutako jokaldi gutxi, intentsitate handia eta polemika. Hobeto aritu ziren oñatiarrak, igarri zen etxean jokatzeko zutela.

Polemikarako jokaldia 9. minutuan heldu zen. Epailearen eta marrazainaren artean ez ziren ados jarri eta Asier Ugarteren gola euren artean hitz egin ostean

igo zen markagailura. Bergarakoek jokoz kanpo eskatu zuten; hasieratik saltsa izan zen Azkoagainen. Golaren ostean beste zenbait aukera izan zituzten Andoni Azkargortaren mutilek. Lehen zatian sendoago aritu ziren etxekoak, zelaiaren hobeto jarrita. Baloien jabe izan ziren orokorean eta eurenak aukera gar-

bienak. Bergarak, berriz, arazoak izan zituen atzealdean; hala ere, ez zuen larregi sufritu.

Emozioa amaieran

Bigarren zatia hasi eta gutxira, erasoko jokia hobetu nahian, Baltzategi eta Hernandez zelairatu zituen Aitor Arratek. Maila handiko jokalaria dira biak,


baina atzo ez zuten eguna izan. Nahi eta ezin; Bergarak erasoan hainbat baloi galdu zituen oñatiarren atera arinegi heldu nahi izateagatik. Kontraerasoan Aloña Mendik izan zituen aukerak partidu erabakitzeke. Garbiena 80. minutuan heldu zen: Aritz Gar-

mendiak, atezainik egon ez arren, gora bidali zuen baloia; behartuta heldu zen. Partidua ez zuten erabaki eta bizirik heldu zen Bergara azken minutuetara; Hernandezek izan zuen, baina larregi gurutzatu zuen baloia. Garaipen justua etxekoendako.

FUTBOLA

310 futbolari aurkeztu zituen Aloña Mendik egubakoitzean

2013-2014 denboraldiko aurkezpena egin zuen Aloña Mendik egubakoitzean. Federatu mailan 11 talde ditu aurten klubak, zortzi mutilenak eta hiru neskenak, 200 federatuek gain, futbol eskolakoak -9, 10 eta 11 urte- ere izan ziren Azkoagainen. Teknikari eta laguntzaile moduan, berriz, ia 40 lagun dabilza.



ANTXON GARMENDIA

OHOREZKO ERREG.

Merezitako garaipena lortu du talde aretxabaletarrak

Bost gol sartu zituen UDAk, hiru euren eta gainontzeko biak talde azpeitiarrarendako

ANDER LARRAÑAGA | ARETXABALETA
Atzo lehiatu ziren Aretxabale-tako UDA eta Azpeitiako Lagun Onak taldeak, Aretxabale-tako Ibarra futbol zelaian eta 3-2ko emaitzarekin amaitu zen partidua.

UDAKo entrenatzailea den Alberto Albistegik azaldu duenez ozta-ozta ibili ziren berdegunean 90 minutuetan zehar. Azpeitiarrek aukera gutxi izan zituzten, baina, hala ere, Aretxabale-tako defentsari eusten jakin zuten. Izan ere, Lagun Onak taldearen bi golak talde aretxabaletarrak bere atean sartutakoak izan ziren, euren zoritxarrerako.

Markagailuan 1 eta 2koarekin iritsi ziren atsedendira Ibarra, baina, honek ez zuen UDA burumakur ipini, goiari eusten jakin izan zuen gainontzeko minutuetan zehar. Bina berdinduta zeu-

dela 90. minutuan azken gola sartu zuen UDAk eta honek sailkapenean gorantz egiteko txartela eman zion taldeari.

Taldearen "borrokarako jarrera" eta norgehiagokari eusteko gaitasuna goraipatu nahi izan zituen Albistegi entrenatzaileak, "merezitako garaipena" izan zela azpimarratuz. Aurrera jarraitzen laguntzeko giltza izan zen atzoko partidua Aretxabale-takoendako.

UDA 15. postuan

Atzo arte azken postuan kokatzen zen talde aretxabaletarra, azpeitiarrek aurretik edukita, baina atzoko lehiak aldaketa positiboa eragin du UDArengan: zazpi punturekin, 15. postua eskuratu zuen. Aldi berean, Lagun Onak taldea azken postuan kokatu zen atzoko porrotarekin.

ESKUBALOIA



Ekaitz Aranburuzabala Ford Mugarriko atezaina jaurtiketaren zain. | JOSETXO ARANTZABAL

Bigarren zatiko beheraldiarekin, erraz irabazten joatetik, berdintzera

Tolosa hartu zuen etxean Ford Mugarrik eta arrasatearrak gehiago izan ziren lehen zatian, baina bigarrenean kanpotarrak hobeto aritu ziren ate aurrean

IRATI GOITIA | ARRASATE
Lehenengo Mailako 7. jardunaldian, berdinketarekin konformatu behar izan du Ford Mugarrik (29-29). Tolosa hartu zuten etxean domeka goizean. Lehen zatian etxeokak hobeto aritu baziren ere, bigarren zatia izan zen erabakigarria eta Gartziazen mutilek ezin izan zioten atsedendira lortutako abantailari eutsi.

Lehen zatian arrasatearrak

ondo ibili ziren; nabarmenezkoa, Ekaitz Aranburuzabala atezaina. Gelditu asko egin zituen eta, hala, Gartziazen mutilek aurrea hartu zuten lehian. Atsedendira 16 eta 9 irabazten joan ziren.

Tentsioz betetako uneak

Bigarrenean, baina, arrasatearrak ez ziren hain fin ibili atearen aurrean. Hala, kanpotarrek poliki-poliki markagailua berdintzea

lortu zuten: 22. minutuan, 24-24. Ondorioz, azken minutuak tentsioz betetakoak izan ziren. Ford Mugarrikoek azken erasoan (29-29 zihozen) penaltia huts egin zuten. Tolosarren eskuetan gelditu zen baloia azken segundoetan, baina horiek ere huts eta etxeok berreskuratu eta kontraerasora jo zuten. Aurkariaren arean falta, erlojuaren txistuaz batera. Ezin gola egin eta 29-29.

Azken momentuko golak eman zion garaipena Soraluzei

ANDER LARRAÑAGA | BERGARA
Egubakoitzean lehiatu ziren Soraluze BKE-koak Escolapios talde bilbotarrarekin Euskadiko Eskubaloia Txapelketan.

Partidu gazi-gozoa izan zen talde bergararrarendako: hasiera traketsa egin zuen baina 29-28ko emaitzarekin lortu zuen garaipena azken momentuan.

Lehenengo hiru puntuak lortzea ez zitzaion zailegi egin Bergarakoei, baina, bilbotarrak lehenengo zatiko jaun eta jabe izan ziren 9 puntu aurretik atezaina. Ezinean ibili zen Soraluze BKE taldea; lehen zatia amaitzerako, kontraeraso sendo bati esker hurbildu ziren Escolapiosekoengana markagailuan.

Azken gol erabakigarria

Bigarren zatian kontraerasoari eutsi zioten bergararrek. Berdinduta ibili ziren momentu oro, baina, Bergarako taldeak aurre hartu zuen partida amaieran.

Partidua amaitzear zegoela Bilbokoek berdinketa lortu zuten, baina, Soraluze 20 segundo falta zirela azken gola sartu zuen.

TXIRRINDULARITZA

Mikel Aristi: "Derrepente esaten digute ezetz eta ilusioa pikutara doa"

JULEN IRIONDO | ARRASATE
Triste antzeman zitekeen Euskadi Fundazioko txirrindulari bergararra Kontinental mailako taldea ateratzeko Ner Groupekin bideratuta zirudien akordioa gauzatu ez ostean. Txirrindulariek atera zuten oharrarekin ez zutela inoren kontra egin nahi dio, eta Euskadi Fundazioarentzat eta Migel Madariagarentzat bera onak baino ez dituela.

Gauzak gertatu diren modua ez du gustuko Aristik: "Pertsonak

gara. Irtetzen da albiste bat eta ilusionatu egiten gara, eta derrepente esaten digute ezetz eta ilusioa pikutara doa". Eurengana inor ez dela zuzendu ere badio.

Akordiorik eza ezagutu zenean ohar bat plazaratu zuten Euskadi Fundazioko txirrindulariek. Bertan adierazi zuten, besteak beste, Jon Odriozola "botata" utzi dutela -eskatzen zioten baita ere ez zezala amore eman-: "Gure helburua ez da izan inori ezer aurpegiratzea, baizik eta esatea

Jon lur jota dagoela, ematen zuela salbatu egin behar gintuela, eta saiatu nahi genuen Ner Groupek edo dena delakoak erabakia birpentsatu zezan".

Euskadi Fundazioarentzat eta Migel Madariagarentzat berba onak ditu: "Eurek egin dute ahal zuten dena, baina gauzak ez daude erraz. Nik Fundazioari eta Migeli bakarrik eskerrak eman diezazkieket; nirekin oso ondo portatu dira beti eta eurie esker eduki dut aurtengo urte hau".

Azaroa erdira arteko epea dago 2014rako Kontinental mailako taldea ateratzeko. Aristik ez du oraingo ez, baina dio ez duela itxaropenik galtzen.



UDAK gelditutako baloia. | JOSETXO ARANTZABAL

Beti Gazte talde lesakarraren aurka 2 eta 1 galduta, hirugarren porrota jarraian Antzuolarendako

Joko polita eskaini zuen Antzuolako taldeak zapatuan Lesakan jokatu zen norgehiagokan, baina, ez zuen lortu bertako taldea menderatzea. Gol aukera batzuk izan zituen Antzuolak, baina, ez zituen aprobetxatu eta 0-1 atzetik ziren atsedendira. Bigarren erdian Zabala arrasatearrak berdinketa lortu zuen; azkenean, Beti Gazte garaipena eman zion azken gola sartu zuen.

Partidu onik egin ez arren garaipena lortu zuen Mondrak Azkoitian, Xabi Arrizabalagaren golarekin

Ez Anaitasunak ez Mondrak ez zuten joko onik egin Erregional Preferenteko lehian. Baloi luze asko izan zituen partiduak, eta oso fisikoa izan zen. "Emaitzarik justuena berdinketa zatekeen", zioen Gotzon Urtzelai Mondrako entrenatzaileak. Arrasatearren zorionerako, baina, norgehiagoka amaitzeko lau minuturen faltan gola egin zuen Xabi Arrizabalagak, bateko eta besteko hutsak aprobetxatuta. Sailkapen erdian dago Mondra.

Pauldarrak talde liderraren aurka 0 eta 10 galduta, azkenak izaten jarraitzen dute Mondrako neskek

Emakumezkoen bigarren mailako zazpigarren jardunaldiaren baitan, egubakoitzean Mondrako neskek Pauldarrak talde liderra hartu zuten Mojategin. Gol aukera izan zuten hasieran arrasatearrek baina ez zuten aukera aprobetxatu eta kanpoko taldea gailendu zen partidu osoan. Aipatzekoa da, aldaketa guztiak eginda, Mondrako jokalaririk bat lesionatu zela bigarren zatian eta bat gutxiagorekin jokatu behar izan zuela talde arrasatearrak.

MOTOR LASTERKETAK

Abasolok ezin txapela jantzi, baina bigarren postu ona lortu du enduroan

- ▶ Espainiako Txapelketako azken proba eta sailkapen orokorra Borja Nietorentzat izan dira
- ▶ Arrasateko pilotuak arazoak izan zituen Bartzelonan motorrarekin, hautsa sartu eta

JULEN IRIONDO | ARRASATE

Bi egunetan jokatu da Bartzelonan Espainiako enduro txapelketako azken proba, eta bietan bigarren egin du Xabi Abasolo arrasatearrak, lehia hasi aurretik sailkapen orokorreko lidertzan berekin puntuetara berdinduta lehen postuan zegoen Borja Nietoren atzetik. Ondorioz, hurrenkera horretan amaitu dute sailkapen orokorrean ere.

Lasterketaren amaieran oso pozik zegoen Abasolo denboraldiak emandakoarekin –cross country-an Espainiako txapeldun eta enduroan bigarren–, nahiz eta pena izan azken unera arte hortxe edukitako garaipenak ihes egin izanagatik: "Denboraldi hasieran ez nituen halako emaitzak espero", zioen.

Asteburuan, ordea, ezin izan du urtea borobildu. Hauts asko omen zegoen egin beharreko ibilbideetan, eta arrasatearrak arazoak izan zituen motorrarekin: "Zapatuan hauts asko sartu zitzaion motorrari, eta domekan huts egiten hasi zen, gero eta gehiago; geratu egiten zen. Saiatu naiz nola edo hala bigarren postua mantentzen, eta lortu dut", zioen Abasolok.



Xabi Abasolo, asteburuan Bartzelonako proban. | XABI ABASOLO

Esker oneko hitzak zituen bere taldeko –Sherco– laguntzailentzat, motorrarekin arazoak izan dituen momentuetan emandako laguntzagatik: "Gainean egon dira denbora denean".

Ibilbidea egoera txarrean

Hautsarekin izandako arazoa ez zen, baina, Abasolorena bakarrik izan: "Ibilbidea oso gaizki zegoen, hautsarekin ez zen ezer ikusten, arriskutsua zen eta domekako

saioa bertan behera uztekoan izan ziren". Antolatzaileek kexa asko jaso zituztela ere bazioen, eta motor asko puskatu zirela hautsaren ondorioz. Bertan behera ez zuten utzi –beteranoen las-

terketa bai–, baina ibilbideak moldatu egin zituzten, erdira moztuz, gutxi gorabehera.

Hautsarekin arazorik izan ez zuenetako bat bere aurkaria izan zen: "Nietori asteburu borobila atera zaio". Eta, ondorioz, haren-tzako Espainiako txapela.

Bartzelonakoarekin amaitu du pilotu debagoiendarrak aurtengo denboraldia. Orain hilabete-ko atsedena hartuko omen du, datorren urtean cross country-an eta enduroan lehiatzeko berriz ere, asmo onenekin gainera, motor berrira oraindik hobeto egokitzea espero du-eta. Denboraldia aurrera zihoala, aurrez entrenamenduetan egokitze lan hori egiteko denborarik gabe hartu du aurten motor berria, eta haren errendimenduari oso gustura egon arren, hurrengo denboraldian probetxu handiagoa atera die-zaiokeelakoan dago Abasolo.

Motor ona badu, beraz, eta taldearen konfiantza ere bai: "Datorren urtean ere Sherco taldearekin jarraituko dut. Atzo egon nintzen nagusietako batekin eta esan zidan oso-oso gustura daudela nirekin; ni ere oso pozik nago eurekin, oso ondo tratatzen naute", dio.

SASKIBALOA

La partidu denak parekatuak eta Bizkaia nagusi, neska eta mutiletan

- ▶ Infantil mailako selekzioen arteko Euskadiko Txapelketa jokatu da Oñatin
- ▶ Zale kopuru polita eta saskibaloia giro ederra izan da hiru egunez Zubikoan

JULEN IRIONDO | OÑATI

Nagusien mailan, EBA ligako saskibaloiarekin bi urtez gozatu ederra hartu eta gero, berriz ere harrobiko lanari lehentasuna ematea erabaki zuen aurreko denboraldi bukaeran Aloña Mendiko zuzendaritzak, eta herriko neska-mutikoen artean zaletasuna pizteko helburuarekin, besteak beste, selekzioen arteko infantil mailako Euskadiko Txapelketa Oñatira ekarri.

Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko selekzioen arteko lehiak ikusteko aukera izan da egubakoitzetik domekara Zubikoan, neska eta mutiletan, sei partidu guztira, eta maila polito saskibaloiarekin gozatzeko aukera izan dute harmailetan batutakoek –jokala-

rien senide eta lagunak asko, baina baita herriko eta bailarako zaleak ere–. Emoziorik ere ez da falta izan gainera eta, bat salbu –Bizkaia eta Arabaren artekoa, mutiletan–, partidu guztiak erabaki ziren azken unean, oso alde txikiekin.

Nesken arteko lehiak adibiderik garbiena: Bizkaia puntu bakarreko aldearekin irabazi zien bai Gipuzkoari eta baita Arabari ere; beraz, bi puntuk eman zieten azken garaipena bizkaitarrei. Araba eta Gipuzkoaren artekoa ere estu-estua izan zen, eta gipuzkoarrek irabazi zuten azkenean, bigarren postua lortuz. Mutiletan, Araba izan zen bigarren eta Gipuzkoa hirugarren.

Debagoiendar bakarra

Gogotsu ibili dira asteburu osoan erkidegoko selekzioetako jokalarri guztiak, eta ez zen gutxiagorako, ze Oñatin txapela jantzea bakarrik ez, Euskadiko selekzioen leku bat lortzea ere bazuten jokoan. Datorren astean hasiko dira entrenamenduak, urte hasieran jokatuko den Espainiako Txapelketara begira, eta denek nahi dute hor egon. Honela, behatzaileek ere ez da falta izan egunotan Zubikoako harmailetan.

Debagoienari dagokionez, ordezkari bakarra izan du txapelketan, Arrasateko Ointxen jokatzen duen Jon Zabaleta aretxabaletarra. Izan ere, Gipuzkoan Azpeitiko Iraurgik eta Donostiako taldeak dira oparoenak.



Gipuzkoako eta Arabako nesken selekzioak lehia. | JOSETXO ARANTZABAL

JON ZABALETA
GIPUZKOA



"Ondo egon da txapelketa. Pena izan da jokatutako bi partiduak galdu izana. Azkenean irabazle izan den Bizkaiairekin kontra 14 gora joan ginen eta azkenean galdu egin genuen, bi luzapen eta gero".

MARTA ALBERDI
BIZKAIA



"Kostatu egin zaigu baina irabazi egin dugu eta oso pozik. Gipuzkoarrek defentsa gogorra egin zuten eta oso zaila izan zen haien kontrako. Talde denek jokatutako dugu ondo, eta oso parekatuta egon da".

GIMNASIA ERRITMIKOA

Elena Lanuza | Dragoi gimnasia erritmiko taldeko entrenatzaileetako bat

"Gimnasia erritmikoa sustatzen jarraitu gura dugu; hori da taldearen helburu nagusia"

- ▶ Arrasateko Dragoi gimnasia taldeak 127 gimnastarekin hasi du denboraldia
- ▶ Txapelketak otsailean hasiko dituzte, eta orain gogor entrenatzen dihardute

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Elena Lanuza arrasatearra Dragoi gimnasia erritmiko taldearen entrenatzaileetako bat da. Txapelketetan lehiatzen diren taldeen ardura dauka Lanuzak: gimnasia erritmikoarena eta kirol aerobikoko taldearena. Azken horiek lan itzela egin zuten Madrilen jokatutako Espainiako kopan. Bi sari lortu zituzten. Dragoiko neskek aurtengorako dituzten helburuak eta taldea bera ezagutzeko egon gara Lanuzarekin, aurreko asteko entrenamenduan.

Egungo bost entrentzaileetako bat zara, baina gimnasta izandakoa zaitugu!

Bai hala da. 9 urterekin hasi nintzen gimnasia erritmikoan. Arantzazu Zubiaren aginduetara entrenatzen genuen. Bederatzi urteren ondoren, 18rekin entrenatzaile lanetan hasi nintzen. Egun 33 urte ditut. Bizitza osoa daramat Dragoi taldean.

Zu zeu zara txapelketetan lehiatzen diren taldeen arduraduna. Kirol aerobikoaren Espainiako kopan lan ederra egin zenuten.

Oso pozik gaude egindako lanarekin. Espainiako txapelketan egindako lanak eman zigun kopan parte hartzeko aukera. Helburu zehatz barik joan ginen. Emaitzak lortu barik, ondo pasa eta gure lana egitera joan ginen. Baina, presio barik lehiatzen zarenean, emaitzak lortzea errazagoa izaten da. Lan ona egin genuen. Ezustean harrapatu gintuen.

Dragoi taldearen bidez ezagutu dugu kirol aerobikoa. Nolako modalitatea da?

Nahasketa bat dela esango nuke: gimnasia artistikoa, gimnasia erritmikoa eta aerobikaren arteko nahasketa bat. Mugimenduzehatzak egin behar dira. Horiei indarra eta koordinazioa gehitu behar zaie. Taldekako koreografiaren koordinazioa oso inportantea da.

Entrenamenduetan beroketa saio intentsua egiten dugu, eta



Elena Lanuza, Dragoi gimnasia taldeko entrenatzaileetako bat. | MIREIA BIKUÑA

gero koreografiak errepikatzen ditugu, behin eta berriro. Mugimendu garbiak egin behar dira. Horrenbeste errepikapenekin aspertu ere egiten gara batzuetan [barreak].

Hemendik kanpo nolako erantzuna dauka modalitate honek?

EAEn hiru klubetan lantzen dugu. Espainia mailan hedatuago dagoen diziplina da. Espainiako txapelketetan maila ona ikusi izan dugu. Horrek erakusten du taldeen inplikazioa geroz eta handiagoa dela. Lehiakortasun handiagoa dago modalitate horretan.

Ze ezberdintasun dauden gimnasia erritmikoaren eta kirol aerobikoaren artean?

Nabarmenena aparatuen gabezia da. Kirol aerobikoan ez dugu aparatuerik erabiltzen. Musika ere ezberdinak dira. Bi modalitateek komunean duten gauza bakarra da koreografia bat lantzen dela, eta koreografia horretan derrigorrezko elementu batzuk egin behar ditugula. Bestela, oso bestelako diziplinak dira. Entrenamendu eta exijentzia maila ezberdinak duten modalitateak dira.

"Espainiako Kopan lan ona egin genuen; ezusteko sariak irabazi genituen"

"Gimnasia erritmikoak lan exijentzia handia eskatzen du"

Orduan gimnasia erritmikoa egiten duten guztiak ez dute balio kirol aerobikoa egiteko?

Ez, eta alderantziz ere ez. Diziplina bat edo beste egiteko ezauzgarri ezberdinak behar dira. Gure kirol aerobikoaren taldean dauden 14 gimnastek, aurretik gimnasia erritmikoa egin dute. Baina, gimnasia erritmikoa egiten izan duten guztiak ez dute kirol aerobikoa egiteko ez gaitasunik ezta jarrerarik ere.

Izan ere, bi ezaugarri horiek hartzen ditugu kontuan –jarrera eta gaitasuna–, kirol aerobikoa egiteko gimnastak topatzerako orduan.

Gimnasia erritmikoak ordu asko eskatzen ditu entrenatzeko. Lan exijentzia handia eskatzen du. Erritmikoa egiteko denbora barik geratzen direnean, eta aurretik aipatutako jarrera eta gaitasunak badituzte, kirol aerobikora pasatzen dira.

Gimnasia erritmikoan ere neskatala piloa dituzue.

127 neskatila ditugu taldean. Gimnasia erritmikoan eskolar-teko eta Gipuzkoako txapelketetan lehiatzen gara. Hortik gora begiratzeko, entrenatzen duguna baino askoz gehiago entrenatu beharko genuke.

Nola antolatzen dituzue entrenamenduak?

Zortzi taldetan banatu ditugu neskatilak. Bost entrenatzaile gaude eta bakoitzak bere taldea dauka. Guztion artean egiten dugu denboraldirako plangintza: koreografiak, musika, helburuak... baina lana, banaka egiten dugu. Nork bere neskatila taldea daukagu.

Nirekin batera daude entrenatzaile lanak egiten Edurne Elkoro, Miren Bragado, Arantzazu Zubia eta Jone Goikolea.

Zeintzuk dira aurtengorako dituzuen helburuak?

Gimnasia erritmikoa sustatzen jarraitu gura dugu. Hori da gure helburu nagusia.



Espainiako kopan egon ziren kirol aerobikoko ordezkariak. | DRAGOI GIMNASIA TALDEA



Leire Ugarte, uztaiarekin. | DRAGOI GIMNASIA TALDEA



Dragoi taldeko neskek, koreografia hasi aurretik. | DRAGOI

Pentsatu egin behar da telebista kontsumoa; zer, noiz, zenbat...

Neguan denbora luzeagoa ematen dugu etxean, eta neurriak hartu behar dira

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Telebista dugu etxe gehienetan; gaur egungo gizartean ohikoa da gailu horrekin bizi izatea. Gehienetan, gainera, egunero pizten dugu, eta jakin behar dugu umeek ikusten duten guztia xurgatzen dutela. Eta eduki horiek eragina dutela eurengan. Gainera, aldatu berriak gara neguko ordutegira, eta pentsatzekoa da aurrerantzean denbora luzeagoa emango dugula telebista aurrean.

Maria Jose Roldan psikopedagogaren esanetan, jakin behar dugu telebistako edukiek eragin handia dutela haurrengan. Hala, kontu handia izan behar dugu eduki horiekin; batez ere, indar-

keriarekin, alkoholaren kontsumoarekin edo sexu gehiegikeriekin zerikusia badute. "Kontuz, baita ere, abusuzko publizitatearekin", diosku Roldanek. Horregatik guztiagatik, garrantzitsua deritzo haurren telebista kontsumoa gainbegiratzeari.

"Aukeratu umearen adinera edo heldutasun mailarako egokiak diren saioak. Umeak ez dezala ulertu berdin zaigula zer ikusten duen. Erakutsi, baita ere, uea iritsitakoan telebista itzaltzen", gomendatzen du adituak.

Telebista, noiz eta nola?

Ez da egokia haurrak logelan telebista edukitzea. Etxeko egon-

gelan edo espazio komun batean edukitzea gomendatzen du Roldanek. "Saiatu telebista umearekin batera ikusten. Polita izan daiteke, esaterako, familian pelikula jakin bat ikustea", gaineratzen du. Roldanek argi dauka neurtu egin behar dela telebista kontsumoa. "Umeek bestelako jarduerak egiteko tartea izatea garrantzitsua da —irakurketa, jolas libre, jarduera fisikoa, lagunekin elkartzea...—. Gauza asko ikas daitezke telebistaren bidez. "Pentsatu egin behar da kontsumoa: zein saio, zein ordutan...". Azkenik, eredu izateko diosku, guk geuk ere erabilera arduratsua egiteko.



Bi ume telebista ikusten. | LARS PLOUGMANN

Haurrek ez dute minik egiteko asmoarekin haginka egiten, eta adinarekin joan egin ohi da jarrera hori

Urtebetetik beherako haurrek esploraziorako erabiltzen dute ahoa, eta haginak irteten ari direnean sentitzen duten amorrazioa arintzeko

L.Z. | ARRASATE

Cynthia Rosario pediatrik bere blogean azaltzen du haginka egitea ohikoa dela lehenengo haurtzaroan. Hark dio urtea bete aurretik haurrek esploraziorako eta haginak irteten direnean sentitzen duten amorrazioa arintzeko egiten dutela haginka.

Umea 1 eta 3 urte artekoa denean komunikaziorako erabil dezake haginka egitea; haserrea, frustrazioa eta baita maitasuna adierazteko ere. Kontuak hartu, hark dio gain-estimulatutako ume baten erreakzioa ere izan daitekeela haginka egitea. Edo beste ume batzuk imitatzeagatik egin dezake haginka. Baita bera zein bere gauzak babesteko ere.

Esan ez dagoela ondo

Lehenengo gauza, pediatriaren esanetan, haginkada jaso duen umea ondo dagoela ziurtatzea da. "Haginkada borroka baten ondorio izan bada, bi umeak banandu egin behar ditugu, eta baloratu egin behar dugu komeni den erasotzailea tartetxo batez burutzen ari garen ekintzatik baztertzea".

Rosarioren esanetan, haurrek argi jakin behar dute haginka egitea ez dagoela ondo. "Ez dugu ez egoera neurritz kanpo eramango, ez eta haurra irainduko, baina begietara begiratu eta esango diogu min egin duela edo laguntxo kaltetu egin duela. Eta ez inoiz haginka egin duen haurrari haginka egin zelako mina egi-



Haurra. | DREAMSLIFE

ten duen erakusteko. Ulertuko du baimendutako jarrera dela", azaltzen du.

Gertutik jarraitu

Haginka egiteko ohitura duen haur baten arduradunek gertutik jarraitu beharko dute haren egunerokoa, batez ere haginkada batean amai daitezkeen egoerak gerta daitezkeela uste badute.

Helduok kontuan izan behar dugu nekeak eta goseak antsietate maila areagotu egiten dutela, eta, horrelakoetan, egoera zail baten aurrean haurrak errazago amaituko duela haginka egiten.

Bi umeren arteko liskararen arrazioa jostailu batek sortzen badu, egokiena beste jostailu bat eskaintzea da, Rosarioren esane-

tan, edo, bestela, haurra giroz aldatzea; beste lagun eta pertsona batzuek eramatea, hain zuzen ere.

Adinarekin gutxiago

Normalean, haginka egiteko joera adinarekin desagertzen dela dio pediatrik, eta, gehienetan, lotura zuzena duela haurrak hitzeko komunikaziorako gaitasuna garatzeko prozesuarekin. Pazientzia eta jarrera tinkoa gomendatzen ditu.

Bestalde, normala da haginkada behin baino gehiagotan jaso duen haurraren gurasoek edo arduradunek antsietatea sentitzea. Ulertu behar dute haur txikiak ez dutela minik egiteko intenzioarekin haginka egiten.

Haurrek batera egiten dute barre, eta gauza berdinen inguruan taldea osatzeko

Gustura sentitzen direnean erabiltzen dute umorea haurrek, eta protagonista sentitzeko

L.Z. | ARRASATE

Haurrek batera egiten dute barre, eta gauza berdinen inguruan. Elkartu egiten ditu horrek, taldea sortzen du. Umorea besteengana hurbiltzen gaitu, eta hiruzpalau urterekin saiatzen da haurra barrea eragiten protagonista sentitzen delako, besteengana hurbiltzen laguntzen diolako... Eta horretarako erabiltzen ditu hitz jokoak, deformazio linguistikoak, hitz luzeak eta zailak. Barrearen bidez umeek euren poztasuna partekatzen dute besteekin. Adin batetik aurrera konturatu dira absurdoak, bat-batekotasunak, kontrasteak... barrea eragiten dutela. Adin horretan, askotan erabiltzen dituzte erre-

ferentzia eskatologikoak. Handiak dira eta kaka eta pixa kontrolatzen dituzte; beraz, gustatzen zaie horren inguruan barre egitea.

Funtzio sozializatzailea

Bestearengana hurbiltzeko keinuak eta errepikapenak erabiltzen dituzte umeek. Batzuetan, ulertzen ez dituzten txistek ere bai, konturatu direlako barrea eragiten dutela. Eta horrela, protagonista sentitzen dira. Gustura sentitzen direnean erabiltzen du umorea haurrak. Ateraldi xelebreak egin nahi ditu aske eta protagonista sentitzeko. Horregatik da garrantzitsua erantzutea eta parte hartzea.



Umea barrez. | PACHAKUTIK

KULTURA



Biscary, Errotabehere eta Bereau, Gaztelekuan. | J.B.

Giza eta danbor-hotsez irun zuten hari ederra luzatu zuen Kalakanek

- ▶ Soiltasuna indargune izan daitekeela erakutsi zuen Behe Nafarroako hirukoteak
- ▶ Ahots lanketa ezin ederragoa eta danborren berehalakotasuna dituzte ikur

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Kantu-poz moduko bat kutsatzeko gaitasuna badute Kalakanek, asaben hariari tira eginez kantatzeko jitean; eta konexio are atabikoago baten, ikusleen barrunbeak tinko heltzeraino, perkusio gordin bezain botere-tsuekin. Melodia eta erritmua, funtsean, apaingarri hutsalik gabeko biluztasun ezin adierazkorrago baten osagai bezala ulertuak. Ordu eta erdiko saioa egin zuten behe-nafarrek (Thierry Biscary, Xan Errotabehere eta Jamixel Bereau) eguenean Oñatiko gaztelekuan eta luzatutako hari-muturra hartu eta amaitu arte, ez zuten askatu ikusleek, gozatuarekin esker oneko.

Doinua, perkusioa, ahotsa

Hamelingoaren aztikeria beraz baliatu guran edo, txirula joaz igo zen Xan Errotabehere eszenariora lehena; aklimatazio ariketa izan zen. Ostean, albo bietan kokatu zitzaizkion Biscary eta

Bereau, danbor bana gerrian; bereizgarri duten perkusio ia xamanikoaren erakustaldia egin zuten. Soiltasun hain eder horretan gotortuta, txirula –eta baita, esku-armonioa– eta perkusioa aurkeztu zituzten, gorputza, eta ondoren ahotsen txanda iritsi zen, arima. Babeslekua eta maitasuna eskaini diote euskal kantuari Iparraldean eta horregatik ditugu hango kantariak natural dirudien dohain eta manera berezi baten oinordeko. Kantatzeko etorraldia bezain natural, ahots sendo bezainbat leunek marraztutako txirikordak ziren, elkarrekin bizi osoan abestu izan balute bezala; bakoitza tonu eta testura berezian baina goxotasunez josiak. Biscaryren tonu apaletatik Bereauren tesiturarik garaienara, akatsik gabekoa izan zen ahotsen exekuzioa.

Jostari eta bihurri

Kontakizuna horrela, dagoenetan lagata, eman lezake danborrez

THIERRY BISCARY | MUSIKARIA

"Hurbiltasunak transmititzen du emozioa; kantuak hori uzten du"

Kartsu erantzun zizueten Oñatin ikusleek. Ohikoa duzue?

Ez beti. Batzuetan denbora behar da jendea zureganatzeko, Hasieran Xanek txirula joko zuelarik isiltasuna lortzen bagenuen, gauza ttipiakoak egingo genituela esan genuen. Eta lortu genuen.

Halaber, ezinbestekoa zaizue, ikusi zenez, jendearen inplikazioa, txaloekin, abestuz...

Taldean, hastapenetik argi genuen hori, jendearekin harremana nahi genuela. Kontzertua harremanarako dago egin eta ez bada horretarako, aski da diskoa entzutea etxean. Hori da, nolabait, naturalki pasarazi nahi dugun mezua.

Kantatzeko poza da, bai, transmititzen duzue.

Edozein lekutan kontzertua egin ahal izatea izan da gure apustua: kontzertu areto baten, karrikan... eta kantuak eta perkusioak hori permititzen du. Hurbiltasuna ematen du eta horrek eragiten du emozioa; ez dago ezer gure eta ikusleen artean.

Ezagun egin zarete, izenez behintzat, azken urtean. Ze eragin izan du horrek?

Jendea errazago hurbiltzen da gureganara. Zamudion jo dugu uda honetan eta baita duela bi urte ere. Lehen aldian 50 lagun baino gutxiago zeuden eta bi urte ondoren baziren 600 lagun. Gero, guk ez dugu asko aldatu gure gauza. Duela bi urte egiten genuena egiten dugu, gutxi gorabehera.

hornitutako emanaldi aingerutarra egin zuela Kalakanek, baina ezta gutxiago ere, bihurrikerietarako aukerari ez zioten uko egin. Zerbait izatekotan jostariak dira Kalakaneko hiru gizonak eta ahots-jokoez gain antzerki, txantxa eta kontakizunerako tartea ere hartzen dute. Gainera, bakarrik jolastea aspergarria denez, ikusleek ere olgetara errenditu besterik ez zuten izan. Erreparo barik egin zieten men oñatiarrek hirukotearen eskakizunei: txalo egiteko eskatu zitzaizkion, txalo eginez, esaneko; eta txistu ala kantuan laguntzeko galde egin zieten, berehala erantzunez, zintzo eta, gainera, ia desafinatu barik.

Benetan gozagarria izan zen emanaldia, eszenario aurrean zein gainean. Nabaria zen. Gaztelekuan oso ohikoa ez den adin nahasketa egon zen egueneko emanaldian, konexioa eta harremana lehenesten duen talde batentzat, ziur, ezinbestekoa.

Gozena izan zen 'Hansel eta Gretel' agertokian ikustea

Glu Glu taldeak ederto taularatu zuen Grimm anaien ipuin klasikoak, zapatuan

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Grimm anaien ipuin klasikoak modu sinple bezain egokian ekarri du antzerkikira Glu Glu taldeak. Horren lekuko izan ziren zapatuan Arrasateko Amaia antzokira *Hansel eta Gretel txokolatezko etxean* antzezlanak ikustera joan ziren haurrak eta gurasoak. Umeen artean oso ezaguna da obra eta horrek bere alde onak eta txarrak ditu: batetik, ikuslearen alde aurretiko jarrera erabatekoa da –horren adibide izan zen obra hasi aurretik argiak leundu izanak eragin zuen isiltasuna– baina, bestetik, edozein akats edo moldaketa gaizki ikusia izan daiteke. Izan ere, ezin da ahaztu haurra ere oso ikusle zorrotza izan daitekeela.

Istorioren pasarte garrantzitsuenak lau edo bost dekoraturekin taularatu zituzten, batetik besterako aldaketak ikusle guztien bistan eginez. Dekoratuak, sinpleak eta politak, protagonista guztien jantziak bezala.

Bestalde, ulertzeko denez, musikak berebiziko pisua hartzen



Hansel eta Gretel, obrako protagonistak, zapatuko emanaldian. | JOKIN BEREZIARTUA

du Glu Glu taldearen antzezlanetan, obra musikala bihurtzeraino. Hitz itsaskorrek haurrek ezagutzen dituzten doinuekin lotuta joateak haurra istorioan bete-betean sartzea eragiten du. Horren adibide da Hansel eta Gretelen urtebetetzea antzoki osoak ospatu zuela *Zorionak zuri* abesten. Bere urtebetetzearako egurrezko ezpata eskatu zuen Hansel eta Gretelek, aldiz, dantzan egiteko oinetakoak.

Istoriari dagokionez, antzerkian ez dago ipuinarekiko aldaketa handirik: Hansel eta Gretel

basoan galdu ostean eta txokolatezko etxearekin egiten dute topo. Han bizi den sorginak denetarikoz gozokiak ematen dizkie baina Hansel eta Gretelek ez dakite zertarako...

Beteta ez, baina sarrera ona

Amaia antzokia ez zen goraino bete, baina sarrera ona izan zen. Kontuan hartu behar da herritar askok kanpora egin zutela zubia aprobeztatzeko eta antzezlanak iraun zuen bitartean behintzat ez zuela euririk egin. Ordubetxe pasatxo iraun zuen.

Galartaren obra ikusteko aukera hilaren 17ra arte

Margolari nekazaren 18 koadro ikusi eta erosteko aukera dago Arrasateko Arregi dendan

J.B. | ARRASATE

"Galarta ezaguna da, badakigu etxe askotan dagoela bere obra. Kanpoan ez da horren ezaguna eta halako erakusketekin haren izena zabaldu gura dugu". Hitz horiekin azaldu digu Iñigo Arregi artistak Julio Galartaren erakusketaren helburua. Arregi ondo ezagutu zuen Galarta: "Margolari moduan txikitatik harritu ninduen Julioren obrak. Pertsonalki ezagutu nuen gero, lagun handiak izan ginen".

Hilaren 17ra arte Arrasateko hainbat txoko erakusten dituen 18 koadro ikusi eta erosteko aukera dago Arrasateko Maala kaleko Arregi dendan.

Julio Galarta Pintorearen Lagunak Elkarteak antolatua duen lehen erakusketa da; harrera ona izan du orain arte: "Jende asko pasatu da". Elkartearen azken helburua beka bat sortzea da margolari nekazaren obra "serio eta modu profesionalean" ikertzeko.



Julio Galartaren 18 koadro daude, horietako batzuk salgai. | JOSETXO ARANTZABAL

Bergara, Antzuola eta Elgetako gaztetxoak, gertu 'Kantari' jartzeko

J.B. | BERGARA

Kantari saioan parte hartu behar duten Bergara, Antzuola eta Elgetako gaztetxoek atzo egin zuten egun handiaren aurreko entsegu ofiziala, Zabalotegin. 160 gaztetxo zeuden deituta, baina bi taldek kale egin zuten. Amaia Txintxurretak gogora ekarri digu entseguen helburua: "Urduritasunak kentzeko balio izaten du. Atzo ere gaztetxo gehienak urduri etorri ziren. Askorendako lehen aldia da agertoki batera igotzen direna jendaurrean kantuan eta dantzan egiteko". Atzoko entsegura etxeko lanak ondo eginda heldu zirela-eta pozik zegoen

Kantariko aurkezlea: "Taldek gehienak abestia fundamentuz ikasita etorri dira. Gainera, guraso batzuk ikusi ditugu seme-alaben entsegu mugikorretik grabatzen, gero etxean lasai ikusi eta hobetzen saiatzeko". Azaroaren 9an izango da gala Zabalotegin, 15:30etik 20:15era. Parte hartzaileek atzo hartu zituzten sarrerak eta soberan geratzen direnak egunean bertan hartu ahal dira. Doakoa da, baina jende kopurua kontrolatu gura dute.

Nobedade bat izango da Bergaran. Eskoriatzako DJ Andoni Motok girotuko ditu saioen arteko deskantsuak.



Amaia Txintxurreta eta Aitor Agiriano atzo, gaztetxoz inguratuta. | J.A.

Asebetetasunaren gainean gogoeta proposatu zuen Maria Urzelaik 'Satisfaktion' obrarekin

J.B. | BERGARA

Khea Ziater taldeak proposamen interesgarria ekarri zuen egubakoitzean Zabalotegira. *Satisfaktion* taularatu zuten, eta Maria Urzelai aktore bergararra protagonis-

ta zela asebetetasunaren gainean hainbat gako proposatu zituzten: "Ikusleari bere hausnarketa egitea eskaintzen diogu. Noski, entrenimendu soil moduan ere har daiteke". Formatu txikiko



Maria Urzelai aktore bergararra *Satisfaktion* obrako une baten. | KHEA ZIATER

obra bada ere, eszenografia asko zaintzen dute. Deigarri da oso, estetikak berebiziko garrantzia hartzen du eta *atrezzo*-ak hasieratik bereganatzen du ikuslea. Argiztapena ere oso zaindua da eta gainera, istorioan ezin hobeto integratzen diren proiektzioak ere eskaintzen ditu. Bi pertsonaia interpretatu zituen Urzelai. Batetik, prostituta bat aurkezten digu eta bestetik, aktorea den emakume gazte bat, "kalekoa". Asebetetzea eta atsekabea irudikatzen duten pertsonaia, hain justu. Izan ere, antzerki bat da beste antzerki baten barruan.

Antzezlan saritua Donostian

Maiatzean aurkeztu zuten Donostiako Poltsiko Antzerki bekarako sortutako lan hau eta saria eskuratuta, hainbat saio eskaintzen dihardute; egubakoitzean Bergaran egin zuten geldialdia.

Espaloia hunkitu zuen Medianochek

Eibarko Medianoche hirukoteak kontzertu hunkigarria eskaini zuen Elgetako Espaloian. Bernardo Agilera, Pedro Bartra eta Jesus Maria Bastidak Los Panchos mitikoen *Obsesión*, *Sin ti* eta *Rayito de Luna* moduko kantuekin ederto girotu zuten zapatu gaua.



JOSETXO ARANTZABAL



Miguel Gonzalez Bastida musikari eta konpositore bergararra. | IÑIGO ZAITEGI

Gonzalez Bastida musikariari, agur

- ▶ Eguenean hil zen, 93 urte zituela, eta agur hileta elizkizuna zapatuan egin zioten San Pedro parrokian
- ▶ Musikari, konpositore, organo jotzaile eta Bergarako Musika Bandako zuzendari izan da, besteak beste

OIHANA ELORTZA | BERGARA

"Musikari bikaina", "konpositore ona", "artista", "organo jotzaile aparta", "Bergarako banda den bezalakoa izatearen erantzulea", "pertsona ona"... hitz horiekin gogoratzen dute Miguel Gonzalez Bastida bergararra ezagutu zuten senide, lagun eta bandako kideek. Ez zuen inoiz nahi izan etxetik kanpora joatea, bandako musikari greba egin zuten zuzendari bera izateko eta bera zuzendari zela sartu ziren lehen emakumeak Bergarako Musika Bandan.

Bergararra

"Musikari eta konpositore ona izan da Miguel, oso ona. Sei anaia-arreba ziren, bera gazteena. Arreba bakarra, Carmen, joan den urtean hil zen 100 urte zituela. Bere anaia ere musikariak izan ziren eta kanpoko banda eta abesbatzetako zuzendariak izan ziren, Gasteizkoa, Donostiakoa edo Irungoa, esate baterako. Miguelek ere izan zuen aukera kanpora joateko, baina ez nuen nahi izan, Bergaran gelditu zen", du gogoan Jose Mari Gonzalezek, Bergarako bandako egungo presidentea eta zendu berri den musikariaren lehengusuak.

Juan Luis Bikuñak Bergarako Musika Bandaren 175. urteurrenaren harira egindako liburuan

ere jaso zuen Miguel Gonzalez Bastidaren ibilbidea. "Musika banda zibilen zuzendari titulua atera eta gutxira Logroño bandedako zuzendaritza eskaini zidaten baina ez nintzen joan. Etxekoek ere galdetu izan didate zergatik ez nintzen ez Bartzelonara ezta Bilbora ere joan, baina ni Bergarako naiz, bergararra sentitzen naiz batez ere, eta nire herria maite dut. Horixe da dena", erantzun zion musikariak liburuaren egileari.

Musikarien greba

Joxe Lazkano *Kurri*-k berarekin batera jo zuen bandan. "Berak flauta jotzen zuen eta nik klarineta. Niretako oso zuzendari ona izan da eta gizon handia. Elkarrekin jotzen genuenean bere aita, Inazio, zen zuzendaria. Osasunez makal samar zegoenean, ordezko eske hasi zen. Guk garbi ikusten genuen Miguel zela ordezkorik onena. Baina orduan Ministerioaren erabakiz izendatzen ziren musika bandetako



Miguel, bere arreba Carmenen ondoan. | IÑIGO ZAITEGI

zuzendariak, eta ejertzitoko norbait etorriko zen beldur ginen. Horregatik, bandako kide ginen guztiok greba egin genuen, Miguelen alde", kontatu du *Kurri*-k. "Ziur nago berari esker dagoela Bergarako banda dagoen tokian, ez dut dudarik", jarraitu du.

Bederatzi neska

1941 urtean hartu zuen Miguelek Bergarako bandako zuzendaritza. Eta bera zuzendari zela sartu

ziren lehen emakumeak, 70eko hamarkadan. "Arantzazu ahizpa eta biok bere etxera joaten ginen solfoa ikastera. Beste batzuek udaletzeko goiko pisuan zegoen gelan ikasten zuten eta, horrela, bederatzi neska sartu ginen batera: gu biok, Mari Jose eta Mari Sol Juaristi ahizpak, Eba Agirre, Ane Elortza, Maria Pia Urrutia, Miren Gurutze Arana eta Elisabet Mendizabal. 12 urte nituen nik. Ahizpari flauta eman zion eta niri klarineta. Gaur egun instrumentu horiek jotzen jarraitzen dugu. Serioaren fama ere bazuen Miguelek baina gu oso babestuta sentitzen ginen, lan handia egin zuen partiturak aldatzen, guk jo ahal izateko", du gogoan Garbiñe Garitanok.

Soldaduskan ere, musika

Melillan egin zuen soldaduska Miguelek eta hantxe idatzi zuen *Umore Ona* pieza. "Postaz bidali nuen partitura", kontatu zion Juan Luis Bikuñari. *Pol-Pol*, *San Martin*, *Pertxa* edo *Or-Konpon* dira berak konposatu zituen beste lan batzuk. Elizkizunetarako obrak ere konposatu zituen.

Mari Carmen Chirlaquerekin ezkondu, hiru seme-alaba izan zituen: Pili (gazte hil zen), Alfredo eta Rakel. Egun, Alfredok zuzentzen du Bergarako banda.

Herriko musikari asko hiletan

Bergarako bandak Chopinen *Hileta Martxa* jo zuen gorpua San Pedro elizara sartzeko bitartean, eta elizkizuna bukatu ostean Gonzalez Bastidak berak moldatutako *Agur Jauna* pieza. Eliza barruan, berak konposatutako hileta obra eta Don Eustakio Azkaratek egindako *Liberame* abestu zuten elkarrekin Koro Parrokialak, Orfeoak eta Aritzeta Abesbatzak.

Hilkutxa bandako kideek eraman zuten, baita loretako batzuk ere.



Zapatuan San Pedro parrokian izan zen hileta elizkizuna. | JOSETXO ARANTZABAL

Goiena Klubeko azaroko zozketak

Goiena Klubeko bazkideok irabaz ditzakezuen sariak hauek dira. Hartu parte!



32 hazbeteko telebista

32 hazbeteko OKI Telebista

Parte hartzeko sariaren izena:
Telebista



Otarak

DEBAGOIENENKO BASERRI SAREri esker baserriko produktuez osaturiko 4 otar.

Parte hartzeko sariaren izena:
Baserrisarea



ARRIKRUTZ
oñatiko obak

Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, 6 sarrera zozketatuko ditugu.

Parte hartzeko sariaren izena:
Arrikutz



www.harremandenda.org



Otarak

HARREMAN DENDari esker bidezko merkataritzako produktuez osaturiko 2 otar zozketatuko ditugu.

Parte hartzeko sariaren izena:
Harreman



Argia

Jokoa

Badakit 2 joko

Parte hartzeko sariaren izena:
Badakit

PARTE HARTZEKO:

Telefonoz: 943 25 05 05

E-postaz: kluba@goiena.com

SMS: KLUBA [SARIAREN IZENA] [bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.

WhatsApp: KLUBA [SARIAREN IZENA] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Taldearen fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com



goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

GURE MUSIKA TALDEAK

GOVERNORS

Governors taldeko kideak *Morphinapolis* diskoaren promozio argazkian. | GORKA LASA

"Morphinapolis"-ek egungo egoera isla dezakeela uste dut"

- ▶ Uztaila eta abuztua bitartean grabatu zuten diskoa Higain estudioan
- ▶ 'Frenetikodrome' eta 'Collage' diskoetako onena batzen saiatu dira

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Governors taldeak ez du aurkezpenik behar. Bailarako eta, zergatik ez, Euskal Herriko talde indartsuenetakoak *Morphinapolis* diskoa kaleratuko du bihar. Horren inguruan hitz egiteko Juan *Sangre*-rekin egon gara; beraz, eman diezaiogun hitza.

Morphinapolis... zer da?

Morfinaren eta polis-en edo hiriarren arteko hitz-jokoa da. Garai latzak bizi ditugu, ez bakarrik egiten digutenagatik, baizik eta egiten uzten diegunagatik. Gure ustez, *Morphinapolis*, agintzen dutenek agintean jarraituz gero, etorkizuneko hiria izan daiteke. Diskoarekin, gure maila xumetik erantzunerako dei egiten dugu.

Eta, zelan ez, izenburuak izena ematen dio diskoaren abesti multzoari; daukagun panorama latz eta negatiboa islatu nahi izan duten abestiak, alegia. Izan ere, ez da jendeari kontatu behar diogula gertatzen dena, soberan dakite-eta, baina bizi dugun egoeraren aurrean sentitzen dugun amorruari irtenbidea emateko modua da.

Diskoaren azalak, gainera, ideia hori indartzen du.

Bai; nik neuk Orwell-en *1984* filmaren azala eta *V de vendetta*-rena oso gustuko ditut; eta *Morphinapolis*-en azalak bietatik duela uste dut. Nestor Urdainpileta izan da arduraduna. Berdin jantzitako jende multzo bat dago, eta atzean suntsitutako hiri bat ikusten da. Gure kasuan, hiri horrek gizartearen balioak irudikatzen ditu. Eskubide politikoak zapaldu dira, salbuespen legeak sortu eta borroka sozialari esker hamarkadatan lortutako eskubideak urte gutxi batzuetan galdu ditugu; munduaren ikuspegi kaotikoa da portada; hala ere, errealitatetik gertuegi egon daiteke. Oraindik, baina, jende askok borrokan jarraitzen du; beraz, ez da itxaropenik galdu behar.

Zelan planteatu duzue disko hau? Presio handia izan duzue?

Hirugarrenarekin (*Collage*) presio handiagoa izan nuen. *Frenetikodrome* diskoarekin nolabaiteko boom-a izan genuen, Hatortxuko abestia tarteko, eta disko ona egin genuen. Hirugarren diskoan, gainera, Aitor Antruejok taldea utzi

eta trantsizio batean geunden; eta kontzertuak eman bitartean konposatu genuen diskoa. Oraingoan, denbora luzeagoa hartu dugu kantuak konposatzeko.

Pasa den urteko abenduan hasi nintzen kantuak konposatzen. Orduan bigarren eta hirugarren diskoen arteko nahasketa egitea jarri nuen helburu moduan. *Frenetikodrome*-n alde kañero, ilun eta metaleroa, *Collage*-n melodiarekin uztartzea. Ez dakit helburua lortu dudana, hori Governors-zaleek esan beharko dute, baina gaur, diskoaren emaitza asko gustatu zaidala esan dezaket.

11 kantu grabatu bai, baina zenbaitetik?

26 proiektu izan nituen esku artean. Oraingoan, etxeko estudioan lan egiteko aukera izan dut eta sekulako erraztasuna eman dit. Aurrerago, 26 proiektuekin Arantzan dagoen baserri batean eman genuen asteburu bat, eta bertatik diskoaren *armazoia* irten zela esan genezake.

Eta diskoa Higain estudioan grabatu duzue berriz ere.

Bai; Haritz Harreguy teknikaria

ZERTZELADA



MORPHINAPOLIS

Estiloa: Rock, metal.

Egilea: Governors (Arrasate, 2013).

Argitaletxea: Baga-Biga.

Iraupena: 47:54 minutu.

Indarraren eta melodiaren arteko oreka

Arrasaten kokagunea daukan Governors talde arrakastatsua beterranoa da jada eta, zer esanik ez, berorren abeslari eta gidari J.Sang, dozenaka proiektutan murgilduta ibilia dena. 'Morphinapolis' disko berrian herritarrei, hainbeste bidegabekeriaren aurrean, iratzartzeko eskatzen diete. Aipatutakoa eta beste hainbat mezu eraikitzaile zabaltzeko, metala, rocka eta melodia barra-barra erabiltzen dituzte beti ezinezkoa dirudien oreka perfektua; eta oraingoan ere hala egin dute, emaitza borobila lortuz. Dena den, aurreko lanekin alderatuta, honakoan hard-rockak eta riff heavy-ak leku handiagoa hartu dute eta kantuak are eta itsaskorragoak dira.

IKER BARANDIARAN

aspalditik ezagutzen dut, Ekon-en lehenengo diskoa grabatu genuenetik. Oso erraza da harekin lan egitea, taldea oso ondo ezagutzen baitu; izan ere, gutaz aparte Governors norbaitek ezagutzen badu, hura da. Zuzenekoetara ere gurekin etortzen da; beraz, badaki zein den taldearen soinua, zeintzuk

diren gure ahulguneak... konfiantza osoa dugu ondo edo txarto dagoena esateko. Gainera, ondo lan egiten duen pertsona bat aurkituz gero, dena errazagoa da.

Disko berrian sekuentziek eta pianoak garrantzi handia dute.

Bai; Koldo Uriarte izan da arduraduna. Hasieran, beldur puntu bat genuen; hala ere, argi eta garbi utzi du sekulako profesionala dela. Gustuko talde batzuen erreferentziak eman genizkion eta lan ezin hobea egin du. Hasieran, pare bat kantutan sartu behar genituen, baina diskoaren parte garrantzitsu bihurtu da, Aitor Antruejorekin batera kolaborazio garrantzitsuena izan da.

Izan ere, Antruejok diskoa grabatu du, baina egun ez dago taldean.

Ez; lan kontuak direla-eta Madrilera joan behar izan du. Orain, Urtzi Intza da Governoreko gitarrista berria; Antruejok berak aholkatutakoa da. Hala ere, Antruejo *Morphinapolis*-en parte garrantzitsua izan da. Hasiera batean, diskoa eta bira egin behar zituen; hala ere, ez da posible izan.

Bihar kaleratuko duzue diskoa, baina kontzertuak noizko?

Birako lehenengo kontzertua azaroaren 30ean izango da Donostian. Ondoren, abenduaren 21ean Plateruengan egongo gara eta 28an, Hatortxu Rock jaialdian. Oraindik datak zehazten ari gara, baina poliki-poliki aurrera goaz. Arrasateko gaztetxeokoin ere lanean gabilta *Morphinapolis* etxean aurkezteko.

Betidanik zuzeneko taldea izan zarete; berrikuntzarik bai?

Bai, ikuskizun bat prestatzen gabilta Jon Mentxakaren laguntzarekin; argiak eta su-efektuak, adibidez, alde bisualak ere garrantzia duelako zuzenekoetan. Hala ere, argi daukagu musika indartzeko elementu moduan erabili behar dugula; betidanik gustatu izan zaizkit Alice Cooper eta Kiss taldeen ikuskizunak.

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aretxabaleta. Etxebizitza berria salgai Txarapea ibilbidean. 94 metro koadrokoa. Hiru logela, bi komun, sukaldia eta egongela. Guztiz jantzita. 260 metro koadroko terrazarekin. Bi garaje, mardunak, eta bi trasteleku. 270.000 euro. Deitu 661 57 81 71 telefonora.

Bergara. Martokan etxebizitza salgai. Hiru logela, sukaldia, egongela, bainugela, despentsa eta trasteleku. Igogailu eta berokuntzarekin. Dena kanpoalderara begira, bi balkoiekin eta oso eguzkiatsua. Zoru eta atek berriak eta margotu berria. Bizitzera sartzeko moduan. Garajea aukeran. 179.000 euro. 653 73 80 65 edo 943 76 07 55

103. ERRENTAN EMAN

Aretxabaleta. Durana kalean etxebizitza ematen da errentan. Bi logela, komuna, egongela eta sukaldia. Erdijantzita. Deitu 650 93 96 93 telefonora.

Bergara. Etxebizitza ematen da errentan Bolun, Aranerreka kalean. Hiru logela, sukaldia-egongela eta bi komun. Deitu 649 84 67 09 telefonora.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Etxebizitza behar dugu errentan. Logela bat edo biko. Gehienez 500 euro ordaintzeko. 632 93 38 29 edo 602 88 84 80

Arrasate edo Bergara. Etxebizitza handia behar dugu errentan. Hiru logelakoa. Behoko solairua izan behar du. Lau pertsonako familia gara. Gloria. 697 96 45 10

Bergara. Etxebizitza behar dit errentan, bi edo hiru logelakoa. 632 20 48 63

Bergara. Familia batek etxea behar du errentan. 650 62 12 94 edo 943 76 19 52

105. ETXEA OSATU

Aretxabaleta. Erdialdean logela ematen da errentan. Sarrairekin. Telebista gelan bertan. Josean. Deitu 603 14 28 89 telefonora.

Arrasate. Logela ematen da errentan erdigunean. Bikote batentzat egokia. Etxeko gainontzeko lekuak erabiltzeko aukerarekin. 722 45 33 59

Bergara. Logela ematen da errentan erdigunean. Komun pribatuarekin. Sukalde eta egongela, partekatuta. Deitu 662 26 71 41 telefonora.

Bergara. Logela ematen da errentan. Pertsona batendako edo bikotearendako aproposa. 699 09 46 26

Bergara. Pertsona bat behar da pisu bat osatzeko Bergara ingurunean. 95 metro koadro ditu: hiru logela, egongela handia, komun bat, despentsa eta balkoia. Oso zabal da. Leioak PVCkoak dira, kalefakzioa, aparkaleku amankomuna eta nahi izanez gero landatzeko lursail bat. Animatu eta etorri ikustera! 693 72 74 52

Logela partekatuko. Arrasate erdigunean logela bat partekatuko neska edo mutil bat behar du. Deitu 693 80 64 18 telefonora.

Pixua osatzeko Arrasaten. Pertsona bat behar du pisu bat osatzeko Arrasaten. Lau logela eta bi komun ditu, eta oso argitsu da. 230 euro hilabetean, gastuak barne. Animatu eta etorri ikustera! Deitu 608 57 97 70 telefonora.

2. GARAJEAK

201. SALDU

Bergara. 13 metro koadroko garajea salgai Espoioan. 653 73 80 65 edo 943 76 07 55

Bergara. Matxiategi 30ean garajea salgai. 26 metro koadro ditu eta bi autorentzako lekua dago. Ibaiondo kalera irteera zuzena du. Ate motorizatu, argindarra eta ura. Aukera ona. Prezio onean. 650 60 26 55

204. ERRENTAN HARTU

Aramaio. Aramaion, garaje itxia errentan hartuko nuke. 690 83 98 53

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Eskoriatza. Emakume bat behar da bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 617 88 96 81

402. ESKAERAK

Aretxabaleta. Arrasate edo Eskoriatza. Haur Hezkuntza graduatua den neska euskalduna gertu haurrak zaintzeko. Esperientzia handia. Interesatuok deitu: 618 87 12 97

Arrasate. 13 urteko eskarmen-tua duen emakume nagusi eta umeak zaintzeko edo garbitasun lanetan aritzeko gertu. Legezko paperak ditu. Etxean bertan ere bizi naiteke. 634 11 31 09

Arrasate. 55 urteko emakume euskalduna, arrasatearra, umeak edo nagusiak zaintzeko gertu. 943 79 60 89

Arrasate. Emakume arduratsua gertu hurrengo lanak egiteko: umeak eta nagusiak zaindu, etxeko lanak egin eta ospitalean gaixoak zaindu. 943 25 05 72 edo 658 70 56 94

Arrasate. Emakume euskalduna goizetan plantxa eta etxeko lanak egiteko gertu. 699 54 17 27

Arrasate. Emakume nagusiak zaindu edo sukalde laguntzaile aritzeko gertu. 608 05 33 53

Atariak garbitzeko. 45 urteko emakume bat prest dago atariak garbitu, umeak zaindu eta abar egiteko. 625 83 84 13.

Bergara, Antzuola edo Zumarraga. Esperientziadun neska nagusiak zaintzeko gertu. Erreferentzia onak ditu. Orduka, egun osoz edo ospitalean lan egingo nuke. Berehala hasteko moduan. 634 91 87 73

Bergara, Arrasate edo Oñati. Erizain laguntzaile ikasketak dituen mutila nagusiak zaintzeko gertu. San Juande Diosen lan egindakoa eta esperientzia handikoa. Egunez zein gauzez lan egingo gertu. 943 78 62 19 edo 639 66 57 88

Bergara. Emakume arduratsua, euskalduna, umeak zaintzeko gertu. Puerikultura tituluduna. Arantza. 688 65 30 62

Debagoiena. Garbiketan edo pertsona nagusien edo umeen zaintzan orduka lan egiteko emakume esperientziaduna prest. 650 62 12 94 edo 943 76 19 52

Debagoiena. 23 urteko mutila gertu eraikitzen, gerbiketan edota tabernan lan egiteko. 602 48 36 75

Debagoiena. 28 urteko neska gertu edadetu zein umeak zaintzeko edota garbitasun lanetan jarduteko. Orduka, egun osoz zein etxean bertan bizi izanda. 602 48 36 75

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 15:00ak arte jasotako iragarkiak argitaratu ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:

PREZIO BEREZIAK GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan.

Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.

Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

1. ETXEBIZITZAK

101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

2. GARAJEAK

201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

3. LOKALAK

301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

4. LANA

401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

6. MOTORRA

601. Saldu
602. Erosi
603. Alokatu
603. Konpondu
604. Bestelakoak

7. ANIMALIAK

701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

8. DENETARIK

801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805. Trukatu
806. Galdtu
807. Aurkitu
808. Bestelakoak

9. HARREMANAK

901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

10. RELAX

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak zaintzeko edo sukalde laguntzaile lanetan jarduteko. Pertsonen zaintzan eskarmen-tua dut eta lege agiriak eguneratuta. 658 74 94 63

Debagoiena. Neska arduratsua, esperientziaduna, gertu umeak zaintzeko, garbiketarako edo egoteko eta nagusiak zaindu zein pasioan laguntzeko. 695 73 87 95

Debagoiena. 33 urteko mutila lanerako gertu. Erreferentzia onak ditu eta eskarmen-tua nagusiak zaintzen eta etxeko lanetan. Orduka, egun osoz, asteburuetan edota ospitalean lan egingo nuke. Berehala hasteko moduan. 685 42 72 80

Debagoiena. Edozein ordutegirekin garbiketa lanerako edo pertsona helduak zaintzeko emakume prest. 649 68 47 59

Debagoiena. Emakumea etxean bertan bizi izaten lan egiteko gertu. Nagusiak zaindu, etxeko lanak egin eta abar. 602 53 37 07

Debagoiena. Emakumea gertu etxeko lanak egin, atari eta eskailerak garbitu zein nagusi edota umeak zaintzeko. 625 86 99 51

Debagoiena. Emakumea prest edozein ordutegirekin garbiketa lanak egin edo umeak zein pertsona helduak zaintzeko. 664 12 43 25

Debagoiena. Gizona etxean bertan bizi izaten nagusiak zaindu eta garbitasun lanak egiteko gertu. Esperientzia handikoa. 602 45 84 63

Debagoiena. Goizetan umeak prestatu eta ikastolara eramateko prest. Etxeko lanak ere egingo nitzuke. 659 92 89 23

Debagoiena. Lanerako gertu nago. Gidabaimena eta autoa dauzkat. 634 40 64 65

Debagoiena. Mutil arduratsua nagusiak zaintzeko edo bestelako lanerako gertu. 632 20 48 63

Debagoiena. Mutil arduratsua, 43 urtekoa, baserrian lan egiteko gertu. nagusiak zaindu, ortuan eta abar. Autoa daukat. 631 59 40 66

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak zaintzeko edo sukaldari laguntzaile lanetan jarduteko. Esperientziaduna eta lege agiriarekin. Eraikitzen ere lan egingo nuke. Dario. Deitu 631 00 42 63 telefonora.

Debagoiena. Mutila lanerako gertu: garbiketan, tabernan zerbitzari zein sukalde laguntzaile, igeltsari, gidari... Mohamed. 636 60 48 51

Debagoiena. Mutila nagusiak zaindu, garbitasun lanak egin zein baserrian lan egiteko gertu. 699 09 46 26

Debagoiena. Mutila prest arratsalde edozein lanetan aritzeko. 605 44 61 98

Debagoiena. Nagusi edo umeak zaintzen zein garbitasunak egiten lan egingo nuke. Sukalde laguntzaile ere bai. Geriatria ikasketak ditu. 691 03 25 02 edo 943 54 09 41

Debagoiena. Nagusiak zaintzen zein garbitasunak egiten lan egingo nuke, astelehenean egubakoitzean aritzen. Orduka, egun osoz zein etxean bertan bizi izaten. Legezko paperak eguneratuta dauzkat. 603 22 53 66

Debagoiena. Neska arduratsua, klinika laguntzaile tituluduna, nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edota tabernan lan egiteko prest. Nagusiak zaintzen esperientzia handikoa. 617 20 59 43

Debagoiena. Neska arduratsua, oinarriko sukaldaritza eta geriatria ikasketaduna, lan bila. Orduka, egun osoz zein etxean bertan bizi izaten. Nagusiak zaindu, garbitasun lanak eta abar. Deitu 615 06 28 04 telefono zenbakira.

8. DENETARIK

801. SALDU

Ohe artikulatua. Ohe artikulatua, elektrikoa, salgai. 1,05m zabalerakoa. 750 euro. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 653 73 80 65 edo 943 76 07 55

802. EROSI

Bizikletak eramatekoa. Volkswagen Caddy batentzat balio dezakeen bizikletak eramatekoa behar dut, atzeko portoiaren jartzen den horietakoa. Ez dut bolarik, ezta zapaien jartzeko nahirik ere. Eskerrik asko. 660 43 64 29

Klarineta. Bigarren eskuko klarineta erosiko nuke. Mila esker. 619 63 94 87

Mendiko bizikleta. "Mountain bike" moduko bizikleta erosiko nuke, parilla eta gurpil babesleduna. Kaskoa ere erosiko nuke. Deitu zenbaki honetara: 617 21 89 74

804. HARTU

Bizikletak. Erabiltzen ez dituzun edo botatzeko daukazun bizikletak jasoko nitzuke. Berdin da zein egoeratan dauden. Bila joango nintzateke. Iñaki. 699 06 23 95

Erradiadoreak. Etxetik kentzeko dituzun erradiadoreak hartuko genituzke. Deitu telefono honetara: 626 13 07 56

Sofak. Etxean daukazun sofak kendu gura badituzu, guk hartuko genituzke. Jasotzera joateko arazo barik. 646 36 68 02

805. TRUKATU

Elkarteko plaza. Bergara erdialdean dagoen elkarte bateko plaza trukatu nuke Madura elkarte beste batekin. 667 66 12 40

806. GALDU

Betaurrekoak Arrasaten. Urriaren 18an, egubakoitzean, betaurrekoak galdu nituen San Andresen. Aurkitu badituzu, deitu mesedez zenbaki honetara: 943 76 52 39

Eguzkitako betaurreko gorriak funda eta guzti galdu dituz Arrasaten. Adidas markakoak. Aurkituz gero, deitu 606 24 79 09 telefonora.

Jertse gorria galdu Aretxabaletan. Mayoral etxeko jertse gorria galdu genuen igande iluntzean Aretxabaletan (urriak 20). 18 hilabete neurrikoa da. Bilatu duenak dei dezala mesedez telefono zenbaki honetara. Eskerrik asko! 636 83 62 00

807. AURKITU

Gutunazala. Bergarako Artzamedia kalean, urriaren 27an, dirua aurkitu nuen gutunazal baten sartuta. Galdu duenak, dei dezala hona: 699 31 39 61

9. HARREMANAK

904. BESTELAKOAK

Arabiera-Euskara. Hizkuntza trukea egiteko gertu: nik arabiera erakutsi eta trukean euskara jasoko nuke. Debagoienean. 631 46 56 98


Saskibaloia. Saskibaloian jolastu nahi duzu? Astelehenean, 19:00etan, Almenen saskibaloian jokatzeko taldekide bila gabiltzan 18 urtetik gorako neska talde bat gara. Deitu edo idatzi helbide honetara: saskineski@gmail.com. 653 74 86 26 edo 670 35 79 130ñati

Amaia
Txintxurreta
Kantariko
aurkezlea



4. edizioa Kantari

Bergarako saioa!



Bergara, Antzuola eta Elgetako partaideok, eman azken errepasoa abestiari eta koreografiari!



IKUSKIZUNA

BERGARAN
Azaroaren 9an
Zabalotegi aretoan.



***Etorri zuen lagunak animatzera.
DJa ibiliko da giroa animatzen.
Etorri disko-festara dantzara eta
Kantariko gaztetxoak animatzera!***



Informazio gehiago: 943 25 05 05
<http://blogak.goiena.net/kantari/>

goiena"

Fragmentazioa eten gura du Android-en KitKat bertsioak

Sistema eragilearen bateragarritasuna arazoa da

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Nexus 5 modeloarekin batera aurkeztuko du Google-ek Androiden garapen berria: Android KitKat. Filtratutako informazioari esker jakin ad Android-en egokitzapen ezberdinen fragmentazioa murriztea izango dela lehentasun nagusia. Horrez gain, hobekuntzak egongo dira konektibitatean, bereziki, izpi infragorriari, Bluetooth-ari eta NFC teknologiarik dagokionean.

Bateragarritasuna helburu

Android sistema eragilearen bertsio ezberdinak eta sistema bera egokitu behar den gailu mota

kopurua handia ez da mesedegarria Google-en sistema eragilearentzat. Oso handia da Android darabilten dispositibo ezberdinen kopurua eta sistema eragilearen bertsio ezberdinak izateaz gain, gailu bakoitzak *hardware* ezberdina duenez, sistema eragile beraren bertsio bat gailu guztiekin bateraezin bilakatzen du. Sistema eragilearen zabalkunde azkarraren arrakastaren gako izan zena, orain, egonkortze fase baten, problema bilakatu da. Izan ere, garatzaileek konpatibilitate arazo handiak dituzte aplikazioak egiterakoan. KitKat-ekin, asmoa da gama baxu zein altuko gailue-

tan, *hardware*-a eta sistema gorabehera, guztientzat erabilgarria den Android egonkor bat izatea.

Helburu horietaz gain Android berriak aurrera begirako urratsak ere planteatzen ditu *Wearables* delakoan joeraren barruan -erloju, betaurreko... inteligenteak -, sistema egokitu bat aurkezteko. Horrekin lotuta urrats kontagailuak, errotazioa bektoreak ala urrutiko kontrolentzako euskarrientzako prest egongo da sistema eragile berria, ahalik eta dispositibo gehiagorengana heltzeko. Berealdiko garrantzia duen eguneraketa izango da, hortaz.

Bere kasa konpontzen den karkasa kurbatua du LG-ren mugikor berriak

J.B. | ARRASATE

Sei hazbeteko pantaila kurbatua duen mugikorra iragarri du LG-k. Atzeko aldean ditu botoiak G Flex modelook eta bateria handi bat eta bera bakarrik konpontzeko gauza den karkasa dauka. Kurbaduraren nobedadea da beste modelo batzuen kurbatze horizontala barik, G Flex-a ardatz bertikalean bihurtzen da. Forma honekin soinuaren kalitatea hobetzen da, fabrikatzaileen esanetan, eta baita ere, bideoak ikusterakoan, esperientzia hobetu egiten da.

Material elastiko berezia

Modelo berriaren beste ezaugarri deigarria karkasaren bere

kasa konpontzeko gaitasuna da. Material elastiko bati esker lortzen du hori karkasak, urratu txiki eta kolpeen kasuan.



G Flex modelo. | LG

Datu urratzeen isunen %73 telekomunikazio enpresei dagozkie

J.B. | ARRASATE

Datuen Babeserako Espainiako Agentzian 2012an ezarritako isunen %73 telekomunikazio enpresek jaso zituzten datu pertsonalen tratamenduan praktika txarrak egitearren. Agentziak zabalduetako memorian 2011tik 2012rako epean datu pertsonalen urratze kopurua %12,37 igo zela azaltzen da. Orokorrean hartuta, aipatutako urraketa guztien %71 merkatuko telekomunikazio operadore nagusiek egin zituzten. 896 izan ziren joan zen urtean Agentziak idatzitako arau-haustete ebazpenak eta horietatik 557

kasuk zigor ekonomiko batekin amaitu zuten prozesua.

Babes eskariek ere gora

Babes eskaeren artean Agentziak memorian nabarmentzen du geroago eta gehiago direla "Ahaztura eskubidea" delakoari dagozkionak. 2007an eskubide horrekin lotura 3 erreklamazio besterik ez baziren jaso, 2012an jada 181 izan ziren eskaerak.

Sektore publikoari dagokionez, behera egin dute erreklamazioek. Jabetzaren erregistroari dagokion Datuen Babeserako Legearen atalean egon da igoera bakarra.



Androi KitKat-en promozio irudietako bat. | GOOGLE

Youtube Spotify gisako zerbitzu baten lanean ibil daiteke jada

J.B. | ARRASATE

Google-en bideo zerbitzariaren asmo berriak poliki-poliki argitzen doaz eta jomugan musika streaming zerbitzu bat izango lukete, Spotify-tren gisakoa, konpainia bertako barneko iturriek baieztatu dutenez.

Egitura, eginda jada

Iturriek eurek azaldutakoaren arabera, zerbitzu berriak ere doako eta ordainpeko modalitateak izango lituzke. Azpiegitura honez ere eginda daukate eta zerbitzuak beharko lituzkeen zabalkundearako tresna sozialak ere prest ditu Google-ek Google Plus plataformari esker.

Gezurtaimen ofizialik ere ez da egon. Google-etik soilik esan dute beti dabilzala aukera berrien bila eta Youtube-eren aukera guztiak aztertzen dituztela.

AEBek aldatu dute jadanik hegaldietarako araudia

J.B. | ARRASATE

Estatu Batuetako Abiazio Autoritate Federalak gailu elektronikoak hegaldian erabiltzeko arau berriak argitaratu ditu, orain artekoak baino permisiboagoak. Data zehatz barik, baina arauok aurki egongo dira, antza, indarrean. Hegaldi osoan *tablet*, liburu elektronikoak eta mugikorrek erabili ahal izango dira hegazkin bertako wi-fi sarera konektatuta. Salbuesten dira ordenagailu eraman-garriak ala gailu handiagoak baina erabili ahal izango dira aireratu ostean eta lur-hartzean izan ezik. Mugikor bidezko deiek galarazita jarraituko dute. Estatu Batuetako araudia mundu osora aplikatuko litzateke, lehenago ala beranduago.

Instagram hasi da jada babesletza moduan, iragarkiak txertatzen

Argazki eta bideo promozionatu moduan, iragarkiak txertatzen hasi da irudian oinarritutako Instagram sare soziala. Iragarkiek erabiltzaileen denbora-lerroko ohiko argazki eta bideoen itxura antzerakoa dute, gainontzeko irudiekin oharkabean nahastuz. "Sponsored" (*babesletza*) marka batekin bereizten dira mezu batzuk besteengandik.

'Hangouts' eraberritu du Google-ek SMS, GIF eta lokalizazioarekin

Mezularitza eta komunikazio aplikazioari SMS-ak ere bidali eta jasotzeko aukera gehitu dio Google-ek. Horrekin batera, lokalizazioa partekatze aukera ere ematen du dagoeneko Hangouts-ek eta, bitxikeria moduan, elkarrizketetan, hain boladan dauden GIF irudi bizidunak txertatzeko aukera ere badakar.



ALT1040

Bitcoin lehen kutzazaina martxan

Kanadako bi ekintzailearen ideia da eta Torontoko kafetegi oso ezagun baten ipini dute. Kutzazainarekin Bitcoinak benetako dolarrengatik alda daitezke eta alderantziz. Gako bidez ala erabiltzailearen esku-ahurra eskaneatuta egiten da identifikazioa eta Bitcoinics eta Robocoin enpresek dute kudeaketaren ardura. Bitcoin bidez egiten diren operazioak erabat legalak dira, Internet bidez moneta erabat erregulatua baita operazio horietarako.

TELE-BEGI

IMANOL GALLEGO



Betiko lepotik burua

Mediaset errefus faktoriak ez du inoiz ikasiko, are gehiago, duela urte batzuk lozorroan utzitako programak berpiztuko ditu oso laster.

Supervivientes izan ohi da 4. mailako sasifamatuek bigarren aukera bat izateko tokia. Karibeko resort gabeko uharte batean utzi, eta ia gosez akabatu ondoren, Salvame Deluxe, Ana Rosa eta Mari Tereren platoetatik pasa ostean diru pila poltsikoratzen duten formatua da. Lehiaketa bat izan arren, programa nork irabazten duen jakitea gutxieneko kontua da, garrantzitsuena Interviu aldizkarian zenbat titi ikusiko ditugun jakitea da.

Aurtengo castinga sekretua da baina dagoeneko zenbait foro eta webgunetan hasiak dira kinielak egiten. Belen Esteban eta Campanario bikotea, Mario Vaquerizo, Paco Marhuenda... Gaiztoak gara gero! Paco Marhuenda koitadua... Ring politikotik, *couche* lurraldera! Zorionez, honek ez ditu bere titiak Interviu erakutsiko!

Nik Mariano Rajoy eta Artur Mas sartuko nituzke. Bi hauek, Aznarrek egiten zuen bezala, intimitatean katalanez hitz egingo dute?

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 4



'Harmailatik'

Zapatuko Atxintxika krosak tarte zabala izango du, parte-hartzaileen adierazpen eta irudiekin. | 21:21

- 12:00 Magazinea
- 12:45 Erreportajea
- 13:12 Ikusten
- 13:37 Ekogune
- 14:07 Onein
- 14:42 Zorion Agurrak
- 14:46 Berriak
- 15:16 Eguraldia
- 15:19 Zorion Agurrak
- 15:24 Nafarroa Oinez 2013
- 15:49 Zorion Agurrak
- 15:56 Onein
- 16:28 Berriak
- 16:58 Eguraldia
- 17:01 Zorion Agurrak
- 17:06 Ikusi irratia
- 17:53 Berbetan
- 18:28 Ekogune
- 18:58 Zorion Agurrak
- 19:03 Berriak
- 19:28 Eguraldia
- 19:31 Euskal Herriko dantza txapelketa
- 20:01 Zorion Agurrak
- 20:06 Magazinea
- 20:51 Berriak
- 21:16 Eguraldia
- 21:21 Harmailatik
- 22:06 Berriak
- 22:31 Eguraldia
- 22:34 Magazinea
- 23:19 Gurean gaur

MARTITZENA, 5



'Kantari'

Gaur estreinatuko da Kantari saioa, Aretxabaletako eta Eskoriatzako haurren grabaketekin. | 19:35

- 12:00 Magazinea
- 12:45 Harmailatik
- 13:25 Berbetan
- 13:57 Bideo klipak
- 14:15 Euskal Herriko dantza txapelketa
- 14:45 Berriak
- 15:10 Eguraldia
- 15:13 Harmailatik
- 15:53 Onein
- 16:25 Berbetan
- 16:57 Berriak
- 17:17 Eguraldia
- 17:20 Zorion Agurrak
- 17:25 Euskal Herriko dantza txapelketa
- 17:55 Harmailatik
- 18:40 Ikusmira
- 18:57 Zorion Agurrak
- 19:02 Berriak
- 19:27 Eguraldia
- 19:30 Zorion Agurrak
- 19:35 Kantari
- 20:05 Magazinea
- 20:50 Berriak
- 21:15 Eguraldia
- 21:18 Bertso Txapelketa Nagusia
- 22:03 Berriak
- 22:28 Eguraldia
- 22:31 Magazinea
- 23:16 Gurean gaur

EGUAZTENA, 6



'Baietz asmatu'

Deitu, Amaia Txintxurreta lehiaketako gidariak egindako galderei erantzun eta irabazi sari ezberdinak. | 19:33

- 12:00 Magazinea
- 12:45 Onein
- 13:05 Kantari
- 13:35 Nafarroa Oinez 2013
- 14:00 Ikusi irratia
- 14:47 Berriak
- 15:12 Eguraldia
- 15:15 Euskal Herriko dantza txapelketa
- 15:45 Harmailatik
- 16:25 Berriak
- 16:50 Eguraldia
- 16:53 Harmailatik
- 17:33 Onein
- 18:08 Erreportajea
- 18:23 Nafarroa Oinez 2013
- 18:48 Zorion Agurrak
- 18:53 Berriak
- 19:13 Eguraldia
- 19:16 Bideo klipak
- 19:33 Baietz asmatu!
- 20:03 Zorion Agurrak
- 20:08 Magazinea
- 20:53 Berriak
- 21:18 Eguraldia
- 21:20 Ekogune
- 21:50 Magazinea
- 22:35 Berriak
- 23:20 Eguraldia
- 23:50 Gurean gaur

EGUENA, 7



'Planik bai?'

Mireia Bikuña kazetariak asteburuan bailaran dauden kultur ekintza ugarien berri emango digu. | 17:38

- 12:00 Magazinea
- 12:50 Onein
- 13:10 Nafarroa Oinez 2013
- 13:35 Ekogune
- 14:05 Bideo klipak
- 14:40 Zorion Agurrak
- 14:45 Berriak
- 15:10 Eguraldia
- 15:13 Ikusmira
- 15:30 Zorion Agurrak
- 15:35 Berbetan
- 16:10 Gernika Lumo rallya
- 17:10 Berriak
- 17:35 Eguraldia
- 17:38 Planik bai?
- 17:58 Ekogune
- 18:28 Zorion Agurrak
- 18:33 Berriak
- 18:53 Eguraldia
- 18:56 Bideo klipak
- 19:15 Planik bai?
- 19:35 Kantari
- 20:03 Zorion Agurrak
- 20:08 Magazinea
- 20:53 Berriak
- 21:18 Eguraldia
- 21:21 Planik bai?
- 21:41 Berriak
- 22:11 Eguraldia
- 22:14 Magazinea
- 22:59 Gurean gaur
- 23:29 Planik bai?

EGUBAKOITZA, 8



AsteOn

Astean zehar bailaran gertatutako albiste garrantzitsuenen errepasoa egingo du Jon Berezibarrek. | 21:01

- 12:00 Planik bai?
- 12:20 Magazinea
- 13:05 Kantari
- 13:30 Bideo klipak
- 14:00 Ikusten
- 14:25 Planik bai?
- 14:45 Berriak
- 15:10 Eguraldia
- 15:13 Ikusten
- 15:38 Zorion Agurrak
- 15:44 Planik bai?
- 16:08 Berriak
- 16:33 Eguraldia
- 16:36 Ekogune
- 17:06 Bideo klipak
- 17:26 Ikusmira
- 17:43 Berbetan
- 18:18 Planik bai?
- 18:38 Zorion Agurrak
- 18:43 Berriak
- 19:13 Eguraldia
- 19:18 Ikusten
- 19:43 Planik bai?
- 20:08 Zorion Agurrak
- 20:13 Berriak
- 20:38 Eguraldia
- 20:41 Planik bai?
- 21:01 AsteON
- 21:31 Ekogune
- 22:01 Planik bai?
- 22:21 Berriak
- 22:46 Eguraldia
- 22:49 AsteON
- 23:19 Planik bai?

ARRASATE IRRATIA

'La tabernera del puerto' zarzuelaz Naroa Elorzarekin

Izaskun Murgia elkarteko lirikokoak *La tabernera del puerto* zarzuela prestatzen dabilta buru-belarri. Naroa Elorza elkarteko kidea gaurko irratsaioan izango da azaroaren azken bi asteburuetan eskainiko duten lanaren eta honen prestaketaren nondik norakoak azaltzeko.

Gazte Bulegoko berriak martitzenean Dorleta Kortazarren eskutik

Hamabostero moduan Arrasateko Gazte Bulegoko Dorleta Kortazar izango da Arrasate Irratian. Inguruko gazte eta ez hain gazteei interesa dakizkieken lan eskaintza, ikastaro, beka eta bestelako berri emango du Kortazarrek. Zuek ere jakin nahi badituzue jarri FM 107.7a.

Kooltur Ostegunerako eta antzerkirako sarrerak zozketan

Bi kultura ekitalditarako sarrerak zozkatuko dira aste honetan. Kooltur Ostegunetan Correos talde donostiarra izango da eta ostegunetan bertan zozkatuko dira sarrerak. Hika taldeak, aldiz, domekan taularatuko du *Hitzak antzez-lana* Arrasaten eta horretarako sarrerak egubakoitzean zozkatuko dira.

TELE-ALBISTEAK

Bihartik aurrera ikusi ahal izango dira Kantariko lehen saioak

Martitzenetan eta eguenetan emitituko dira saioak eta egun bat geroago errepikapenak

IURE EIZAGIRRE | ARRASATE
Musika eta dantzarekiko zaletasuna erakutsi dute azken asteetan bailarako haur ugari Kantari Goiena Komunikazio Taldearen ikuskizunaren bitartez. Hainbeste entsegu eta lanen ostean, heldu da egindako lanaren fruituak ezagutzeko unea. Grabazioek eman zuten horretarako lehen aukera baina etxeko txikienek euren burua ikusi ahal izango dute orain. Nola? Goiena telebista bihar emititzen hasiko den Kantariko saio ezberdinei adi-adi egonda.

Urrian Aretxabaletako eta Eskoriatzako neska-mutilek grabatutako saioek estreinatuko dute bi urtetik behin eskaintzen den Kantari saioa. Astean birritan emango da, martitzenetan 19:35ean eta eguenetan ordu berean. Lehen emanaldia ikusi ezin dutenek edo haurrek egindako lanaz birritan gozatu nahi dutenek, eguaztenetan 13:05ean ikus dezakete martitzeneko errepikapena eta egubakoitzean, ordu berean, eguneneko. Asteburuetan ere izango dira errepikapenak: zapatuetan 10:00e-



Kantariko grabaketako une bat, Aretxabaletan. | JOSETXO ARANTZABAL

Martitzenetan eta eguenetan izango dira lehen saioak, gero errepikapenak

tan eta 16:00etan eta domeketan 13:00etan eta 19:00etan. **Grabaketak aurrera** Bihar hasiko dira telebista emanaldiak baina oraindik ere Kantariko grabaketak egiten ari dira.

Asteburu honetan Bergaran egin dituzte grabazio aurreko entseguak. Datorren asteburuan, berriz, grabazioak egingo dituzte. Bergarako grabaketetan, herriko umeez gain, Antzuolakoak eta Elgetakoak dabilta.


ZORION AGURRAK



BERGARA
Aner Larrea Gantxegi
Zorionak, txapeldun!
Ondo pasatu zure urtebetze eguna eta muxu handi bat etxekoan eta bereziki Noraren eta Unaxen partetik. Askok maite zaitugu!



OÑATI
Urko Egaña
Azaroaren 10ean, 34 urte. Zorionak, aitatxo!
Tarta eder bat ingu zure urtebetetzia zelebratuko. Ondo pasatu eta amatxoren partetik be, zorionak!



BERGARA
Ioritz Piñeiro Garcia
Azaroaren 8an, 11 urte. Zorionak, txapeldun!
Disfrutatu zure egunian txokolatzeko tarta goxo batez! Muxu pilla familiaren eta lagunien partetik.



OSINTXU
Maddi Arando Arbelaitz
Azaroaren 6an, 6 urte. Printzesa! Zorionak eta muxu handi bat etxeko danon partetik. Ondo pasatu eguna.



ESKORIATZA
Gentzane Andetxaga Korujo
Azaroaren 5ean, 9 urte. Zorionak, *guapetona!* Disfrutatu zure egunian. Muxu handi bat Oinatzen, aitaren eta amaren partetik.



ARRASATE
Laia Etxagibel Ruidiaz
Azaroaren 5ean, 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat denon partetik.



OÑATI
Beñat Erostarbe Arriaran
Azaroaren 5ean, 2 urte. Zorionak, Beñat! Oso ondo pasatu zure urtebetze egunean. Muxu handi bat familia danaren partetik.



BERGARA
Josu Martinez Loiti
Azaroaren 4an, 9 urte. Zorionak gure kari-abeslari-antzerkilari... fama handi horri! Patxo potolo bat denon partetik.



OÑATI
Ekain Gereñu Arregi
Azaroaren 4an, 3 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure eguna eta muxu handi bat etxeko danon partetik, potxolo!



ARRASATE
Garazi Azkarate Ojanguren
Azaroaren 4an, 5 urte. Zorionak! Lideren eta lehengusu Oihanen eta Hegoiren partetik.



ARRASATE
Maider Frutos Uribealzo
Azaroaren 3an, 9 urte. Zorionak, *prexioki!* Bederatzi urte gure neskak! Ondo ospatu eta patxo pila, etxekuen partetik!




ARETXABALETA
Eneko Zugasti
Azaroaren 3an, 4 urte. Zorionak, mutikote! Primeran pasatu zure urtebetze egunean eta etxeko partetik mila patxo! Mua!



ARRASATE
Nagore eta Aimar Garitaonandia
Azaroaren 3an, 10 urte. Etxeko danen partetik, zorionak!



ARRASATE
Martin Abarrategi Segura
Azaroaren 2an, urtebete. Zorionak, Martin! Ze azkar pasatu zaigun zure lehenengo urtetxo! Zumarragako eta Arrasateko familien partetik, jarraitu hain argi eta zintzo eta poz-pozik igaro zure urtebetetzea.



ESKORIATZA
Xabat Gonzalez Idigoras
Azaroaren 2an, 7 urte. Zorionak, txapeldun! Oso ondo pasatu zure eguna eta patxo handi bat etxeko guztien partetik.




OÑATI
June eta Nahia Blazquez Zelaia
Azaroaren 2an, 8 urte. Zorionak, bikote! Disfrutatu zuen urtebetzea, azkenean iritsi da-eta! Muxu handi bat etxekoan partetik.



ARRASATE
Lier Escobar Aperribai
Azaroaren 1ean, 7 urte. Askok baino askoz gehiago maite zaitugu. Zorionak, eta zoriontsu izan, txapeldun! Zure familia.



ARRASATE
Nora Lana Ibabe
Azaroaren 1ean, 3 urte. Zorionak etxeko danen eta, batez ere, Markelen eta Anderren partetik.



BERGARA
Beñat Piñeiro Garcia
Azaroaren 1ean, 6 urte. Zorionak, *ganberro!* Oso ondo pasatu zure eguna, trastadarik egin barik. Muxu asko familiaren eta lagunien partetik.



ARETXABALETA
Alaitz Agirre Aldalur
Azaroaren 1ean, urtebetetzea. Zorionak, Alaitz, etxeko guztion partetik! Joanesen eta Maiarren partetik bereziki! Jada neska handia einda zaz, eh! Ze azkar pasatu dan denporia. Patxo handi-handi bat eta ondo pasatu eguna!




OÑATI
Enzo Elizburu
Urriaren 31n, 3 urte. Zorionak, bihurri! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean, merendola eta guzti! Askok maite zaitugu. Holako alai eta guapo jarraitu. Muxutxu asko etxeko guztien, baina bereziki, Marioren partetik.




ARRASATE
Ibai Etxebeste Rodrigo
Urriaren 30ean, 10 urte. Zorionak, Ibai! Oso ondo pasatu eguna eta muxu handi bat etxekoan partetik!



ARETXABALETA
Nerea Zubizarreta
Urriaren 30ean, 23 urte. Oso ondo pasatu zure egunien etxeko danen partetik! Muxu potolo bat!



OÑATI
Enaitz Kortabarria Txintxurreta
Urriaren 30ean, 6 urte. Zorionak, txapeldun! Oso ondo pasatu zure egunean. Muxu potolo bat danon partetik!



ARRASATE
Irati Lopez
Urriaren 30ean, 17 urte. Zorionak, *guapisima!* Egun ederra euki eta topera aprobetxatu. Bixarko traguak zure kontu. Patxo handi bat Almenetik!



BERGARA
Maite Larrañaga Olabarria
Urriaren 30ean, 33 urte. Zorionak, politxo! Ondo pasatu zure urtebetetzia eta patxo handi-handi bat Elixabeteren, Martinen eta etxeko danen partetik.



OÑATI
Danel Gomez Barrena
Urriaren 29an, 4 urte. Zorionak, potxolo! Ondo-ondo pasatu eguna eta patxo handi-handi bana familia danaren, eta batez be, Urkoren partetik.



OÑATI
Izar Ezkibel Bastida
Urriaren 29an, 5 urte. Zorionak, polittori! Patxo handi bat etxeko danon eta, bereziki aitaren, amaren eta Oierren partetik!



ARRASATE
Marta Gonzalez Flores
Urriaren 28an, urtebetetzea. Zorionak eta patxo handi bat familiaoan eta koadrilakoan partetik, batez ere biloba Juliana eta Hugok.

Zorionak!

Internet
Saz zaituz goiena.net atarian eta Zorion agurra bidali botoia sakatu. Bete eskatutako datuak eta bertan argitaratuko da zorion agurra. Baita Goiena paperean ere.
Posta elektronikoa
Mezu bat bidali zorionagurra@goiena.com helbidera, adieraziz: izen abizenak, herria, urtebetetze data eta nahi duzun testua.
Ordezkaritzak
Etor zaituz GOIENAKO ordezkari zure batera.

URTEURRENA

**Jesus Errasti
Uribetxebarria**

Gasteizen hil zen 2011ko azaroaren 4an.

*Zu joanagatik, betirako izango zara gurekin.*Etxekoak.
Aretxabaletan, 2013ko azaroaren 4an.

OROIGARRIA

**Martina Zelaia
Martinez de Butron**

Oñatin hil zen 2013ko urriaren 29an, 88 urte zituela.

*Gure bihotz barruan eramango zaitugu beti, amama Martina.*Zure bilobak eta birlobak, Amaia, Ibon, Martin, Elene, Mikel, Aimar eta Aitor.
Oñatin, 2013ko azaroaren 4an.

OROIGARRIA

**Miguel
Gonzalez Bastida**

2013ko urriaren 31n hil zen, 93 urte zituela.

*Jaiotzez zein izatez musikari. Sartzaille, konposatzaile, jotzaile, zuzendari... musika zen Miguel Gonzalez Bastida. Bizitza oso bat emana Bergarako musika jardunari eta euskal musikari. Bandarentzat maisu. Zure musikak gudan jarraituko du.*Begarako Udal Musika Banda.
Bergaran, 2013ko azaroaren 4an.**ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05**

Egubakoitzean nahiz astelehenean argitaratzeko.

Eskelaren prezioa: 130 euro.

Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 175 euro.

Goiena: irakurriena Debagoienean.

OROIGARRIA

**Juan Jose
Arregi Agiriano-Zabalaga**

—Goian bego—



2013ko urriaren 31n hil zen, 58 urte zituela.

*Zuk emandakoa
gurekin geratzen da.*Astokilo motorzale taldea.
Arrasaten, 2013ko azaroaren 4an.**OROILORE**

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardura handienarekin, nire asmoa da familiari ahalik eta traturik beroena eta hurbilekoena ematea**Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu:
NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua
AUKERA DEZAKEZULA BETI.*maribi 617 44 21 55
BERGARA**JAIOTAKOAK****Joseba Ugarte Lana**

Oñati. 3,780 Kilo. Urriaren 26a. Gurasoak: Ainhoa eta Xabier.. Argazkian, Joseba amaren besoetan.

**Oinatz Bailez Loiti**

Aramaio. 3,080 Kilo. Urriaren 28a. Gurasoak: Amaia eta Ibai. Argazkian, Oinatz jaioberria sehaskan lo.

**Oinatz Gallastegi Etxeberria**

Bergara. 3,390 Kilo. Urriaren 30a. Gurasoak: Nerea eta Juan Luis. Argazkian, Oinatz, Maddi arrebarekin.

Eroski hipermerkatuaren partetik,

zorionak

jaioberriei eta gurasoei

Eroskik, zuen lehen beharretarako,
10 euroko bonua* egingo dizue opari
Goiena Klubeko bazkide zaretenoi.Musakola 11 ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30

* Debagoieneko ospitalean jaiotzen direnentzat

Jaio da!**Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta interneten.
Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz GOIENAREN ordezkari batara.**Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik iragarriko ditugu.
Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

AI, ENE!

Burua babestuta eta aurpegia fresko

Itxura aldetik punta-puntakoa ez den arren, bisera honekin bukatu dira bai buruko minak eta baita aurpegiko beroak ere.



www.gonzoo.com

AHOBERO


"Batek gehiago gastatzen du ile-apaindegian besteak baino"

JOSEPH BLATTER | FIFA-KO PRESIDENTEA

Urrezko Baloia eskuratzeko lehian daude Messi eta Cristiano Ronaldo, eta Joseph Blatterrek egin du bere aukera: Messi. Portugaldarraren inguruan esan dituenak gainera (ile-apaindegian gehiago gastatzen duena bera ei da), ez dituzte oso ondo hartu Madril aldean.

www.marca.es

EGURALDIA



Max. 15°

Min. 10°

Gaur euripean igaroko dugu egun osoa, batez ere ipar partean eta mendi inguruetan.

euskalmet.net

ASTELEHENKOA

goiena

2013-11-04

HAMARREKOA

Irati Jimenez Bat, bi Manchester eta Nora ez dakizun hori eleberrien idazleak genero gehienak landu ditu. Aiztoa eta arkatza du azkena, ia 30 idazleren aholkuak jasotzen dituen liburua | TXOMIN MADINA

"Batzuk profesionalak izan arren, denok gara idazleak"

1. Arkatzak bai, baina zein harreman du aiztoak literaturarekin? Izugarri nabarmena. Literaturaren eta hizkuntza idatziaren tresna nagusienetakoa sintesia da: inportanteagoa da hitzarekin asmatzea, hitz asko esatea baino. Liburuan idazle askok aipatzen dute moztu eta kentzearen garrantzia.

2. Idazlea ez den irakurleari zertan lagunduko diote aholkuok? Harkaitz Canok hitzaurrean dioen moduan, idazleak ia denok gara. Nork ez dio bikote ohi bati e-maila idatzi? Edo doluminak? Edo loretxo bat? Batzuk profesionalak izan arren, denok gara idazleak.

3. Aita idazlea izanda, zuk zeuk etxean jasoko zenituen aholkuak. Aholkurik onena: eredu, lanbide bat normaltzearen eredu. Batzuek idaztea, jarduera artistikoak, urrun dituzte. Nik oso hurbileko izan ditut, eta lanbide bezala ikustea erabakigarria izan da.

4. Zer esango zenioke idazten hasi gura duen bati? Ez ahazteko idaztearen plazera: askori, txikitatik datorkie idazteko grina; eta umetan, idaztea jolastea da. Eta idaztea izan dadila bizitzaren zati bat: zenbat eta bizitza aberatsagoa izan, orduan eta gehiago disfrutatuko du idazten.

5. Idazteko orduan, zerk motibatzen zaitu? Idaztearen plazerak berak. Exorzismoa ere bada: buruan ditudan idazteak burua askatzen dit.



AGM

MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Dagoeneko badaukat: arkatza"

"Egia esan, dagoeneko badaukat makila magikoa: arkatza. Dena aldatzeko balio du, besterik ez bada fikziozko munduan. Makila magikoa banu, boterez mozkortuko nintzateke eta, beharbada, ez nuke jakingo gelditzen. Ez zait komeni makilatxo bat izatea; hobe arkatza".

6. Ia genero guztiak jorratu dituzu. Denetan eroso edo denetan deseroso zauden seinale? Denetan egon dira erosotasun eta deserosotasun uneak. Buruan izan ez dudana generoa poesia da: irakurtzea gustatu arren, idaztean ez dut zaletasunik eduki.

7. Zein idatzik bete zaitu gehien? Aiztoa eta Arkatza-n autore batek dio liburuak bikotekide ohiak legez direla: zure bizitzatik irten eta buruan ez izateak ez du esan gura ez dituzula asko maite izan. Niretzat, bere momentuan, denak izan dira garrantzitsuenak.

8. Lan kuriosoak ere badituzu: Mulder eta Scullyren arteko harremanaren analisisa, esaterako. Telezailak libururako, bai. Beti izan naiz oso telesail-zalea, eta hainbat autorearen artean *frikada* hori egiteko aukera sortu zen. Sekulako plazera izan nuen; bereziki horrelako gaiak euskarara ekartzeko aukera izan zelako.

9. Sariak paper garrantzitsua izan dute zure ibilbidean. Literaturan sartzeko modu bat izan da; neure buruari nire maila frogatzeko ere bai. Dirua lortzeko ere balio izan zidan orduan.

10. Kazetaritza: hitzekin jolasteko beste era bat ala fakturak ordaintzeko? Lehena. Kazetari akzidentala naiz, asko gozatzen dut: zenbat eta leku gehiagotan ibili, orduan eta gauza gehiago idatzietara ekartzeko.

BIHARAMUNA

MARKOS BALENTZIAGA



Espioiak nonahi

Batzerrak aztoratuak dabilta zabaldu denetik Estatu Batuetako NSAk (Segurtasun Agentzia Nazionala), komunikagailu aurreratuak non, *nonzeberri* ibili dela han. NSAk, Alemanian, Merkel beraren fono partikularra ere kuxkuxeatu du. Españan, berriz, 2012 eta 2013 bitartean, hilabetean, 60 milioi baino komunikazio gehiago zelatu ditu.

Merkel sutan dago amerikarrek: "Lagunak ez dira espiazten!", ebaki du erretxin-durik; lagunak eta sozioak murrizketen bidez ito egiten dira. Maestra makala da horretan frau Merkel!

Umeak ere badakite teknikak uzten duen mutur-puntaraino iristen dela espioitza, lege guztien gainetik eta debekuen azpitik. Alemaniako kontraespioitza, berriz, non arrai ibili da? Bihar-etzitan, han joango zaizkio Merkeli Amerikako gobernuaren harreman publikoetako ordezkari salauak, lore-sorta eskuan, barkamen-eske.

Eta Españan eginiko entzuketek, zer? Españako entzuketetan bertako espioiak Amerikako laguntzan ibili dira! Sinestea ere lana da! Non lurperatu dute Españaren subiranotasun hausteziaren mantra agintari español harrokoek?

Negua gainean dugu

Hotza etorri baino lehen, aurpegiko azala berreskura eta presta ezazu

- Aurpegi fotogaztetzeari
- Zahartzearen aurkako tratamendu berezia

Tratamendu mediko estetikoak lifting kirurgikoaren ordezkakoak

Arruabarrena doktorea (elkargokide zkia.: 6.073)

- Azido hialuronikoa
- Bioplastia
- Aurpegi betetzeak
- Peelingak
- Toxina botulimikoa (botoxa)
- Lift-Pro

Gure udazken-neguko eskaintzak kontsultatu



RPS: 228/10

AG
AMAGARA

Erdiko kalea 54 behea
20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 09 09